

1.000



Oparoa eta mamitsua izan da GOIENA aldizkariarendako –sorreran, *Goienkaria*– ia 23 urteko ibilbidea. Askorako eman dute mila azalez / 2

ANTZUOLAKO JAIK 2023
 ANTZUOLAKO JAIK 2023 / 25

puotua
 Odola emate osteko prozesua: zela, nork, noiz...
 Chambao taldeko 'La Mari'-ri elkarrizketa

MERKEALDIA
 2MÓ 79€
 LEHEN 99€
 GRADUATUAK

Multiópticas
 kalitatea - konfiantza - diseinua

Otalora Lizentziaduna, 18
 Tel.: 943 79 29 95
 ARRASATE

Ibargarai, 16
 Tel.: 943 76 15 75
 BERGARA

eskatu hitzordua

**Goienkaria 001**

Milurtekoko lehen urteko azkenetan jaio zen *Goienkaria*, eskualde osorako euskarazko astekaria.

**Goienkaria 038**

Goienkaria-ren barruan Debagoieneko herri aldizkariak astero; zazpi astekari eta lau edizio.

**Goienkaria 050**

Argia saria jaso zuen *Goienkaria*-k 2002ko urtarrilean, prentsa idatziaren atalean.

**Goienkaria 094**

CSI telesailako protagonistari, William Peterseni, elkarrizketa eskusiban. Oñatin bizi izan zen.

**Goienkaria 115**

Udalbatzak osatzeko bilkuretan istiluak 2003an, ezker abertzaleko plataformak baliorik barik uztearren.

**Goienkaria 166**

Bergarako zinema plato bihurtu zen 2004ko udan, Asier Altunaren *Aupa Etxebeste!* filmatzeko.

**Goienkaria 237**

ETAren 2006ko su-etenak ilusioa piztu zuen euskal gizartean; hainbat debagoiendarren iritziak azalean.

**Goienkaria 329**

Isaias Carrascoren erailketaren ostean, alkatearen aurkako konfiantza-mozioa; ez zen atera.

**Goienkaria 337**

Ino Galparsoro Arrasateko alkatea aske uzteko ekimena aurkeztu zuten Arrasateko Udalean.

**Goienkaria 426**

Des-kontrol taldeko kideek eraso faxista jasan zuten Barakaldon; elkartasun-mezu asko jaso zituzten.

E.A / M.A ARRASATE

Hamaika istoriorekin, milagarrena. Zenbaki borobila esku artean duzun astekari honek gaur, 2023ko uztailaren 7an, argitara eman duena. Haren izen, diseinu eta aro aldaketekin. Duela ia 23 urte, 2000. urteko abenduaren 1ean, egubakoitza, jaio baitzen *Goienkaria*, Debagoieneko bederatzi herrietan banatuko zen herri aldizkaria. Honela jaso zuen lehen zenbaki hartan Eneko Azkarate kazetariak, gaur egungo GOIENA aldizkari zuzendari eta orduko hartan *Goienkaria* abiatzeko ardura izan zuenak: "Gaur, abenduak 1, jaio da *Goienkaria*. Astero banatuko da, Debagoieneko herri guztietan, herri aldizkariak banatzen direnetan, haiekin batera; bestela, bakarrik. 20.000 ale banatuko dira, euskaraz egindako idatzizko komunikabide batek inoiz izan duen zabaldukerik handiena". 24 orrialdekoa izan zen, herri guztiek izan zuten euren atala, eta kirolak, kulturak, agenda, sailkatuak eta jaiotzak ere hantxe ziren. Urtebete geroago, 2001eko urrian, eskualdeko herri aldizkari guztiak asteroko bihurtu ziren –ordura arte *Arrasate Press* eta *Berrigara* bakarrik ziren astekariak– eta *Goienkaria* barruan banatzen ziren. Eta ho-

Milagarrena, zu hemen zaudela

Urtemuga berezia bete du gaur GOIENA aldizkariak. 1.000 zenbaki eta milaka kontu 2000. urteko abenduaren 1ean Debagoieneko herrietan banatzeko sortu zen euskarazko aldizkariak argia ikusi zuenetik. Milagarrena zurekin, zu hemen zaudelako

rrela, 2006ko otsailaren 3ko argitalpena arte. Egubakoitz hartan, *Goienkaria* edizio bakarreko bihurtu zen eta herri aldizkariak desagertu ziren betiko. Goienak Debagoiena osorako idatzizko edizio bera argitaratuko zuen.

Debagoiena, jomugan

2000. urteko martxoan, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte sortu zenean,

HELBURUA ZEN ESKUALDE MAILAKO PROIEKTU KOMUNIKATIBO SENDOA SORTZEA

helburua zen eskualde mailako proiektu komunikatibo multimedia sendoa sortzea: "Telebista, papera, irratia eta artean berria zen Internet batuko zituena, eta, orduko hartan, lehenengo bietan jarri zen arreta", dio Eneko Azkaratek, Goiena taldeko edukien zuzendariak. Debagoieneko euskara elkarteak, tokian tokiko proiektu komunikatiboetako ordezkariak eta udal ordezkariak hizketan hasi ziren, eskualde ikuspegia jomugan, hain zuzen. "Herriko mugak gainditu eta eskualde mailako euskarriak sortzea zen asmoa, eta euskararen normalizazioan eraginkorrago izatea". Eta horrela sortu ziren lehenengo GOITB eta *Goienkaria*. Biak ala

biak laguntzeko, biztanleko 1.000 pezeta eskatu zitzaizkien Debagoieneko udalei. Gaur, aldizkaria sortu eta 23 urtera, "Debagoiena egiten" ekarpena egin dutela ez lukete askok zalantzan jarriko. "Oro har, Goienak, eta, zehatzago, GOIENA aldizkariak, eskualdeari zentzua ematen lagundu dute, astero ia 29.000 irakurlerekin ia etxe guztietan sartzen baita", dio edukien zuzendari Eneko Azkaratek.

HAINBAT AITORTZA IZAN DITU: RIKARDO ARREGI ETA ARGIA SARIAK, ETA DISEINUARI SARIAK

Hainbat aro

Astean behinekoa nahikoa iruditu ez, eta euskararen normalizazioaren ikuspuntutik eragin-korrangoak izateko eta informatiboki zerbitzu hobea emateko egunerokoa argitaratzea izan zen garai baten erronka. "Bereziki, Jardunen helburua –Goienak bat egiten zuen– zen eskualderako egunkari bat sortzea, edo, gutxienez, astean bospasei egunetan argitaratuko zen papereko agerkaria argitaratzea. Ulertzen zen euskararen normalizazioaren bidean eraginkorragoak izango ginatkeela. Ulertu behar da 1990eko eta, bereziki, 2000ko hamarkadetan papereko euskarrien –egunkari, aldizkari...– loraldia gertatu zela. Ekonomia hazkundeak ahalbidetuta, autoedizioak sortzen zituen aukerez baliatuta, orriak eta orriak inprimatzen ziren, eta, testuinguru hartan, aukerak aztertzen hasi ginen", dio Eneko Azkaratek. Egin ziren azterketa ekonomikoak, eta, azkenean, erabaki zen astean bitan argitaratzea. Horrela sortu zen, 2003ko abenduaren 22an, *Asteleheneko Goienkaria*. Hura aurrera atera ahal izateko beste finantziario iturri batzuk bilatu ziren, dirulaguntzak eta publizitatea ez baitziren nahikoa. Hala, harpidetza edo salmenta bidezko diru-iturriak

**Goienkaria 407**

Reala Lehen Mailara igo zen; Debagoiengan izan zen ospatzen, Martin Lasarte entrenatzailearekin...

**Goiena 464**

Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak 25 urte ospatu zituen 2011n, herritarrekin.

**Goiena 471**

Historian lehen aldiz bi debagoiendar Tour berean: Iban Velasco eta Markel Irizar, 2011koan.

**Goiena 482**

ETAK iragarri zuen behin betiko uzten zuela jardun armatua; GOIENAK azalean nabarmendu zuen.

**Goiena 599**

Erabakitzeko eskubidearen aldeko giza kateak Durango eta Iruñea batu zituen; Debagoiengan, 22 kilometro.

**Goiena 634**

Manex Agirre, Arabako bertsolari txapeldun, bigarren, 2015ean; GOIENA aldizkariarekin ospatu zuen.

**Goiena 771**

Epaiketa Mondragon Korporazioaren kontra, Fagor Etxetresnen itxieragatik; buruak, aulkian.

**Goiena 791**

Rikardo Arregi Sari Berezia: Goiena Taldea, historiako euskarazko hamar egitasmoren artean.

**Goiena 885**

Koronabirusaren pandemiak gogor jo zuen 2020ko udaberrian zaharren egoitzetan. Egoiliarrei omenaldia.

**Goiena 982**

Leintz Gatzagako alkate Eugenio Otsuari azken agurra; 2023ko otsailean zendu zen.

bilatu ziren. 2003ko abenduaren 22an kaleratu zen lehenengo zenbakia, eta, handik hamaika urtera, 2014ko abenduaren 22an, 479 zenbaki kaleratu ostean, *Asteleheneko Goienkaria*-ren azkena argitaratu zen. Halere, harpidedunei zerbitzu onena eskaintzen jarraitzeko helburuarekin, *Puntua* jaio zen. 2015eko urtarrilaren 16an kaleratu zen lehenengo zenbakia. Egubakoitzetako ordainpeko argitalpena da hori, elkarrizketa, erreportaje eta beste hainbat kontu landuz osatua.

Astekari saritua

Mugarriekin jarraituz, sariak dira aipagarri. 2002. urtean Argia saria eskuratu zuen *Goienkaria*-k, prentsa idatziaren atalean; eta hurrengo urtean, Rikardo Arregi sarietan aipamen berezia egin zitzaion *CSI* telesailiko *William Petersen -Gill Grissom- aktorearen iragan oñatiarra* erreportajeagatik. Diseinuak ere jaso ditu sari bat baino gehiago; aipatzekoa da 2004ko European Newspaper

"ESKUALDEARI ZENTZUA EMATEN LAGUNDU DU GOIENA ALDIZKARIAK"

ENEKO AZKARATE
GOIENAKO EDUKIEN ZUZENDARIA

Award saria, ondoen diseinatu-tako tokiko aldizkaria izateagatik.

Euskararen Egunean, gaztelerez

Herritarren memorian ere geratu zen, seguru asko, 2015eko abenduaren 3koa. Egun hartan, "Goienak bere misioa itzulipurdi



Abenduaren 3 batez, eta gaztelerez

Tokikom sareko hainbat hedabidek zenbaki berezia kaleratu zuten 2015eko Euskararen Egunean, argitalpena gaztelerez eginez. Euskara hutsez argitaratzen diren zazpi toki komunikabidek kaleratu zuten zenbaki berezia. Aiurri, Alea, Barren, Hiruka, Urumeako Kronika, Txintxarri eta Goiena izan ziren haiek.

jarri zuen, gaztelera hutsean egindako zenbaki bat argitaratuta", azaldu du Iban Arantzabalek, Goienako zuzendari nagusiak. "Modu deigarri eta puntualean bada ere, efektu-kolpea eman nahi izan genuen. Erakutsi nahi izan genuen euskaraz egitea ez dela kapritxo hutsa, euskarazko komunikabideak estrategikoak direla euskalduntzean. Eta zer geratu zen argi? Ba, asko galduko genukeela kioskoan dauden erdal prentsaren moduko bat gehiago eginda", azpimarratu du.

Zu hemen zaudela, aurrera

Goiena aldizkariak milagarrena, beraz. Eta zurekin, zu ere hemen zaudela iritsi da honaino. Izan ere, ia 29.000 irakurle ditu astero Goienako beste hedabide guztien artean nagusi izaten jarraitzen duen paperekoak. Eta jakin arren, oro har, papereko edizioen irakurle kopurua beherantz doala, masiboa, doanekoa, tokikoa, gertukoa eta hurbila den eredu honek milagarrenetik aurrera luze egiteko badu oraindik osasuna.

"EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK ESTRATEGIKOAK DIRA EUSKALDUNTZEAN"

IBAN ARANTZABAL
ZUZENDARI NAGUSIA

Aldizkaria, mugarriz mugarri

- 2000 Abenduak 1.** Lehen zenbakia argitaratu zen.
- 2001 Urriak 19.** Zazpi herri astekari *Goienkaria* barruan, lau ediziotan.
- 2002 Urtarrilak 25.** Argia saria 2002. Prentsa idatziaren atalean.
- 2003 Ekainak 28.** Rikardo Arregi saria 2003, Aipamen Berezia. *William Petersen -CSI telesailiko Gil Grissom-, Telebistako izan baten iragan oñatiarra* erreportajeagatik.
- 2004 Martxoak 28.** European Newspaper Award saria, ondoen diseinatu-tako tokiko aldizkaria.
- 2003 Abenduak 22.** *Asteleheneko Goienkaria*-ren 0. zenbakia.
- 2004 Otsailak 16.** *Asteleheneko Goienkaria*-ren 1. zenbakia.
- 2006 Otsailak 3.** *Goienkaria*, edizio bakarrekoa. Herri aldizkarietako agur.
- 2010 Azaroak 12.** *Goienkaria*-ren eta *Asteleheneko Goienkaria*-ren ordezkari *Goiena* aldizkaria (442. zenbakia).
- 2014 Abenduak 22.** *Asteleheneko Goienkaria*-ren azken zenbakia (479. zenbakia).
- 2015 Urtarrilak 16.** *Puntua* aldizkariaren lehen zenbakia.
- 2016 Urriak 21.** GOIENA aldizkariaren azken diseinu -eta formatu- aldaketa.
- 2023 Uztailak 7.** 1.000. zenbakia.
- 2023 Uztailak 7.** *Puntua* aldizkariaren 374 zenbakia.

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
1988ko abenduan argitaratu zuen AEDk *Arrasate Press* astekariaren lehen zenbakia. Hura izan zen mugarri, euskarazko tokian tokiko informazioari dagokionez. Arrakasta izan zuen formula asmatu zuten: gertuko informazioa, doan, etxeetara, zabalkunde handiarekin..., eta euskaraz. Ekimen harekin, gaztelaniari esparru publikoan gailendu zitzaion euskara. Sekulako arrakasta izan zuen. "Sortu eta urtebetera 7.000 alera iritsi ginen", dio Joxe Arantzabalek, *Arrasate Press*-eko lehen zuzendariak.

Herriaren identitatea

Mondragoekoaren atzetik etorri ziren beste hamaika proiektu, Euskal Herrian barrera. Horietako batzuk, Debagoienean bertan. *Berrigara*, lehenbizi, 1990ean sortua eta hura ere astekaria, *Arrasate Press*-en eredu berarekin: herriko euskara elkarteak, Jardunek, Bergarako Udalarekin lagunduta. Nazio edota lurralde mailako prentsak betetzen ez zuen hutsunea eta eskaintzen ez zituen aukerak hartu zituela prentsa lokalak bere gain dio Miguel Angel Elkoroberezibarek, *Berrigara*-ko lehen zuzendariak. Eta gehitu du: "Gure herriaren identitatea eraikitzen eta euskarazko herri prentsa profesionalaren oinarria ezartzen lagundu zuen".

Herriaren identitatea

Arrasate eta Bergarakoen atzetik, *Aretxagazeta*, *Ze Barri?*, *Kontuola*, *Txirritola*, *Goibekokale*... maiztasun ezberdinekin. Herririk herri, hazirik hazi... Euskal Herri osoan zabaldu zen eredu. Gaur egun, Tokikom elkarteak batzen ditu euskarazko tokian tokiko hedabideak. 78, guztira; gehienak, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa iparraldean. Horietako asko paperean ere argitaratzen dira eta nagusi dira euren esparruan.

Debagoieneko aldizkari horiek guztiak 2006ko urtarrilera arte argitaratu ziren; 2001etik aurrera, eskualde osoan banatzen zen *Goienkaria*-rekin batera. Orain,

"OSO ALBISTE ONA, EDUKIAK DENEN ESKURA EGON DAITEZKEELAKO"

JOXE ARANTZABAL, 'ARRASATE PRESS'



Goiena.eus-en kontsultatzeko moduan dauden eskualdeko zazpi herri aldizkariaren lehen zenbakiak. GOIENA

Lehenengo berriak, klik batean

1988tik 2006ra arte argitaratu ziren Debagoieneko herri aldizkariak digitalizatu ditu Goiena Taldeak. 'Goiena.eus'-en kontsulta daitezke 2.758 zenbaki. Garai bateko herrietako berriak, klik batean eskura

Goiena aldizkariaren 1.000. zenbakia argitaratzen dela aitzakia hartuta, eta azken bi urteotako lanaren ostean, *Goiena.eus*-en jarri ditu Goienak kontsultatzeko moduan. "Herriarekin batera sortu eta landutakoa herriarendako bueltan. Horixe nahi izan dugu, eta, azkenean, lortu dugu, hein baten: komunitatean egiten dugu lan, eta komunitaterako. Debagoienean herri eta eskualde aldizkariok euskaraz idatzi dugun eduki guzti-guztia jarri nahi izan dugu herritarren esku". Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiaren berbak dira. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareak eta Arrasateko Udalak lagundu dute ekimena.

Herritar edo ikertzaile

Debagoieneko euskarazko tokiko aldizkariak digitalizatu izanaz zera dio Joxe Arantzabalek: "Oso albiste ona da, eduki horiek behin digitalizatuta denen eskura egon daitezkeelako, herritarrek izan ala ikertzaileak izan". Miguel Angel Elkoroberezibarek, berriz: "Gure historia hurbila erreparatzeko aukera bikaina da. Hortxe dago gure legatua". *Aretxagazeta*-ko lehen zuzendari Jokin Antxiaren ustez, ostera, berri pozgarria da: "Gaur egun nahiko gertu ikusten dugu hasiera, baina urte batzuk barru entziklopedia bat izango da bailarako historia ulertzeko". Eskoriatzako *Ze Barri?* aldizkariaren sorreran jardun zuen Andoni Bengoak dio ilusio handia egiten diola lehenengo kontuak berriro kontsultatu eta gogoratzeak, eta jendea animatu du kuxkuxeatzera: "Ziur ahaztutako kontu asko ikusiko dituela". Aldizkari berean, Bengoarekin batera, ibili zen Lore Agiriano. Zera dio: "Aldizkariak digitalizatuta, herriaren testigantza jasota geratu da horrela, eta hori altxor bat da". Eta Aramaio-ko *Txirritola*-ko Rosa Mondragonek, honako hauxe: "Seguru nago kuxkuxero batek baino gehiagok arakatuko dugula, nostalgiaz, garai bateko Aramaio eta protagonista izan ziren aramaioarren kontuen bila".

"GURE HISTORIA HURBILA ERREPASATZEKO AUKERA BIKAINA"

M. A. ELKOROBerezibar, 'BERRIGARA'

2.758 zenbaki

Eskualdeko zazpi herri aldizkariaren 2.758 zenbaki aurkituko ditu erabiltzaileak *Goiena.eus*-en, *Aldizkariak* atalean. *Goienkaria*-ren eta GOIENA aldizkariaren 1.000 zenbakiekin, *Asteleheneko Goienkaria*-ren 479 zenbakirekin eta *Puntua* aldizkariaren 373 zenbakirekin batera. GOIENA eta *Puntua* astero igotzen dira sarera.

Une zail asko

Atzera begira jarrita, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan jai eta loratu ziren aldizkariaren sorrerak gogoratu dituzte aldizkariok sortu eta abiatzen jardun zutenek. "Hasierak gorrak izan ziren: inork ez zuen esperientziarik, eta kostatu egin zitzaigun lanaren dinamika egonkorra lortzea. Ilusioak gidatzen gintuen denok, baina une gogor asko pasatu genuen", dio Joxe Arantzabalek. *Berrigara*-ko Miguel Angel Elkoroberezibarrek, berriz, sorrerako ilusioa azpimarratu du: "Dena zen posible, dena zegoen egiteko, gazte ginen eta lotsagabe... Kalitatezko aldizkaria egin nahi genuen, euskaraz egitea posible zela frogatuz. Auzolanean egin genuen, kolaboratzaile askoren laguntzarekin, herriaren babesa sentituz".

Une zailak izan ziren, hasiera guztiak bezala, Jokin Antxia *Aretxagazeta*-ko zuzendariak dioten moduan: "Tentsio handiko egunak izaten ziren aldizkaria inprimategira eraman behar zenean". Eta denetik egin behar izaten zutela dio Andoni Bengoa *Ze Barri?*-koak: "Denetik egiten genuenez, arlo asko ikasi behar izan genituen: artikulua idazten, maketazioak egiten, publikitatea kudeatzen...". Eta alor horretan kolaboratzaile sarearen lana "ezinbestekoa" izan zela gogoratzen du aldizkari bereko Lore Agirianok.

Kazetaritza, lanbide

Joxe Arantzabalek dio euskarazko prentsa lokala sortzeak, alegia, aurretik ez zegoen esparru bat irekitzeak, ekarri

"ENTZIKLOPEDIA BAT IZANGO DA GURE HISTORIA EZAGUTZEKO"

JOKIN ANTIXIA, 'ARETXAGAZETA'

2.758

ZENBAKI

Goiena.eus-en ikusgai daude eskualdeko aldizkariaren ia 3.000 zenbaki digitalizatuta

zuela beste ondorio bat: "Bertako kazetariaren lana profesionalizatzea, euskarazko publikitatearen esparrua bizkortzea eta jendea euskaraz irakurtzen ohitzea, besteak beste". Ohitura hori sortzen lagundu zuen, hein batean, gertuko istorioak kontatzeak eta gertuko pertsona ezagunen berri emateak. Horixe nabarmentzen du Miguel Angel Elkoroberezibarrek: "Herria eta herritarrek bihurtu ziren aldizkariaren protagonista, eta horrek interesa piztu zuen berehala". Alde horretatik, go-

35

URTE

Arrasate Press 1988. urtean sortu zen; hura izan zen gainerakoendako eredu

goan du nola 10. zenbakian "sonatua" izan zen elkarrizketa bat argitaratu zuten, kontu global baten gainekoa -Pertsiar golkoko gerra-, baina maila lokalera ekarrita; Txomin Pineda herritarra, soldadutza egiten ari zena, Ekialde hurbilean harrapatu zuen: "Beste dimentsio bat hartu zuen aste-kariak eta orduantxe konturatu ginen haren potentzialaz. Golkoko gerra komunikabide guztiek jarraitzen zuten eta guk ere bageneukan zer esana", dio Elkoroberezibarrek.



Arrasate Press-eko 1991eko lan taldea, 100. zenbakiko argazkian. A.P.

Baliabideetan ere aitzindari

Euskarazko tokiko prentsan lehena izateaz gain, papereko agerkariak egiteko baliabideei dagokienez ere, aitzindari izan zen *Arrasate Press*. Bidea zabaldu zuen egiteko moduan ere. Joxe Arantzabal *Arrasate Press*-eko lehen zuzendariak ondo gogoan dauka: "Hasieratik auto edizioa aukeratu genuen lan egiteko, orduan hastapenetan zegoen teknologia bat, baina aukera ematen ziguna geuk kontrolatzeko produktua hasieratik kaleratu arte. Hala ere, ez pentsa, bizpahiru Macintosh ordenagailurekin hasi ginen, pantaila txiki-txikiak; laser inprimagailu bat eta eskaner bat. Nahikoa lan teknologia bera menderatu eta ostiralero astekaria harpidedunen etxeetara iristarazteko".

"HERRIAREN TESTIGANTZA JASOTA GERATU DA, ETA HORI ALTXOR BAT DA"

LORE AGIRIANO, 'ZE BARRI?'

"KUXKUXERO BATEK BAINO GEHIAGOK ARAKATUKO DUGU, NOSTALGIAZ"

ROSA MONDRAGON, 'TXIRRITOLA'

Digitala... eta papera

Papereko euskarriaren eragina ez da duela 20 urte zena eta gaur egungo testuingurua Debagoieneko herri aldizkariak sortu zireneko garaikoaren ezberdina da. Dena den, sorreran ibili ziren gehienek badute oraindik papereko hedabideak irakurtzeko ohitura. "Beste patxada batekin irakurtzeko aukera" ematen dutela dio Lore Agirianok; Andoni Bengoa herrikideak zera gehitu du: "*Berrria* eta *Elhuyar* aldizkariak bazkide ere bagara eta paperean ere irakurtzen jarraitzen dut, nahiz eta digitalean ere asko irakurtzen dudana gaur egun". Jokin Antxiak honako hauxe dio: "Gure adinekook hori ikasi genuen eta orain ere gustuko dugu banku baten bueltan edo kafe batekin paperezko agerkariak irakurtzea". Miguel Angel Elkoroberezibarrek ere "egunero irakurtzen" ditu. Joxe Arantzabalek eta Antzuolako *Kontuola* aldizkariaren sorreran aritu zen Jone Larrañagak, berriz, digitalera jotzen dute: "Bakarrik begiratzen ditut premia dudanean informazioaren bat ateratzeko", dio Arantzabalek; eta papera "gero eta gutxiago" erabiltzen duela Larrañagak.

1000. zenbakia

GOIENA aldizkariak 1000. zenbakia argitaratu du gaur. 1988tik aurrera sortu ziren herri aldizkariaren segida da. 2001ean, guztiak asteroko maiztasunez integratu ziren *Goiena* aldizkariaren orduan, *Goienkaria*-ren. Berri pozgarria dela diote aldizkariotako sortzaileek. "Erregalu handi bat da. Gaur egun ez genuke ulertuko bailarako informazioa eta euskararen aurrerapena bertako aldizkaririk gabe", dio Antxiak. Elkoroberezibarrek, berriz, zera: "Oinarrizko erreferentzia bilakatu da. Gure herritako azkenaldiko historiaren erregistroa, gertaera xume bezain entzutetsuak batzen dituen". Eta Jone Larrañagak: "Euskaraz irakurtzeko aukera bat da, askorentzat bakarra, eta, alde horretatik, betetzen duen zeregin funtsezkoa da".

"ALDIZKARIOK EUSKARAZKO EDUKIA JARRI DUGU HERRITARREN ESKU"

IBAN ARANTZABAL, GOIENA

Aldizkariak

Arrasate Press

- **Herria:** Arrasate.
- **Sorrera:** 1988-12-02.
- **Argitaratzailea:** Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarte; gerora, Arrasate Komunikabideak (Arko).
- **Maiztasuna:** Asteakaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 745.

Berrigara

- **Herria:** Bergara.
- **Sorrera:** 1990-12-14.
- **Argitaratzailea:** Jardun euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Asteakaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 656

Aretxagazeta

- **Herria:** Aretxabaleta.
- **Sorrera:** 1992-03-12.
- **Argitaratzailea:** Loramendi euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Hamabostekaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 410.

Ze Barri?

- **Herria:** Eskoriatza.
- **Sorrera:** 1996-06-27.
- **Argitaratzailea:** Axtroki euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Hilabetekaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 241.

Kontuola

- **Herria:** Antzuola.
- **Sorrera:** 1997-09-12.
- **Argitaratzailea:** Idolaz euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Hamabostekaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 273.

Txirritola

- **Herria:** Aramaio.
- **Sorrera:** 2000ko maiatza.
- **Argitaratzailea:** Txirritola euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Hilabetekaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 179.

Goibekokale

- **Herria:** Elgeta.
- **Sorrera:** 1995ko apirila.
- **Argitaratzailea:** Goibekokale euskara elkarte.
- **Maiztasuna:** Hilabetekaria.
- **Amaiera:** 2006-01-27.
- **Zenbakiak:** 254.

GOIENA aldizkarian protagonista izan zirenak, hainbat urtetara

GOIENA aldizkarian protagonista izan ziren hainbat lagunekin izan da GOIENA, ordutik hainbat urte igaro direnean. Egoerak aldatu diren edo ez ikusteko modu ona izan da

Hasier Larrea ARRASATE

1.000 zenbaki argitaratuta, artxibo itzela sortu du *Goienkaria*-k lehenengo eta GOIENA aldizkariak ondoren. Artxibo itzela, Debagoieneko urte hauek guztietako gertakariak eta herritarrak direlarik protagonista nagusi. Eta zer litzateke aldizkari bat hizketakide edo mintzalagun barik? Izan ere, hedabideek haiengandik edaten dute, izan instituzio zein eragile antolatuetako ordezkari, izan herritar. Arrazoi batengatik edo bestearengatik

une baten albiste edo informazio iturri izateko baldintzak betetzen dituzten horiengandik. Debagoieneko barik, nekez egingo lukeelako GOIENA aldizkariak 1.000 zenbakiko ibilbidea.

Ordukoak, gaur

Hala, urte hauek guztietan aldizkariaren bidaia kide izan diren bost pertsonarekin izan da Goiena, haiek protagonista izan zirenetik hainbat urte igaro direnean. Ainhoa Garai aktore arrasatearra kontrazaleko

protagonista izan zen *Goenkale* telesailen eman zituen urteengatik; Ixotz Louyest, transexualitate egoeran dagoen bergararra, LGTBIQ+ egunaren bueltan atera zen *Goienkaria*-ko azalean; Maider Unda kirolari olinpikoa, Londresko jokoen ondoren izan zen azaleko protagonista; Asier Agirre Aramaioko alkate ohia herrian AHTaren inguruko galdeketa egiteagatik inputatu zutenean agertu zen azalean eta urteurrenean Eusko Jaur-laritzaren Ukan saria jasotzeko ardura izan zuelako.



382. alearen azala.



Ixotz Louyest, gaur egun.

"Gizarteak oraindik ez du onartu transexualitatea"

IXOTZ LOUYEST OSTALARIA

2009ko LGTBIQ+ egunaren bueltan ekarri zuten *Goienkaria*-k Ixotz Louyest eta haren neskalagunaren kasua argitara. Garai hartan komunikabide batzuk gaia ikusarazten ekinak zirela gogoan du Louyestek, baina hamalau urte igaro eta gero transenganako onarpen maila gutxi aldatu dela uste du: "Oso polita da lagun trans bat daukazula esanda ahoa betetzea, baina gertu-gertu tokatzen denean bestelakoa da kontua. Feminismoarekin gertatzen dena antzerakoa da: orain emakumeak hobeto bizi direla esaten da, baina datuek ez diote hori. Zenbat pertsonen jasaten dute txarra; zenbatek egiten dute buruaz beste? Ez dakigu zehazki, askok ez dutelako salatzen, badakitelako Estatua ez dela lagun ona".

Genero nortasuna, hautu kulturalarekin baino, naturarekin lotzen du: "Guk ez dugu erabakitzen mutila edo neska izatea. DNAn dagoen zerbait da, gaixotasun batekin jaio eta 40 urterekin deskubritzen duzunean bezala", adierazi du.

Aurrera edo atzera?

Aurten onartu da Espainian Trans Legea, eta sakon aztertu


ez duen arren, zenbait gogoeta partekatu ditu: "Kosta zaie onartzea. Kanpaina politikoetan eta curriculumean oso polita geratzen da hauen alde lan egin duzula aipatzea, baina gero, gaiaren erabilpen politikoa egiten dute. Bai, beharrezkoa zen lege bat sortzea, urrats bat da ate batzuk irekitzeko, eta poztan naiz azkenean onartu izanaz. Beterano eta gazteak asko mugitu dira eskubideen alde, LGTBIQ kolektibokoak direnak, eta laguntza ematen dutenak".

Kontrara, "inboluzioa" deritzo Valentzian kolektiboaren bandera erakustea debekatzearen azken epaiari: "Guganako gorrotoak hor jarraitzen du". 2009an Itoitz deitzen zela jartzen zuen haren NANan, dokumentuetan trantsizioa egiten zebilelako eta izen hori bi sexueta onartzen zelako; orain, berriz, Izotz jartzen du, ez diotelako benetako izena jartzen uzten: "Izan ere, ni Ixotz bezala ezagutzen naute gertukoek, *ixotu*, *piztu* esan nahi du; *berpizkunde*, *alegia*".

"OSO POLITA DA LAGUN TRANS BAT DAUKAZULA ESATEA, BAINA ALBOAN TOKATZEN ZAIZUNEAN JADA EZ DA HAIN POLITA EGITEN"



48. alearen kontrazala.



Ainhoa Garai, gaur egun.

"Goenkale"-ko aktore izatetik irakasle izatera pasa naiz"

AINHOA GARAI AKTOREA ETA IRAKASLEA

Zarautzen bizi den arrasatearrak bost denboraldi egin zituen *Goenkale*-ko Maialen interpretatzen, 2001etik 2005era. *Hasiberriak* sailerako castingean parte hartu zuen lehenengo, eta horren ostean

jaso zuen *Goenkale*-n proba egiteko gonbidapena.

Goienkaria-k 18 urte zituela elkarrizketatu zuen, 2002an. Orduan anonimatu aurreratu bat faltan sumatzen zuela aipatu zuen. Gaur egun oso bestelako bizimodua darama, nahiz eta

oraindik jendeak kalean ezagutzen duela aitortu: "Telebistak antzerkiaren ateak zabaldu zizkidan, eta zenbait obra egin nituen Txalo konpainiarekin. 2017an haurdun geratu nintzen, eta orain 5 eta 3 urteko haurren ama naiz, eta, ofizios, Getariako eskolako irakaslea, irakaskuntza ikasi bainuen. Lasaiago bizi naiz orain, baina oso oroitzen onak gordetzen ditut; *Goenkale*-n egindako lagun askorekin harremana mantentzen dut".

Antzerkia, faltan

Aktore lanak guztiz baztertu ote dituen galdetuta, erantzun du "gustura" itzuliko litzatekeela oholta gainera, aukera izanez gero. Euskarazko ikus entzunezko fikzioen egoera kezka bizi duela ere adierazi du: "Telebistan une honetan ez dago eskaintza handirik; produkzio gehiago egin beharko lirakeke, kontuan hartuta profesional asko eta onak ditugula".

"Euskara gero eta gehiago erabiltzeko lanak hor dirau"

ANDER ETXEBERRIA AED-KO LEHENDAKARIORDE OHIA ETA BAZKIDEA

2008an, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 25 urte bete zituenean, Eusko Jaurlaritzaren Ukan sariarekin izan zen errekonozitua, euskararen erabilera sustatzeko egindako lanarengatik. Ander Etxeberria zen euskara elkarteko lehendakariordea: "Lehendakariak ezin izan zuenez saria jaso, neuk jaso nuen haren partez". Ekitaldian hitza hartu zuenean, paralelismo bat azaldu zuen: "AED bi tokitan ikusten nuen: euskara elkartaren sarreran, eta garai hartan lan egiten nuen Ikerlan kooperatibako makina batean, *An External Defibrillator* izenekoan. Aipatu nuen AED sortu zenean astindu bat izan zela Arrasaterentzat, euskararen egoera hobetzeko".

Etxeberriaren ustez, elkartearen erreferentzia zen orduan, eta erreferentzia da orain: "Lan munduan, aisialdian, gazteekin, emakumeekin... euskararen aldeko jarrerak sustatzen jarraitzen du, ez bakarrik herri barruan".



356. aleko azala.



Ander Etxeberria, gaur egun.

Kanpokoei ezagutarazten Gaur egun, Mondragon Korporazioko Hedapen Kooperatiboko arduraduna da: "Kanpokoei azaltzen diet zer den gure esperientzia kooperatiboa, eta horrekin batera, euskararen alde egiten dugun lana. Euskal enpresen %1ak dauka euskara plan bat, Mondragoneko kooperatiben kasuan, %60ak, bazkideek hala erabakita. Herriarekiko inplikazioa dugula azaltzean, hizkuntza hor sartzen dut".



520. aleko azala.



Maider Unda, gaur egun.

"Eliteko kirolari izan arren, lasaiago bizi nintzen lehen"

MAIDER UNDA ELITEKO BORROKALARI OHIA ETA GAZTAGILEA

Borroka librean punta-puntako atleta izan da Aramaio Olaeta auzoan bizi den Maider Unda. 2012ko Londresko Joko Olinpikoetan brontzezko domina irabazteagatik egin zen ezagun. "Beti esan izan dut kirolari batek Olinpiar Jokoetan lortzen duela oihartzun handiena", azaldu du Undak.

Galga hori pasa ostekoak gozoak izaten dira eliteko zenbait kirolarientzat; gaziak, besteentzat. Halaxe bizi izan zituen Undak hurrengo hilabeteak: "Londresera joan aurretik ere argi neukan ama izan nahi nuela, baina domina irabazteak burua behar baino gehiago nahasi zidan, eta, horren ondorioz, urtebete itxaron nuen. Ama izan ostean elitean lehiazera itzuli nintzen, baina jada ez neukan lehengo maila. Saiatu nintzen Riorako sailkatzen, ez nuen lortu eta hor bukatu zen nire kirol ibilbidea". Borroka librean indar fisikoarekin lotzen da, baina Undarentzat burua lantzea ere garrantzitsua da: "Gaur egun gehiago hitz egiten da horri buruz, baina guk dezente lantzen genuen, entrenatzaileak argi baitzeukan burua indargune handia dela".

Lanez gainezka

11 urte pasa dira balentria egin zuenetik, eta orain, perspektiba handiagoz ikusten du dena: "Orain ikusten dut sakrifizio eta esfortzu handiak egiten nituela, baina orduan ez nuen hori pentsatzen, nire helburua neukan onena ematea eta domina olinpikoa lortzea zen. Amets bat zen niretzat, ez nuen pentsatzen egia bihurtuko zenik".

"GAZTETXOAK ENTRENATZEN NITUEN OTXANDION PANDEMIA AURRETIK, BAINA DAGOENEO EZ, NAHIKO LAN BAITAUKAT BESTELA ERE"

Gurasoek emandako pausoak jarraituz, gaztagilea da gaur egun. Bi alaba dauzka, eta beraiekin ematen du denbora asko: "Egia esan, elitean entrenatzen nuenean lasaiago bizi nintzen, egunerokotasuna antolatuta bainean, eta nire bizitzan ez zegoen besteentzako lekurik".

Borroka libretik ez da guztiz aldendu, halere. Mugikorretik edo telebistatik jarraitzeko zaletasuna mantentzen du, eta pandemia aurretik gaztetxoak entrenatzen zituen Otxandion: "Baina etenaldia izan genuen, eta ez dugu eskolak berreskuraterik izan; nahikoa lan daukat bestela ere", adierazi du Undak.



417. aleko azala.



Asier Agirre.

"Harro nago aramaioarrek aurre egin ziotelako AHTari"

ASIER AGIRRE ARAMAIOKO MENDI ETA INGURUMEN ZINEGOTZIA

Aramaioako alkatea zen Asier Agirre 2007an AHTren proiektuari buruzko herri galdeketa gauzatu zenean. Prebarikazioa eta desobediencia egotzita epaitu zuten Gasteizen 2010ean, eta hurrengo urtean

irten zen sententzia: absuzioa. Hurrengo hiru agintaldietan udal arduetatik deslotuta egon ostean, Aramaioko Udaleria itzuli da lanera, oraingoan, zinegotzi moduan.

Agirrek nabarmendu duenez, Aramaion egindako galdeketa

herri gehiagotan egingo balitz, "momentu honetan beste egoera politiko bat biziko genuke, toki askotan nagusituko zelako AHTren aurkako jarrera". Aramaion %98k bozkatu zuen kontra.

"Lehenago lepotik burua"

Gaur egun beste makroproiektu bat dute ate joka: Itsaraz parke eolikoa. Antzekotasunak ikusten ditu Agirrek: "AHTren linea markatu zutenean, ez zituzten kontuan hartu herriko beharrak, eta berdina gertatzen da orain eolikoaren gaiarekin. Energia berriztagarri sistema hori beharrezkoa dela saltzen dute. Nire ustez ez da proiektu egokia, ez delako hemengo egin eta hemengo inor kontuan hartu, ez dakigulako energia hori nora eta zertarako joango den. Kaltea besterik ez digu ekarriko". Gaineratu du energia-proiektuak sortzearen aldekoa dela, "bertako toponimia, ingurunea, gizartea eta baliabideak kontuan hartzen badira".

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Hainbat euskarritan kontsumitu daitezke albisteak, baina zein da papereko prentsa idatziaren eta euskarazko doaneko papereko masiboen etorkizuna digitalizazioaren eta hedabidearen krisiaren aroan?

MIKEL LIZARRALDE
'BERRIA'-KO KAZETARIA

"Gertukoari buruzko informazioak bereziki ukitzen du irakurlea"

1. Komunikabideen pisua aldatu egin da; ez bakarrik prentsa idatziarena. Sare sozialen, hedabide digitalen... bidez heltzen zaio informazioa hartzaileari. Teknologia ahalbide du edonork noiznahi informazioa zabaltzea.
2. Munduaren gaineko begirada aurkezten du, egunerokoari begiratzeko modu propioa, eta agerkari bakoitzak berea dauka. Euskarazko prentsak komunitatea osatzeko izaera dauka.
3. Esango nuke baietz. Gertuko inguruneari buruzko informazioak bereziki ukitzen du irakurlea. Gertutasunak garrantzia du.
4. Digitalizazioak eta informazioa azkar eman beharrak aldatu egin du lan martxa. Inportantea da komunitatea izatea komunikabidearen inguruan. *Berria*-rentzat ezinbestekoa da munduaren berri izateko euskarazko egunkaria irakurtzeko gogoia duen komunitatea izatea.


JOXE ROJAS
TOKIKOMEKO IKT ETA
KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA

"Titular laburrekin informatzea, gaur egun, erosoagoa da"

1. Zabalkundea eta prestigioa galdu dituzte. Euskarri eta formatu berriek *zaharkituta* utzi dute papera. Pixkanaka, IKTek hartu duten garapenek berehalakotasunaren, irudiaren eta zarataren kulturaren murgildu gaituzte gazte eta ez hain gazteok.
2. Lehengo funtzioa dute: informazioa patxadaz, landuta eta hainbat ikuspuntutakoa eskaintzea. Horrek ere prestigioa galdu du titular labor eta eskandalosoen sasoiaren. Guztiondako erosoagoa da bi lerroko titulartxoarekin informatzea. Nahiago ditugu geure iritziekin bat datozen baiez-

Papereko argitalpenen orainaz eta etorkizunaz, arloko profesionalekin

Teknologia berriak gailendu diren aroan, euskarazko doaneko papereko masiboen eta papereko argitalpenen egoeraz galdetu diegu komunikazioko lau profesionalei



1. Papereko agerkeriek sasoi baten izan zuten zabalkundea, influentzia, garrantzia... galdu egin dute? Zergatik edo zeren ondorioz?
2. Dena den, argitaratzen dira oraindik eta irakurleak badituzte –sasoi baten baino gutxiago bada ere–. Ze funtzio betetzen dute?
3. Euskarazko doako tokian tokiko papereko argitalpen masiboek badute oraindik garrantzia, influentzia... komunikazioaren iraultza eta hedabide tradizionalen krisialdi sasoi honetan?
4. Ze etorkizun ikusten diete egunkariei... eta tokian tokiko euskarazko doaneko papereko agerkeriei? Aldizkariei?

tapenak, ikuspegi ezberdinak barneratzeko lanak hartu baino.

3. Etxe ondoan gertatzen dena denoi interesatzen zaigu. Euskarazko toki komunikabideen kasuan, publikoak "beretzat" hartzen ditu komunikabideok. Eragin dezaketela dakite gertakizunetan eta komunikabidean.

4. Paperaren prezioak goraka jarraitzen badu, produktu nagusia digitala izango da; papera, berriz, aparte ordaintzen dena komunikazio proiektuarekiko atxikimendu gisa edota *premium* esperientzia izateko.

MARIJO DEOGRACIAS
EITB-KO KAZETARIA

"Formatua egokitzeaz gain, garrantzi handiagoa du edukiak"

1. Aspaldi utzi zion euskarri bakarra izateari. Kontsumo modua aldatu eta azkartu eta paperari eusten diotenak jakitun dira. Formatua egokitu eta eguneratzeaz aparte, garrantzi handiagoa eman diote edukiari. Badauka oraindik bere lekua.
2. Osagarria da; sakontasun handiagoko albisteak eta erre-

portaje bereziak lantzen dira. Tokikoek egon behar dute, baina beste helburu batzuk dituzte: hizkuntza, komunitatea sortzea... Digitalaren eskutik helduta doaz.

3. Indargunea hizkuntza eta gertuko komunitatea indartzea da; baita bertatik bertako informazioarekin informatzea. Doan jartzeak ez du esan nahi kalitate gutxiago duenik; eskura edukitzeko modua da. Uste dut tokikoek bertute handiena dela baita eskal hitzunen ez direnen artean komunitatea sortzea; hori txalotzekoa da.

4. Erronkarik handiena bizirautea da: nola egin bideragarri ekonomikoki? Ahalik eta erakusleho gehienetan egon behar duzu. Euskarak behar ditu tokikoak, tokikoak behar ditu euskarak. Tokikoek asmatu dute irakurleei nahi zutena ematen.

GOIO ARANA
HUHEZIKO KOMUNIKAZIO
ARLOKO ZUZENDARIA

"Etorkizunera begira, tokikoak hobeto eutsiko dio"

1. Euskarri berriak sortu direlako egin du behera. Kanal berriak sortzean, birkokatu egin behar dute, eta paperekoari hori gertatu zaio. Gehienek tirada txikitu dute eta zenbait desagertu egin dira. Kasu gehienetan, gastu handiak dauzkate paperean argitaratzeko; zabalkundean gatzatzen delako dirua, batez ere.

2. Lehen eta orain antzerako funtzioa dute. Birkokatzean bide ezberdinak daude, baina funtzioa antzerakoa da. Batzuei gustatzen zaie informazioa formatu horretan jasotzea, eta, bideragarria denean, aurrera egin da. Denon bistan dago ez dela inprimatutako euskarrien urrezko aroa.

3. Badute tokia, mantendu egiten direlako. Tirada dute leku jakinetan eta funtzionatzen dute. Interneten kontsumoa igotzen doa eta albisteak webgunetan, sare sozialetan eta *app*-etan kontsumitzen dira. Papera batzuek igarriko dute faltan, eta beste batzuk ohitu dira paper barik eta hala jarraituko dute.

4. Ez du gora egingo, baina jendeak oraindik eskatzen du. Uste dut tokikoak hobeto eutsiko diola; batez ere, zabalkunde gastuengatik, espazio txikian ale asko banatzen dira eta.



Mikel Lizarralde. M.I.



Joxe Rojas. J.R.



Marijo DeoGracias. M.D.



Goio Arana. M.U.

GOIENA aldizkariak Debagoieneko mugak gainditzen ditu

Debagoienetik kanpo aldizkaria jasotzen duten lau lagunekin egon da GOIENA

"Egunerokotasunean enteratzen ez naizen horren berri ematen dit"

NAROA ELORTZA ITSASONDO (GIPUZKOA)

Duela 8-9 urtetik *Puntua* aldizkari kolaboratzailea da arrasatearra, eta Itsasondora joan zenetik jasotzen du GOIENA aldizkaria etxean: "Goierriera etorri nintzenez jarraitu nahi nuen informatiboki berriak irakurtzen, eta jarraitu dut. Nolabaiteko harremana da Debagoienarekin". Haren ustez, Goienako bazkide izan eta etxean aldizkari hori jasotzea garrantzitsua da, herrigintza eta

euskalgintza ikuspegitik. Arrasateko orriak irakurri ohi ditu, "etxetik gertuago" sentitzen dela dio.

Albisteak, patrikan
Goienaren Telegram kanaletik ere jasotzen ditu ibarreko berriak. Noizbehinka, ataria bisitatzen du: "*Goiena.eus*-en albiste jakinen jarraipena egiten dut; adibidez, hauteskundeena".



Elortza, Itsasondon, GOIENA irakurtzen.

"Argitaratu eta astebetera jasotzen dut aldizkaria, baina ez zait axola"

UXUE LAZKANO LAKUNTZA (NAFARROA)



Uxue Lazkano Lakuntzan GOIENA aldizkariaren 998. zenbakia eskutan duela.

Ez dauka papereko egunkariak irakurtzeko ohiturarik Lakuntzan bizi den bergararrak, baina GOIENA aldizkaria eta *Puntua* dira paperean irakurtzen dituen agerkari bakarrenetakoak. 2005ean joan zen hara, eta jaioterriarekin konektatua egoteko modua du aldizkari hori irakurtzea: "Gutxitan joaten naiz hara, eta zer gertatzen den jakiteko balio dit. Sustraiak ez ahazteko. Bergarako orrietara jotzen dut lehendabizi; ondoren, beste herrietara. *Berri-zakua* ere gustuko dut".

Paperean, bai edo bai
Ibarreko albisteak paperean irakurtzea nahiago du webgunean egitea baino. "Paperean jasotzen dudanean, hartu eta begiratu egiten dut. Soilik online begiratu beharko banu, ziurrenik, ez nuke begiratu. Bizi garen erritmo honetan, jarri, gogoratu, begiratu...", dio. Aitortu du ez duela planteatu ere egin paperekoaren bazkidetza bertan behera uztea: "Abiadura handietan bizi gara eta astebete geroago jasotzen dut, baina ez zait axola".



Jon Basurko, aldizkariaren 999. zenbakia irakurtzen, Aian.

"Herriko berri izaten jarraitzeko jasotzen dut GOIENA aldizkaria"

JON BASURKO AIA (GIPUZKOA)

Arrasatearrak ez du gogoan noiztik jasotzen duen GOIENA aldizkaria etxean; dioenez, "bere garaian, aspaldi", egin zen bazkide, eta herriko berriak izaten jarraitzeko jasotzen du: "Egia esanda, gainbegiratu egiten diet orri guztiei; ondoren, puntu bat gehiago interesatzen bazait, ba, hori irakurtzen dut".

Arrasateko saskibalo taldeko zuzendaritzan ibilia da Basurko,

eta, gehienbat, kirol-kontuak irakurtzen ditu. "Eskatu nahi nuke Arrasateko saskibaloiko albiste gehiago argitaratzea", dio, barrez.

Paperari bai, digitalari bai
Basurkok eutsi egin dio papereko egunkariak erosteko ohiturari. Hala ere, teknologia berrien aldeko apustua ere egin du: Goienak bidaltzen dituen *newsletter*-ak jasotzen ditu posta elektronikoz.



Beitia, Gasteizko Jose Miguel Fernandez de Pinedo parkean, 999. zenbakiarekin.

"Jaioterriarekin lotura izaten jarraitzeko bidea da GOIENA aldizkaria"

ELISABETH BEITIA GASTEIZ (ARABA)

Gasteizen bizi da aretxabaletarra duela urte batzuetatik, eta, adierazi duenez, sortu zenetik jasotzen du GOIENA aldizkaria etxean, bailarako kontuen berri izateko. Batik bat, Aretxabaletako eta Arrasateko orriak irakurtzen ditu.

"Debagoieneko berri beste modu batzuetara ere badaukadan arren, eskertzen dut etxean

jasotzea. Jaioterriarekin loturan jarraitzeko bidea da, lagunekin elkartzeko naizenerako... Informazio ona eskaintzen du", dio.

Kontsumo aldaketa
Tarteka erosi ohi du idatzizko prentsa, baina informazioa online askoz gehiago kontsumitzen du. Ibarreko informazioaren berri badu www.goiena.eus bidez.



Mendezak eratutako Gipuzkoako Foru Governu berria. GFA

Zazpi emakume, Foru Governu berriko kide

Bigarren bozketa eginda eskuratu ditu Eider Mendozak diputatu nagusiaren makila eta domina, eta, boto bateko aldeagatik irabazita, Gipuzkoako Foru Governu berria eratu du; kideen artean dago Arrasateko alkate ohia, Maria Ubarretxena

Miren Arana Pagaldai ARRASATE
Maiatzaren 28an egindako hauteskundeak emaitzek Gipuzkoako Batzar Nagusi berriaren eraketa ekarri zuten. Egun, 50 diputatu etatik sei dira debagoiendarrak: hiru EH Bildutik –Aitor Irure aretxabaletarra, Iker Intza bergararra eta Eneritz Otamendi eskoriatzarra;–, bi EAJ alderditik –Aintzane Oiarbide bergararra eta Ander Garay arrasatearra– eta bat PSE-EEtik –Rafaela Romero arrasatearra–.

Aurreko legealditik bakarrak errepikatu du; hain zuzen, orain arte Bide Azpiegituretako diputatu izan den EAJko Aintzane Oiarbidek; izan ere, legealdi honetan, Arrasateko alkate ohi Maria Ubarretxenak hartuko du haren kargua.

Bozketan berdinketa

Eguenean, ekainak 29, hauteskundeak egin eta hilabetera, izendatu zuten Eider Mendozak Gipuzkoako diputatu nagusi –kargu hori duen lehenengo

emakumea–, EAJren hamazazpi batzarkideen, PSE-EEren zazpi eta PPko batzarkide baten aldeko botoekin. Bi bozketa egin ziren diputatu nagusia aukeratzeko; izan ere, lehenengo bozketan berdinketa egon zen: 24na boto eskuratu zituzten Eider Mendozak hautagaiak –EAJren eta PSE-EEren botoak– eta Maddalen Iriartek –EH

Bilduren eta Elkarrekin Podemoseko talde mistoarenak–. PPk hiru boto zuri eman zituen.

Bigarren bozketa eginez, EAJren eta PSE-EEren hautagaiaren alde 25 boto egon ziren: bi alderdien babes eta PPren batzarkide batena eskuratuz, boto bateko aldearekin irabazi zuten botazioa: EH Bilduko Maddalen Iriartek 24 boto es-



Foru diputatuak, ahaldu nagusiarekin, kargua hartu ostean. GFA

kuratu zituen eta PPko bik zuri botatu zuten.

Batzarkideen txalo artean jaso zituen Eider Mendozak Batzar Nagusietako lehendakari Xabier Ezeizabarrenaren eskutik diputatu nagusiari dagozkion aginte makila eta domina; Mendozak, hunkituta, adierazi zuen "gipuzkoarron borondatearen ordezkari izatea benetako ohorea eta ardura" dela.

Iriartek, aldiz, "hiruko akordio bat" zela esan zuen, eta "dohainik ezer" ez dela ateratzen salatu zuen; herritarrek "eskatu dutena" bete ez zela ere nabarmendu zuen.

Foru Governu berria

Behin bozketa eginda, hilaren 4an hartu zuten kargua Mendozak eratutako Gipuzkoako Foru Governu berriko kideek. Inoiz baino emakume gehiago izango ditu Mendozaren Foru Governuak. Harekin batera beste bederatzi kide izango dira –hain zuzen ere, zazpi dira emakumeak–: EAJko zazpi –tardean, Arrasateko alkate ohi Maria Ubarretxena– eta PSE-EEko hiru.

Maria Ubarretxena izendatu dute Bide Azpiegituretako diputatu, eta haren alderdikide Aintzane Oiarbideren kargua hartuko du; Rafaela Romero arrasatearra ere diputatu izateari utziko dio legealdi honetan.

"Ez dago gauza nobleagorik, lan nobleagorik, herritarren alde egitea baino. Beraz, benetan esker ona gurekin batera talde hau osatu nahi izan duzelako eta konpromisoa hartu nahi izan duzelako; garai hauetan, bereziki. Kargu hau hartzen duen lehenengo emakumea da". Halaxe eman zizkien eskerrak Eider Mendozak hilaren 4an Donostian egindako ekitaldian kargua hartu zutenei.

Lehenengo erabakiak

Kargua hartzeko ekitaldiaren ostean, legegintzaldiko lehen Diputatuen Kontseilua egin zuten; eta Aldundiaren oinarrizko egiturari buruzko dekretua onartzea izan zen hartu zuten lehenengo erabakietako bat.

MARIA UBARRETXENA IZANGO DA LEGEALDI HONETAN BIDE AZPIEGITURETAKO DIPUTATU

Larramendin prebarikazio zantzuak ikusi ditu fiskaltzak

Amaia Barredo Arabako Ingurumen diputatua ari dira ikertzen, ustezko irregulartasunengatik

Amaia Ramirez de Okariz BERGARA
Ecologistas en Accion taldeak ohar bidez adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordea izan da Barredo, eta karguan zela Bergarako hondakin instalazioen kudeaketan ustezko prebarikazio administratiboaren delitu bat egin izanaren zantzuak aurkitu ditu fiskaltzak; horrek kargu publikoa betetzeko debekua dakar.

Ekologistek 2022ko apirillean jarri zuten salaketa paper-fabriketako hondakinak balorizatzeke plan bat sortzeko emandako baimenarengatik, Larramendiko Arnasa plataformarekin. Eskaeraren arabera, "industriarako karga mineralak ekologikoki ekoizteko" planta bat sortzeko baimena eman zen.

Ezberdintasunak agerian

Valogreene Paper BC, SL enpresak Ingurumeneko Baimen Bateria emateko eskaria egin zion Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari 2021eko abuztuan, "kareharrizko materiala ekoizteko" jarduera garatzeko, Bergaran. Hasierako proiektu bat aurkeztu zuten, baina salaketan jasotakoaren arabera, jendaurrean jarritako dokumentua bestelakoa zen. "2021eko ekaineko eskaeran deklaratuakoa bestelako jarduera bati erreferentzia egiten dion proiektu bat aurkeztu zen".

Bergarako Udalak kontrako ebazpena eman zuen hirigintza bateragarritasunari buruzko txosten negatiboa aurkeztuta, baina Jaurlaritzak ez zion men egin; "kareharrizko materiala ekoizteko jarduerarako" baimenarekin aurrera egin zuen. "Ez da neutrala izan. Ekimen horri emandako laguntza osoa izan da", salatu dute ekologistek.

Orain, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dute.

Amaitu da Eskola Arrakasta programa

Proiektua Gurutze Gorriko zortzi boluntariok egin dute. Abian jarri zenetik, kalteberatasun-egoeran dauden familietako hogeitau haurrek baino gehiagok jaso dute laguntza. Gurutze Gorriak boluntario berrien izen-ematea zabaldu du

Mikel Zumalde DEBAGOIENA

Debagoieneko Gurutze Gorriak 2022-2023ko ikasturteko Eskola Arrakasta programa amaitu du. Laugarren edizioa du dagoeneko, eta egoera zaurgarrian dauden familietako haurrei laguntza akademikoa ematen die. Egitasmoa Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean garatu da, eta hark proiektuan parte har dezaketen ikasleak identifikatu ditu, 8 eta 12 urte bitarteko haurrak. Debagoieneko Gurutze Gorriaren batzarreko presidente Javier Igartuak eman ditu xehetasun gehiago: "Gazte ahulenen potentzial osoaren garapena bultzatzeko programa hori esperientzia pilotu gisa abiatu zen Bergaran. Lau edizioen ondoren, gaur egun programa hori sendotuz joan da edukietan eta laguntza-metodologietan, eta, aldi berean, garatzen duen boluntariotza-taldea ahaldunduz joan da gaitasun eta trebetasun berriekin", azaldu du.

Gurutze Gorritik adierazi dutenez, helburu nagusia izan da haurrei konfiantzazko gune bat eskaintzea, horrela, ikasle horiek euren premietarako laguntza pertsonalizatua jaso ahal izan dezaten. Laguntza hainbat modutan gauzatu da: kasu batzuetan, errefortzua hizkuntza menderatzean oinarritu da; beste kasu batzuetan, eskolako lanak egiten laguntzen; eta beste kasu batzuetan, programa jolasaren bidez gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzean oinarritu da.

Boluntario berriak

2022-2023ko ikasturtearen ondoren, Debagoieneko Gurutze Gorriak epe bat ireki du boluntario berriek izena eman dezaten. Ekimena Debagoieneko beste udalerrri batzuetara zabaldu nahi da: "Ez da alde aurreko presantuntzarik edo esperientziarik



Gurutze Gorriko kideak, egoera zaurgarrian dauden ikasleekin. GURUTZE GORRIA

HAUR BAKOITZARI LAGUNTZA PERTSONALIZATUA EMAN DIO GURUTZE GORRIAK

behar; aitzitik, boluntariotzako proiektu bat da, gizarte-kausetan lagundu nahi duten herritar guztiei irekia. Proiektu horretan boluntarioek lagundu egiten dute, ahal duten neurrian, eta, betiere, esperientzia handiaren boluntarioen laguntza duten neurrian. Ikasteko eta elkarri laguntzeko dinamika hori programaren arrakastaren gakotako bat da. Garrantzitsua da gazteek normaltasunez ikustea begiraleok ere laguntza behar dugula batzuetan", aitortu du Igartuak.

Debagoieneko Gurutze Gorriak garatzen duen ekimen solidario horri edo beste batzuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bi bide eskaini dituzte: hain zuzen ere, Debagoieneko Gurutze Gorriaren Elorregiko egoitzara deitzea, 943-76 55 76 telefono-zenbakira,

edo altodeba@cruzroja.es helbide elektronikora idaztea.

Urrezko Zozketa

Datozen asteetan, Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntarioek ahalegin "handiagoa" egingo dute uztailearen 20an egingo den Urrezko Zozketarako txartelen salmenta sustatzeko. "Finantzaketa-iturri garrantzitsua da Debagoieneko Gurutze Gorriarentzat", Igartuak argitu duenez. Salmentak uztailearen erdialdera arte iraungo du, eta ia zozko diru-sarrerak errepikatzeko itxaropena dutela azaldu dute.

"Diru-sarrerak horiei esker, kolektibo kalteberen aldeko proiektu sozialak egin ditzakegu gure eskualdean bertan, bai eta soroen eta larrialdiei erantzuteko ekipamendua egoera ezin hobean mantendu ere", esplikatu du Javier Igartuak. Debagoieneko Gurutze Gorriak Urrearen Zozketarako dituen partaidetzak taberna, jatetxe eta denda laguntzaileetan eros daitezke, eta baita ere Gurutze Gorriko boluntarioen sarearen bidez edo zuzenean Debagoieneko Gurutze Gorriara joanda ere.



Ekiolako kideak informazio-saioko gai-zerrenda aurkezten. JOKIN BEREZIARTUA

Ekiolak bideragarritasun ekonomikoa bermatu du

Asteazkenean bazkide kontsumitzaileei zuzendutako informazio-saioa egin zuen Ekiolak Amaia antzokian

Mikel Zumalde DEBAGOIENA

Amaia antzokiko itoginek ekainaren 21ean egin behar zuten batzar orokorra lekuz aldatzera behartu ostean, eguaztenean informazio-saioa egin zuen Leintz Bailarako Ekiolak Amaia antzokian. Batzar orokorrean onartutako berri eman zuten, eta zalantzak argitu zizkieten bertaratutakoek.

Bideragarritasuna

Errektore kontseiluak azpimarratu zuen Leintz Bailarako Ekiolak bermatuta duela bideragarritasun ekonomikoa, diru-

laguntzei esker. Iñigo Aranburu Leintz Bailarako Ekiolako presidentea mintzatu zen: "Berrehun bazkide baino gehiago ditugu. Lursail bat ere badugu, eta laster ikusgai izango dituzue bertan jarriko diren panel fotovoltaiakoak".

Panel fotovoltaiakoak Garaia Guneren eta Santa Ana hotelaren arteko lursail baten ari dira jartzen. Dena ondo bidean, uztailean parke fotovoltaiakoaren egitura osoa instalatuko da abuztuaren eguzki-plakak jarriko dira eta irailean konexioa eskatuko da.



JOKIN BEREZIARTUA

Elkarretaratzeak herrietan

Iruñean jazotako azken indarkeria matxista kasua salatzeke elkarretaratzeak izan ziren Arrasaten, Bergaran Oñatin eta Aretxabaletan. "Euskal Herria sutan dago. Zortzi astean, lau hilketak matxista. Nazkatuta gaude; borrokan jarraituko dugu, feminismoak sistema patriarkala suntsitu arte", adierazi zuten Arrasateko Bilgune Feministakoek.



ZABALIK

LANDER BELOKI MENDIZABAL

Adimen artifiziala eta gu

Adimen artifiziala, kontzeptu bezala, 1950eko hamarkadan sortu zen. Zeregin zehatzak egiteko gizakien adimena beharrezkoa zen kasuetarako sistema eta programak sortzen hasi ginenean. Ondorengo hamarkadetan garapen handia izan du, baina gure egunerokotasunean azken hilabeteetan agertu zaigu, bat-batean. Elkarrizketa guztietan presente daukagu, ChatGPTren erabilera orokortzen hasi denetik. ChatGPT adimen artifizialean oinarritzen da, adimen artifizial *sortzailea* motakoa. Haren gaitasunak txunditurik gauzka. Baina maila orokorragoan aztertuta, adimen artifizialak zer-nolako eragina izan dezake gure gizartean?

Accenture-k eta World Economic Forum-ek publikatutako txosten batek jasotzen duenez, lanorduen %40ri eragin diezaiekete ChatGPTk eta halako hizkuntza-eredu handiek. Diotenez, langileok, batez beste, gure lanaren %62 hizkuntza-zereginetan

LANGILEOK ERE FORMAKUNTZAREN ALDEKO APUSTU SAKONA EGIN BEHARKO DUGU

jarduten dugu, eta hor du inpaktu handiena teknologia horrek. Halere, horrek ez du esan nahi langile horiek guztiek makinek ordezkaturiko dituztenik. Beren hizkuntza-zereginen ordezkari jarduera produktiboak egiteko aukera izango dute.

Aldaketa teknologiko erraldoi horri aurre egiteko eta bertara egokitze bide garrantzitsuetakoa ikasketa izango da. Langileok trebetasun berriak beharko ditugu adimen artifiziala gure lanean erabili baina giza adimenak ere lekua izaten jarraitu dezan. Horretarako, enpresek beren langileentzat bideratutako formakuntza-planak garatu beharko dituzte. Eta langileok ere formakuntzaren aldeko apustu sakona egin beharko dugu, datorkigun mundu berri honetan balioa sortzen jarraitzeko gaitasuna izan dezagun.

Lanpostu berriak sortuko dira, adimen artifizialaren hedapena bultzatu eta kudeatzera eta datuen kudeaketara bideratutakoak. Eta hizkuntza-trebetasunean eta errepikatzean oinarritutako lanpostuak, aldiz, desagertzen joango dira. Lanpostu askok, ordea, adimen artifiziala laguntzaile moduan erabiliko dute. Gizakiaren ezaugarrietan oinarritutako egitekoetan –koordinazioa, erabakiak hartzeko arrazoitzea, komunikatzea...– automatizaziozko pauso gero eta nabarmenagoak ematen ari dira.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Espainiako himnoari, agur!

PATXI OLABARRIA IRIZAR
ANTZUOLA

100 egun pasatu dira *Antzuolako Armarriaren Alardea* liburua argitaratu nuenetik. Bertan azaleratu nuen gure Alardean jotzen dugun martxa Espainiako bigarren himno nazionala zela, Borboien erregetxeko ekitaldi solemneetan jotzen zena.

Antzuolako Udalak eta Alardearen Elkartek ez dute astirik izan gaia behar den bezala aztertzeke, baina irailean helduko ei diote. Aurten, beraz, azkenengo aldiz

zuzenduz esango diot agur himno horri.

Datorren urtean martxa berri bat zuzentzea espero dut, Antzuola bezalako herri abertzale eta errepublikazale bateko kaleetan horrelako doinu bat jotzea ez baitator bat gure herriaren nortasunarekin.

Ziklismo profesionalari alfonbra gorria, baina harrobiari kasurik ez

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

Bai, pasatu da Frantziako Tourraren *turrada*, eta jendetza batu da Euskal Herriko hirietan, herrietan eta portuetan ziklistak

animatzeko. Arrakasta, dudarik gabe. Eta ziklismozale asko dagoen seinale; edo, hobeto esanda, ziklismo profesionalaren zale.

Izan ere, milioika euro gastatu dira Tourra Euskal Herrira ekartzeko, baina, bitartean, ezer gutxi egiten da hemengo taldeak hauspotzeko, eta zenbat eta zenbat lasterketa geratzen diren egin barik, aurrekontu faltagatik. Ez da erraza azaltzen. Bueno, bai, erraza da, eta horretarako daude agintariak.

Txanpon beraren bi aldeak, zoritxarrez.

Baina lasai... laster hasiko da-eta futbol profesionalarekin lotutako parafernalia guztia, eta *denak* pozik...

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tifada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Boluntarioak behar ditugu udako oporraldietarako"

VANESSA IRURETA SECO ATZEGIKO AISIALDI TEKNIKARIA

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Atzegik aurten ere 400dik gora kiderendako oporraldiak antolatu ditu abuzturako. Boluntario faltan daude; Debagoiengan, bereziki. Vanessa Irureta (Donostia, 1989) ari da koordinazioan. **Zer dira Atzegiren abuztuko oporraldiak?**

Gure partaideendako antolatzen ditugun astebeteko opor txandak dira. Aisialdia da, eta ez da inor behartuta joaten. Zortzi bat laguneko taldeak izaten dira, eta mantenu osoan joaten dira hotel batera. Bi boluntario behar ditugu taldeko, eta kontua da faltan ditugula; batez ere, abuztuaren 6tik 22ra arteko txandetarako.

Ezagutza berezirik behar da oporraldiotan boluntario egiteko?

Ikasketa edo formakuntza berezirik ez da behar, baina garrantzitsuak dira bi faktore: alde batetik, motibatuta joatea; izan ere, astebete da, eta 24 orduz. Kolektiboarekiko sentsibiltatea ere behar da, zein tratu eman eta abar jakiteko. Horregatik, joan aurretik egun bateko formakuntza egiten dugu boluntarioekin; batez ere, elkar ezagutzeko, programaren berezitasunak azaltzeko eta egokitasuna baloratzeko. Kasu guztietan,



Vanessa Irurera Seco. ATZEGI

saiatzen gara boluntario bikoteak ondo aukeratzeko, elkarren arteko konplizitate garrantzitsua delako.

Adin berezirik behar da?

Baditugu 54 urteko boluntarioak, eta baita 17 urteko bat ere. Egia esan, 16 urtetik gorakoak boluntario izan daitezke Atzegein, baina adin txikikoen kasuan ondo begiratu beharra daukagu ze ardura maila har dezaketen eta zein ez.

Eta nora egiten dituzue oporraldiak?

Hainbat lekutara: Mediterraneo aldera –Salou, Lloret de Mar, Calella...–, Jaca, Isla, Gijon, Ledesma... Batzuk hondartzara, beste batzuk mendi aldera. Aurten, talde batek zirkuitu bat ere egingo du Aragoi eta Katalunia aldean. Jarduerak ere egiten dituzte, eta denen artean adosten dute zer eta noiz. Igerilekua, txiringittoa, bisita gidatuak, hondartza, talderen batzuek parranda ere egiten dute, beste batzuek nahiago izaten dute hoteleko

ikuskizunak ikusi...

Taldearen arabera da, eta adostu egiten dira; betiere, aurrekontura egokituta.

Atzegik egiten du nolabaiteko jarraipenik?

Bai. Boluntarioak joaten dira opor lekuetara, baina gu bulegoan gaude eta 24 orduko jarraipena egiten dugu. Telefono bat dugu piztuta gau eta egun abuztuaren 1etik 22ra. Boluntarioek erabiltzeko dago. Edozein urgentziaren edo galderaren aurrean laguntzeko gaude. Bestetik, egunero jartzen gara haiekin harremanetan, nola dauden galdetzeko edo zerbaitek behar ote duten jakiteko.

Dinamika garrantzitsua da partaideendako, ezta?

Partaideendako oso garrantzitsua da, eta familiendako ere bai. Egia esan, partaide askok ez dute beste aukerarik lagunekin oporretan joateko. Gehienetan, gurasoekin joaten dira, eta iristen da une bat non beti gurasoekin aspergarria ere baden. Esan behar da familiek ere ondo hartzen dutela astebeteko atsedena.

Boluntario falta bereziki nabarmena da Debagoiengan?

Bai, horrela da. Hainbat eskualde koordinatzen dituzte; tartean, Debagoiena. Eta Atzegein gaur egun 400 bat boluntario baditugu –oporraldietarako, txolarteetarako, irteeretarako...– Debagoiengan hamabi bakarrik daude. Oso gutxi da. Saiatzen gara gazteak animatzen, eta hitzaldiak egin izan ditugu Bergaran,

Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin, baina zailtasunak ditugu. Boluntarioak falta dira oporraldietarako, baina baita ikasturtean zehar egiten ditugun ekintzetarako ere. Debagoiengan baditugu 17-24 urteko gazte kuadrilla bat eta 31-65 urte arteko beste bat. Urritik ekainera bitartean gainerako eskualdeetan halako taldeak astean behin elkartzen dira lagunartean egoteko. Debagoiengan ez dago boluntario nahikorik, eta hilean bitan bakarrik elkartzen dira. Imajinatu lagunekin hilean bitan bakarrik elkartzea! Horrekin lotuta, deialdi berezia egiten dut urrira begira ere. Taldeak desegitea pena handia litzateke.

Boluntario izan nahi dutenek nora jo behar dute?

Atzegi.eus webgunean gure proiektuen nondik norakoak eta argazkiak aurki daitezke, baina zuzenena deitzea da. Bulegoko telefonoa 943-42 39 42 da. Zalantzak argitzeko, niregatik galdetu.

"DEBAGOIENEAN BOLUNTARIO OSO GUTXI DITUGU; GAUR EGUN, HAMABI BESTERIK EZ"

"LAGUNEKIN OPORRETAN JOATEKO AUKERA IA BAKARRA DA GURE KIDE GEHIENENDAKO"

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Gobernu akordioa sinatu dute, elkarlana oinarri

EH Bilduk eta Elkarrekin koalizioak "arduraz eta konpromisoz" hartu dute Arrasateko Udala gobernatzeko eginkizuna. "Gobernuan sartzen garen alderdi eta ordezkariok elkarlanean lan egingo dugu eta elkarrekiko errespetuz jardungo dugu", azaldu dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE "Elkarlanean eta jarrera erakitzailean oinarritutako proiektua" garatu nahi dute EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek. Era berean, Gobernuaren barnean zein kanpo eragileekin eta herritarrekin lan egiteko moduari garrantzi berezia eman nahi diote. Azaldu dutenez, Tokiko Gobernu Batzordea izango da Udal Gobernuak erabakiak hartzeko espazioa eta bi alderdietako ordezkariak izango ditu. "Gai estrategikoetan, Tokiko Gobernu Batzordea gaindituko duten adostasunak bilatzeko borondatea izango dugu", diote.

Gaineratu dute osatuko duten Gobernuak "Udalaz gaindiko parte-hartzea bultzatzeko konpromisoa" hartuko duela. Halaber, Udal Gobernuaren baitan jarrera sexistarik ez eduki eta ez onartzeko konpromisoa ere hartu dute, baita "ustelkeria kasu edota boterearen erabilera pertsonalik" ez egitekoa ere.

Auzoetako arduraduna

Alkatetzari dagokionez, Maider Morras izango da alkatea; lehen alkateordea, Kepa Urteaga; bigarren alkateordea, Garazi Etxeberria; hirugarren alkateordea, Jasone Giraldo eta laugarren alkateordea, Eva Abuin.

Orain arte moduan, alkatetzaz gain, hamahiru sail izaten jarraituko du Udalak, baina badira ezberdintasunak. Honako hauek izango dira sailak: Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantenua; Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasuna; Kultura; Kirola; Ogasuna; Pertsonak eta Udal Langileak; Euskara; Ongizatea; Feminismoa eta LGTBI+; Tokiko Ekonomia eta Enplegua; Hezkuntza; Belaunaldiartekotasuna; eta Bizikidetzak.

2023-2027ko agintaldiko berritasunetako bat, halaber, auzoetako arduraduna izango da, eta Mikel San Miguelek beteko du zeregin



Maider Morras eta Eva Abuin, udaletxean, akordioa sinatzen. E.A.B.

Batzordeak eta zinegotziak

- **Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantenua:** Kepa Urteaga.
- **Auzoetako arduraduna:** Mikel San Miguel.
- **Hirigintza, Trants. Ekologikoa, Mugikortasuna:** Garazi Etxeberria.
- **Kultura:** Andoni Arratibel.
- **Kirola:** Asier Murguzur.
- **Ogasuna:** Joseba Ezpeleta.
- **Pertsonak eta Udal Langileak:** Kepa Urteaga.
- **Euskara:** Joseba Ezpeleta.
- **Ongizatea:** Jasone Giraldo.
- **Feminismoa eta LGTBI+:** Eva Abuin.
- **Tokiko Ekonomia eta Enplegua:** Jaime Bengoa.
- **Hezkuntza:** Jasone Giraldo.
- **Belaunaldiartekotasuna:** Gladys Fernandez.
- **Bizikidetzak:** Jasone Giraldo.

hori. "Auzoetako ezaugarri eta behar propioei erantzuteko lan egingo dugu. Auzoekin zuzeneko komunikazioa izateko batzordeak antolatuko ditugu eta zehar lerro gisa landuko ditugu bertatik jasotako informazio, behar eta proiektuak", azaldu dute.

LGTBI+ ildo txertatu dute

Bestalde, orain arte Berdintasun Saila izan dena Feminismoa eta LGTBI+ Saila izango da. "Feminismoa Udalean zehar lerro izateko lan egingo dugu eta horretarako batzorde guztiak or-

dezkaturatu egongo diren mahai bat osatuko dugu, sail bakoitzaren berdintasun planak eta irizpideak baloratu, berrikusi eta plan estrategikoa garatzeko". Emakume Txokoaren kokaleku berrirako eta eraldaketarako proiektua garatzeko konpromisoa hartu dute, izena aldatu eta Txoko Feminista bilakatzeko.

Era berean, Gazteria Saila desagertu egin da, eta Belaunaldiartekotasun Sail bilakatu. "Gazte politikak berrikusi eta nagusien kontseilua sortuko dugu".



SANDRA MELERO

Sanjuanetako argazki onena

Artgazkik antolatu duen 2023ko San Juan lehiaketak baditu sarituak: Sandra Meleroren *Denok mezetara* izan da argazki onena; Aitor Arrutiren *Adarra jotzen* argazkiarentzat izan da bigarren saria; eta hirugarrena, aldiz, Jon Alzaren *Erasotzaileak San Juan sura* argazkiarentzat. Argazki originalena Aimar Elortzaren *Azkena ta etxera* izan da (Ikus *Goiena.eus*).

Avesantes elkarteak hirugarren urteurrena ospatuko du bihar

Egun osoko egitaraua prestatu du Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako bizilagunen elkarteak

E.A.B. ARRASATE

2020an sortu zuten Avesantes elkarteak, eta, aurreko urteetan egin duten moduan, urteurrena ospatzeko jaia egingo dute aurtien ere. Zapatu honetan izango da, uztailaren 8an, eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako.

Lehenik, 11:00etan, haurrendako lasterketa egingo dute Doneztebe Portukon. Gero, 11:30ean hasita, pintxo-pote musikatu egingo dute auzoan zehar eta 12:00etan jolas herrikoiak eta ur-jolasak izango dituzte.

13:00etan egingo dute pregoia eta 14:30ean, berriz, herri bazkaria, Arizmendi Ikastolako Santa Teresa guneko patioan.

Bazkalostea bingoarekin arinduko dute, 16:30ean hasita, eta arratsaldea DJ Daniren musikak girotuko du -18:00etan hasiko da-. Egunari amaiera ematen joateko, 20:00etan, txistorrak erreko dituzte parrillan, eta, ondoren, Patxi Luqueren emanaldia izango da, 21:00etan.

Avesantesek Fagor Electronikaren eta Dikarren laguntza izan du egitaraua prestatzeko.

Igerilekuko aldagelak itxiko dituzte, konponketak egiteko

Aldagelak ezingo dira erabili uztailearen 10etik abuztuaren 10era arte, zorua konpondu behar dutelako. Era horretan, "instalazioen segurtasun eta funtzionamendu egokia" bermatu nahi du Udalak. Lan horiek ez dute eraginik izango igerilekuaren egunerokoan eta kantxako aldagelak erabili ahal izango dira hilabete horretan.

Uztailaren 14an ospatuko dituzte Zerrajerako jaiak

2019an egin zituzten azkenengoz, eta, azken urteetan pandemia-gatik eta boluntario faltagatik ospakizun barik izan ostean, bueltan dira jaiak. Uztailearen 14an egingo dituzte, datorren egubakoitzean, eta denetarik egongo da: haur jolasak, dantza emanaldia, magia ikuskizuna, haur afaria eta abar (Egitaraua osorik, *Goiena.eus*-en).

Arrasatez gozatzeko hainbat era asteburuero

Udalak udarako eskaintza turistikoa aurkeztu du, Arrasate "sakon" ezagutu dezaten bai herritarrek, bai bisitariek; hala, askotariko mendi ibilaldiak eta bisita gidatuak egongo dira uztailero, abuztuko eta iraileko asteburuero; aurrez izena eman behar da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Uztailero, abuztuan eta irailean udalerriko historia, industria eta eraikin garrantzitsuenen inguruko bisita gidatuak izango dira zapatuetan. Halaber, Arrasateko ingurune naturala ezagutzeko mendi irteerak domeketan egingo dituzte.

Arrasate hiribildu bizia izeneko bisita uztailaren 15ean eta 29an, abuztuaren 5ean eta 12an eta irailearen 2an egingo dute, 11:00etan Biteri plazatik abiatuta.

Arrasateko industria ondarea bisita, berriz, uztailaren 8an eta 22an eta irailearen 9an egingo dute, 11:00etan Biteri plazatik abiatuta.

Zazpi mendi ibilaldi

Mendi ibilaldiei dagokienez, honako hauek dira: uztailaren 2an, Arrasateko auzoak ezagutuko dituzte, 09:00etan Herriko Plazatik abiatuta; uztailaren 9an, Udaltzera joango dira,

Kanpanzarren barrena, 09:00etan Udala auzotik abiatuta; uztailaren 23an, PR Gi-206 Murugain ibilbidea egingo dute, 09:00etan Herriko Plazatik irtenda; abuztuaren 6an, Udala-Gongetako meatzea-Besaide ibilbidea egingo dute, 09:00etan Udaltatik irtenda; abuztuaren 27an, Udala-Txukurillo bidea, 09:00etan Herriko Plazatik abiatuta; irailearen 3an, Galarrako kobara espeleologia irteera egingo dute, 09:30ean Meatzerrekatik abiatuta; irailearen 10ean, Arrasateko Arantzazura joango dira, Erromes Bidea eginez, 09:00etan Herriko Plazatik irtenda; irailearen 17an, azkenik, Anporretako bira egingo dute, 09:00etan Herriko Plazatik abiatuta.

Izena eman behar da aurrez

Izena eman beharko da, *izenemateak.arrasate.eus*-en edo BAZera deituta: 943-25 20 00 –uztailero eta abuztuan, 644 37 47 46; irailean, 695 75 34 30–.



Udalatzeko tontorretik, gurutzeta eta mapa. SERGIO AZKARATE

NIRE USTEZ



IANA SANCHEZ

Mondra&Musik

Mondrak zer duen inoiz ez dut asmatu. DNA edota gene arraro baten kontua ote den herri honi berezitasun zehatz hau ematen diona. Izan ere, musikaz maiteminduta dagoen honi etengabe poztasuna dakarkion oparia da. Zorionez, hainbestetan kalitatezko musika taldeak zuzenean eta gertu ikustearen pribilegioa izan ohi dut.

Aspalditik hona, zulo petral honetan ehunka musika talde jaio dira. Urteen bueltan, punk, oi! rock, jazz, hip-hop edota gaur egungo trap soinuez Arrasateko taldeek osatutako melodietan belarriak goxo busti ditut. Inako jaunak Youtubeko *MondraMusik* kanalean bildutako makina bat talderen ikusentzunezko materiala ondare honen isla argia da.

Asteburu honetan, Mondra&Roll jaialdiaz gozatzeko aukera izango dugu, Monterron parkea hankaz gora jarriko duen jaialdiaren bigarren edizioa ospatuko baita. Mundura bidalitakoak, behingoz, oihartzuna izan eta, bueltan, gurea munduko mapan puntu klabe moduan ezarri eta bizitzaren ohorea izango dugu. *So, Mondra, let's go!*

ANTOLATZAILEA:



Arrasateko
Herriko Udala

LAGUNTZAILEA:



Miseriatik irten daitezzen lanean

Mundukide Fundazioa 2002an hasi zen Mozambiken lanean eta gaur egun nekazariei informazioa, trebakuntza eta aholkularitza eskaintzen jarraitzen dute kooperanteek

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Afrika hego-ekialdean dago Mozambike herrialdea, munduko txiroenen artean kokatuta dagoena. Herrialdeak ia 30.000.000 biztanle ditu eta 15.000.000 herritarrek osatzen dute biztanleria aktiboa –beste erdiak umeak dira–. Horietatik, 1.000.000 inguruk soilik dute lan-kontratu bat eta 2.000.000 inguru dira autonomoak –arotzak, mekanikariak edo garraiolariak, esaterako–. Horrenbestez, 12.000.000 herritarrek ez dute lanik eta nekazariak dira, halaber, egunerokoan zerbitzu jan ahal izateko.

Lan-kontratu bat duten horien dako, 70 euro inguruko gutxieneko soldata ezartzen du legeak, eta, nekazari familia batek, gizonak eta emakumeak lan eginda, biek lan eginda, gutxieneko soldata baten laurdena edo herena irabazten du. "Familia horrek, dirutan, 50 euro ikusiko ditu urtean; gainontzekoa jan duena da, sorotik platerera joan dena", azaldu du Beñat Arzadun Mundukideko kideak, hamabost urtez hango programako arduradun izan denak. "Diru kopuru horrekin ezin da ezer egin, eta gure helburua da egoera hori gainditzea", gaineratu du.

Arzadunek adierazi duenez, epe luzeko helburua izango litzateke Mundukidek lan egiten duen eremuetako nekazari familia bakoitzak gutxieneko soldata baten baliokidea dena irabaztea, biek lan eginda. "Baina hortik urrutiti gaude oraindik".

60.000 familiatik gora 2010etik Mozambike iparraldeko Cabo Delgado eta Niassa probintzietan ari da lanean Mundukide, bederatzi barrutitan, eta nekazaritza arloan zentratzen da fundazioaren zeregina. Hasi zire-

nean, 2000ko hamarkada hasieran, arlo gehiagotan aritzen ziren: errepideak, hezkuntza, osasuna, enpresa txikiak edota nekazaritza. "Baina nahiko azkar konturatu ginen arlo batzuetan oso balio erantsi gutxi ematen ari ginela eta beste batzuetan, ordea, ekarpen handia egiten genuela; nekazaritza, nagusiki. Diferentzia handiarekin, baliabideen erabilpen onenerako aukera ematen zigun arloa zela konturatu ginen; hau da, baliabide mugatu batzuekin eragin handia lortzen genuela", zehatu du Arzadunek. Hala, 2010a ezkerro, erabat nekazaritza arloan zentratuta dihardute. "Ordutik, 60.000 familiatik gora pasa dira gure programatik".

150 trebatzaile dituzte

Mundukideko kooperanteak hara iritsi zirenean, Arzadunen esanetan, nekazari mozambiketarrek ez zuten ureztatzea ezagutzen. "Beraz, besteak beste, urtegi txiki bat sortzen, kanal bat egiten, partzelak banatzen eta abar irakatsi genien".

Gaur egun, Mozambikeko 13.000 nekazari familiarekin ari da lanean fundazioa, eta lan-metodologiaren oinarri nagusietako bat da nekazari batzuek beste batzuei teknikak erakustea –horretan aritzen direnei trebatzaile deitzen diete–. Produktu jakin bat landatzeko teknikak dakizkitenak eta produktu horrekin emaitza onak dituztenak dira trebatzaileak, eta probintzia batetik bestera joaten dira, han-

EGUN, MOZAMBIKEKO 13.000 NEKAZARI FAMILIAREKIN ARI DA LANEAN MUNDUKIDE FUNDAZIOA

go nekazariei teknika horiek irakasteko. Gaur-gaurkoz, 150 trebatzaile dituzte.

Haien lana, edozelan ere, arlo teknikoari dagokiona bakarrik da; izan ere, laguntza osoagoa eskaintzen du fundazioak Mozambiken, nekazariei haien aktibitate produktibo eta komertziala hobetzen laguntzeko. "Lehenik, haiendako aukerak bilatzen saiatzen gara, merkatuak ematen dituen aukerak aztertzen. Aukera horiek identifikatutakoan, ikusten dugu norengandik ikasi dezaket, eta trebatzaileak lortzen ditugu. Horrez gain, produktiorako zerbitzu behar baldin badute, haziren bat edo erremintaren bat, hori erosteko aukera eskaintzen diegu. Behin uzta izandakoan, hori saltzeko laguntza ematen diegu, erosle potentzialak aurkituz eta haiekin harremanetan jarritz". Trebatzaileez gain, Mundukidek kontratatutako langile mozambiketarrek 34 dira eta kooperante gisa ari direnak, aldiz, lau.

Genero-berdintasunaren alde

Mundukideren lan-ildoetako bat bada genero-berdintasuna ere. Izan ere, emakumeen eta gizonen arteko egoera desorekatua da herrialde hartan. "Ez da, askok pentsatuko duten moduan, erabateko tirania matxista bat, baina desberdintasun nabarmenak daude; agintzeko orduan, bata gainean dago eta bestea azpian, argi eta garbi".

Gaineratu duenez, emakumeen mendekotasun posizioa markatzen duen faktore nagusia da emakume bakoitzak, batez beste, zazpi haur izaten dituela –beste bi haurdunaldian hiltzen zaizkie–. "Horrek esan gura du ia bederatzi urte haurdun egon direla eta ume bakoitza bi urtez eraman dutela bizkarrean, titia




Nekazariak, haien produktuak pisatzen, saldu aurretik. MUNDUKIDE

emateko. Beraz, 23 urtez izan dute haur bat sabelean edo bizkarrean, eta beste haurrak, noski, inguruan bueltaka. Horrek emakumearen bizitzan muga batzuk jartzen ditu", zehatu du. Beraz, egoera aldatzeko bide nagusia jaiotza-tasa hori jaitea dela dio. "Hala ere, ulertu behar da zergatik dituzten zazpi haur. Monetizatu gabeko bizitza dute, ekonomia primitiboa. Dirua irabazten hasiko balira edota dirua irabazteko ikasketak edukitzea garrantzitsua izatera iritsiko balitz, gehiago inberti-

tuko lukete ume bakoitzaren ikasketetan, eta, ondorioz, ume gutxiago edukiko lituzkete".

Kontuak kontu, emakume mozambiketarrek duten muga nagusia mugikortasunarena da. Hau da, etxe inguruko zereginetan parte hartu dezakete, baina urrunera joan beharra dagoenean gizona joaten da. "Beraz, gu saiatzen gara ahalik eta gauza gehienak etxe ondora gerturatzen: ikastaroak, trebakuntza saioak, produktiorako erremintak, haziak eta abar. Bestalde, guztiek haziak eroste-



Korrontzi, Goi Eskola Politeknikoaren festan, 2018an. GOIENA

Kontzertu solidarioa hilaren 20an

Mundukide Fundazioak eta Harremanek elkarlanean antolatua, *Korrontzi dantza* ikuskizuna egingo dute uztailaren 20an, eguena, Monterron parkean, 19:30ean hasita. Helburu solidarioa izango du emanaldiak eta sarrerak dagoeneko erosi daitezke, 10 eurotan. Hiru bide daude horretarako: Mundukideren bulegoan (Iturriotz kalea 27), www.mundukide.org-n edo www.harreman.net-en.

Korrontzi eta Oinkari taldeek bailarako taldeen kolaborazioa izango dute: Lagun Artean, Lore Gazteak, Txikitxu Arrostitz, Jaiki, Ttakun Txalaparta Taldea eta Arrasateko Tzikitixa Taldea.

Mozambikeren aldeko ekimena izango da; izan ere, sarreretatik ateratako dirua lankidetzaprogramei jarraipena ematera bideratuko dute, "nekazariak euren komunitateen bidezko garapenari lagunduko dion errenta sortzen jarrai dezaten".



Gaur egun, Mozambikoko emakumeek zazpi haur izaten dituzte, batez beste. MUNDUKIDE



Salmentaren uean, nekazaria erosleekin. MUNDUKIDE

ko aukera izan dezaten, 100 gramoko latak erosten ditugu eta 10 gramoko poltsatxotan banatu, zazpi zentimoko prezioarekin. Modu horretan, diru gutxi duenak ere badu aukera landatzen hasteko", nabarmendu du kooperanteak.

Hizkuntza ere muga da

Kolonizazioaren ondorioz, portugesa da Mozambikoko hizkuntza ofiziala, baina hango herritarren erdia bakarrik da hizkuntza hori hitz egiteko gai. Hizkuntza autoktono asko daude herrialdean eta Cabo Delgado eta Niassa probintzietan bi dira nagusiak: makua eta yaoa. "Oraindik ere, emakume gutxi dira portugesa dakitenak. Beraz, gure helburua da auzo bakoitzera eramatea haien hizkuntza dakien trebatzailea. Gehienetan lortzen dugu, baina ez beti. Arazo bat izaten da, alde horretatik, eta esfortzu berezia egin behar izaten dugu". Modu horretan, dituzten interakzioen %30 inguru emakumezkoekin izatea lortzen dute.

Urteko garai inportanteena

Garai hauetan, ekain eta uztailan, uzta saltzen ari dira Mozambiketan, eta urte osoan egingandako lana dute jokoan nekazariak. "Orain arte egin dugun lan guztiak ez du ezertarako balioko orain baserritarrek dirua irabaziko ez badute". Beraz, hango lantalde guztia "erabat kontzentratuta" dago uztaren salmentan, Arzadunek azaldu duenez. "Gogoratu, ordea, salmenta nekazariak egiten duela; guk lagundu egiten diegu".

Hainbat produktu ekoizten dituzte hango nekazariak eta aldatzen joaten dira. "Sesamoa, adibidez, oso ondo ari da saltzen. Diru gehien ematen duen pro-

duktua da, nekazari kopuru handiagoari diru kopuru gehien ematen diona, alegia. Sojak, berriz, buruhauste handiak ematen dizkigu".

Egiten duten lanaren balioa

Mozambiketan, urtean 450.000 euro inbertitzen ditu, gutxi gorabehera, Mundukidek, eta han egiten duten lanari balioa eman nahi izan dio kooperanteak: "Merezi al du Mundukidek kudeatzea diru kopuru hori urte osoan? Edo hobe litzateke diru hori zuzenean hango jendeari ematea? Nola lortuko litzateke emaitza hobea? Oso gutxitan egiten da analisi hori, baina guk egiten dugu, garrantzi berezia du horrek guretzat", dio. "Gaur-gaurkoz, guk inbertitzen dugun euro bakoitzeko nekazariak hiru euro irabazten ditu. Bizpahiru urtez, guk inbertitutako euro bakoitzeko hamar irabaztera ere iritsi ziren, bereziki Cabo Delgado probintzian, baina gerra hasi zenetik, ezin dezakegu gauza askorik egin han. Niassan, berriz, herritarrak sakabanatuago bizi dira eta jende kopuru berdina-rengana iristeko logistika handiagoa behar dugu. Edonola ere, emaitzak hor daude eta hori da balio duena".

Dohaintzak egin daitezke

Fundazioari lagundu gura izanez gero, mundukide.org-en egin daitezke ekarpenak. Zalantzak argitzeko, 943-77 20 10 zenbakira deitu edo mundukide@mundukide.org helbidera idatzi.

**FUNDAZIOAREN
HELURU NAGUSIA DA
HANGO HERRITARRAK
MISERIAK IRTETEN
LAGUNTZEA**



uztailak
7
ostirala

uztailak
8
larunbata

Oparituko dizugu



10

€*

**zure EROSKI
dendan
trukatzeko****

20€-ko erosketa bakoitzagatik

*Kupoi trukagarria uztailaren 10etik 20ra, gutxienez 60 €-ko erosketa batoan.

** EROSKI denda honetan 10€-ko kupoi bat oparituko dizugu sustapenera abilitatutako abiletan egindako 20 € bakoitzeko, erosketa bakoitzeko 10 kupoi mugarekin. Gehieneko zenbatetako kupoiaren, 100€. Sustapenerik kanpo daude leku-irabazkiz, espenetarako-irabazkiz, telefono-irabazkiz, E-pay (burrezandakietan) irabazkiz, enbaxatze digitala, enbaxatze eta irabazkiz zerbitzuak eta zigu bideko fideltziazko-sustapenerako produktuak. Konturatu baki-tzak denda.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.

Tel.: 943 71 10 30

"Murtzian taldekako lorpena izan da politena"

ITXASO PLAZA IGAMO PACKAGING TALDEKO ZIKLISTA

Asteburuan Espainiako txapelketa jokatu du Murtzian, eta euskal selekzioa ordezkatzuz taldeka urrezko domina irabazi du arrasatearrak

Xabier Urzelai ARRASATE

Itsaso Plazak (Arrasate, 2005) lasterketez betea du uztaila. Baina asteburuan hitzordu berezia izan du, Cartagenan (Murtzia) jokatu duten Espainiako txapelketan euskal selekzioa ordezkatu du eta. Talde indartsuenen multzoan zeuden, eta hasieratik erakutsi zuten euskaldunek faborito izatea ez zela eurendako gainkarga.

Taldeka podiumeko lehenengo koskara igo zarete. Eta ez da ezustekoa izan.

Ez; faboritoen multzoan geunden eta lehenengo kilometroetatik hartu genuen lasterketako erritmoa jartzeko ardura.

Arlo pertsonalean, 13. sailkatu zinen.

Bai; taldekako garaipenak egin dit ilusioa, helmugan 13. izateak ez dit apartekorik esaten. Azken batean, lehenengo mendatean -82 kilometroko lasterketa zen- ez nuen ihesaldian sartzerik izan. Ez zen nire ezaugarrietara egokitzen zen mendatea, eta atzean geratu nintzen. Bigarren mendatea, berriz, ondo igo nuen, luzeagoa zen, malda handiagoa zuen... Ihes egindako batzuk harrapatu nituen orduan, baina, ihesaldian bi ordezkari sartu genituenez, atzean lan egitea tokatzen zen; besteen ihesaldi saiakerak zapuztea, alegia.



Itxaso Plaza, taldekideekin entrenatzen. LOKATZA ZE

"UZTAILAREN 15EKO BERGARAKO ETA OÑATIKO PROBEK BEREZIKI MOTIBATZEN NAUTE"

Lasterketaz beteta dator uztaila.

Pentsa, asteburuan hiru proba izango ditugu jarraian, ostiraletik [gaur] hasita domekara arte.

Uztailaren 15eko hitzordu bikoitzeko motibatuta?

Bereziki motibatuta, bai. Zapatu goizean Bergaran izango dugu San Martzialeko igoerako erlojupekoa eta arratsaldean beste lasterketa bat izango dugu, Oñatin. *Challenge* moduko bat antolatu dute bi herrietako klubean artean, eta polita izango da etxean lehiatzea. Oñatikoa, esaterako, lasterketa berria da; Arregiko maldak izango ditugu eta uste dut ondo egokitu naitekeela lasterketa horretara.

Datorren urtera begira ze asmo? Oraindik ez daukagu ezer garbi; beraz, goiz da ezer esateko.



Ane Rincon, euskal selekzioarekin, Valentzian. ART

Euskal selekzioarekin brontzea irabazita itzuli da Ane Rincon

Arrasate Rugby Taldeko jokalaria Valentzian izan da 18 urtez azpiko euskal selekzioarekin; hirugarren izan dira

X.U. ARRASATE

Ane Rincon Valentzian izan da euskal selekzioarekin autonomia erkidegoetako selekzioen kontra lehiatzen, CESA izeneko txapelketan. Hasierako fasean norgehiagoka guztiak irabazi zituzten eta finalerdietan amore eman behar izan zuten Valentziaren kontra. Gauzak horrela, hirugarren eta laugarren posturako baliagarria zen partidua jokatu zuten Kataluniaren kontra, eta Rincon eta euskal selekzio taldekideak nagusitu egin ziren: hirugarren sailkatu ziren.

Esperientzia hori, baina, ez da jokalaria arrasatearrarentzat berria izan. Aste Santuan Espainiako Errugbi Federazioak egindako emakumezkoen 18 urtez azpiko *Training Camp* delakoan hartu zuen-eta parte Chesten (Valentzia). Lau egunez, Katalunia, Madril eta Valentziako federazioek, Belgikako

selekzioarekin batera, zenbait lan-saio egin zituzten, eta entrenamendu saio haietan izan zen arrasatearra.

San Juan jai barik

Arrasatekoak ezin izan du San Juan jaiekin gozatu; euskal selekzioarekin egindako egonaldia amaitzean, Rinconek Madrilerako bidea hartu zuen zuzenean, han zarpiko Espainiako selekzioarekin entrenamendu saioak izan zituen eta.

ARTren batzar orokorra

Bestalde, Arrasate Rugby Taldeak jakinarazi du uztailaren 18an, martitzena, egingo duela ohiko batzar nagusia. Ohi bezala, hitzordua Mojategin izango da, 18:00etan lehenengo deialdian eta 18:30ean bigarrenean. Datozen egunotan jakinaraziko dute batzarraren gai-zerrenda.

Pronostikoak bete dituzte

Junior mailako Espainiako txapelketan euskaldunak ziren faborito, eta aurreikuspenak beteta podiumeko lehenengo koskara igo dira. Itxaso Plaza -ezkerretik lehenengo- 13. postuan helmugaratu zen, arrasatearraren taldekide Nahia Aranak brontzea lortu zuen eta Ayala Serranok 4. postua. Beroak ez zuen eragin handirik izan, goiz hasi zuten-eta proba.



Euskal selekzio taldeko seikoa, podiumean. ESPAINIAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Aitor Cortizas da Mondrateko entrenatzaile berria

Aitor Cortizasek zuzenduko du Mondrateko lehenengo taldea, Hirugarren Maila Nazionalean. Eta aurtin bigarren entrenatzaile lanetan ibili den Arkaitz Ribera laguntzaile lanetan ibiliko da. Cortizas esperientziadun entrenatzaile da; besteak beste, Otxartabe, Almi Elorrietako eta UFS Usansolo taldeetan jardun du.

Zaldibarko 24 orduko txapelketa uztailaren 15ean egingo dute

Datorren zapatuan, hilak 15, egingo dute Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa, eta antolatzaileek zabalik dute izen-emate epea. Talde bakoitzeko 130 euro ordaindu behar dira, eta uztailaren 10a da izena emateko azken eguna. Izen-ematea Etxoste tabernan egin daiteke, edo Instagram kontura mezu pribatua idatzita -zaldibar24h-.

"Oso pozik nago jaialdia hazten ari dela ikusita"

NOA EGIGUREN ABESLARIA

Ostegunean, Arrasate Blues-en egitarauaren barruan, Noa And The Hell Drinkers taldearen ikuskizuna egongo da, Herriko Plazan, arratsaldeko zazpitan

Miren Arana Pagaldai ARRASATE Bluesa oinarri, rock kutsua duen taldea izango da berriz ere Arrasate Blues jaialdiaren egitarauaren barruan: Noa And The Hell Drinkers.

Ezagutzen duzue, aurretik egonda-koak zaretelako. Gogotsu jaialdian parte hartzeko?

Oso gogotsu nago; asko gustatzen zait jaialdi hori, giro ederra sortzen delako bai plazan eta baita eszenatoki guztietan ere; eta oso pozik nago jaialdia hazten eta handitzen ikusteaz. Beti izan du primerako antolakuntza, eta horrek dena ondo joaten laguntzen du, eta bai musikariak eta baita ikus-entzuleak ere gustura sentitzea lortzen du.

Zer itxura hartzen diozu aurtengo egitarauari?

Primerakoa, talde ugari ezagutzen ditut. Jaialdiak beti egiten du bertako taldeen aldeko apustua, eta hori eskertzekoa da; jaialdietan jotzeko aukera izatea guretzako oso garrantzitsua da.

Polonia saria jaso zenuten, Euro-pako Blues Challenge lehiaketako sari nagusia. Pozik al zaudete? Nolako esperientzia izan zen?

Eurovision modukoa dela esaten dute; Europa mailako blues lehiaketa da. Hirugarrenez aur-

keztu gara Estatua ordezkatzeko, eta poz-pozik gaude. Sorpresa itzela izan zen; ume txiki bat bezala igo nintzen oholtzara, eskolako lehenengo eguna izango balitz bezala.

Saria erakusleiko ederra izan da?



Noa Egiguren, Noa And Hell Drinkers taldeko abeslaria. ENEKO AZURMENDI

Sariari esker, Europa mailako blues eszena horretan kokatzea lortu dugu. Zaila da norberaren taldea ezagutzera eramatea, eta hori erakusleiko aparta izan da; orain, European kontzertuak egingo ditugu. Irailean, adibidez, Norvegiara goaz, eta, ostean, Txekiar Errepublikara eta baita Suitzara ere.

Arrasateko kontzertua 19:00etan izango da, baina aurretik omenaldia jasoko duzue, eta baita urrezko pin-a ere. Pozik hartuko duzue?

Oso pozik; hori ere sorpresa polita izan da. Azken urte erdia zoragarria izan da, oso aukera politik izaten ari gara. Diskoa grabatu dugu; irailtik aurrera erakutsiko dugu, baina, agian, ostegunean sorpresaren bat izango da.

Prest al duzue kontzertua?

Ordena pentsatu gabe dago; bizpahiru aukera ditut buruan, eta berehala aukeratu dugu ordena. Sorpresa pare bat ere egongo dira; inoiz jo ez ditugun bi abesti-edo joko ditugu, eta, noski, guztiak daude kontzertura gonbidatuta. Ea dantzatzera, kantatzera eta txalo egitera animatzen diren ikusleak; iaz giro ederra sortu zen, eta aurten ere horixe bera espero dugu.

"SARIARI ESKER, EUROPA MAILAKO BLUES ESZENA HORRETAN KOKATZEA LORTU DUGU"

'Kobr3' zirku garaikidea Udazabal programan

Datorren martitzenean Biteri plazan, Zirkozaurre konpainiaren eskutik, 'Kobr3' ikuskizuna

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Udazabal programan zirkuak ere izango du tokia; hilaren 11n arratsaldeko zortzietan Biteri plazan, hain zuzen. Zirkozaurre konpainiak eskaintako *Kobr3* zirku garaikidea egongo da, arrasatearren gozamenarako; oholza gainean hiru artista izango dira malabar teknikak, objektuen manipulazioa, *Cir* gurpila, bertikalak eta mugimendu konpasatuak konbinatzen. Estetika, plastikotasuna, konplizitatea eta harmonia bateratuko dituzte, zirku garaikidea erakusten duen koreografia zainduan.

Kobrea inspirazio

Kobreak inspiratutako zirku garaikideko ikuskizuneko koreografiaren zuzendari da Nueveuno konpainiako Jorge Silvestre; eta Gorka Pereira, Pablo Caceres eta Imanol Suso dira oholza gainean arituko diren artistak.

elVelocimetro.com
AUTOESKOLA

ARRASATE • Garibai etorbidea 6 • 640 33 22 48
info@elvelocimetro.com • www.elvelocimetro.com

Maisu
e-Learning

GIDABAIMEN OSOA

899 €

BEZ-A BARNE

Eskaintza urte amaiera arte

'Ura bere bidean', abesbatzen bertsoan

Papargorri abesbatzak emanaldi berezia izango du Buesa Arenan irailaren 23an. Fair Saturday fundazioak bultzatutako 'Ura bere bidean' ekimenean parte hartuko dute. Fernando Velazquezek bertsonatutako abestiak kantatuko dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Ura bere bidean ekimenak abesbatzen bertsoa izango du aurtengo ekitaldian; bada, Aramaio-ko Papargorri abesbatzak ekitaldian parte hartuko du. Dagoeneko kontzertuaren data jarrita dago: irailaren 23an izango da, Gasteizko Buesa Arenan. Sarrerak salgai daude *ura-berebidean.eus* atarian.

Papargorri abesbatzako zuzendari Larraitz Arriolabengoa pozik dago ekimenarekin, eta hala jakinarazi zuen joan den egunean kultura etxean eskaini zuten *Rock Eskola* musikalean.

Abesbatzei aukera ematea

Lehenengo aldiz egingo dute *Ura bere bidean* ekimena abesbatza formatuan. "Mundu koralaria aukera eman nahi zaio; *Ura bere bidean* ekimeneko kantuak abestuko ditugu, Fernando Velazquezek moldatuta", azaldu du Arriolabengoa.

2022ko ekitaldian abestutako abestiak kantatuko dituzte Buesa Arenan: 500 haur baino gehiago elkartuko dira, eta Papargorri abesbatzakoak 27 kide izango dira. Kantatuko dituzte, besteak beste, Izaroren *Paris*, Su Ta Garren *Mari*, EH Sukarra, Mikel Urdangarin, Gatibu, Bulego... Artista gonbidatu bat ere izango dela aurreratu dute antolatzaileek, baina oraindik ez dute izenik esan nahi.

Entseguak hasi dituzte

Papargorriko kideek dagoeneko badauzkate kontzertuko egitaraua eta partiturak; hala, entseguekin hasita daude. "Irailan izango ditugu hiru entsegu komun Buesa Arenan, eta, ondoren, kontzertu eguna", azaldu du Arriolabengoa. Zuzendariak nabarmendu du ahots bakarreara abestuko dutela hurrek, eta, alde horretatik, abestiek ez dutela zailtasunik izango; gainera, aramaioarren kasuan, abestiak



Papargorriko gaztetxoak, *Rock Eskola* musikalean. SERGIO AZKARATE

Fair Saturday fundazioa

Fair Saturday fundazioak bultzatutako proiektu berritzailea da *Ura bere bidean*; hainbat belaunalditako euskal artisten musika-topaketa eta euskarazko musika-ondarea sortzeko helburua du ekimenak. Fernando Velazquez musika konpositore ezaguna eta saritua dago proiektuaren barruan; hark bertsonatutako abestiak interpretatzen dituzte euskal abeslari ezagunek.

2023ko edizioko kontzertua urriaren 28an izango da, Barakaldon, BECen, 20:00etan. Estilo eta belaunaldi askotariko artistek parte hartuko dute: besteak beste, Doctor Deseoko Francis Diez; Parabellum; Delirium Tremenseko Andoni Basterretxea; Sorotan Beleko Urbil Artola eta Gorka Sarriegi; Gozategiko, Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea; Mikel Urdangarin; Gatibu, Zea Mays...

euskaraz izatea ez da eragozpena izango.

Iaz jaso zuen Arabako Haur Federazioak *Ura bere bidean* ekitaldian parte hartzeko gonbidapena: "Fair Saturday inaugurazioan, Bizkaiko koruek parte hartu zuten, eta ikusteko gonbidapena jaso genuen, zer egin genezakeen ikusteko. Ikustera joan nintzen eta benetan harrituta geratu nintzen. Izugarria da". Kontzerturako joango diren ikusleek ere abesteko aukera izango dutela gaineratu du Arriolabengoa.

"Opari hutsa da"

Papargorrirendako eta Papargorriko kide diren gaztetxoendako ekimenean parte hartzea "oparia" dela dio Arriolabengoa. 6 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek parte hartuko dute kontzertuan.

2020ko ekitaldian Idoia Asurmendi aramaioarrak parte hartu zuen ekimenean. Emanaldi berezia egin zuen aramaioarrak Iberdrola dorreko heliportutik. Online egon zen ikusgai emanaldia, eta, hain zuzen ere, lortutako dirua Papargorri bideratu zuen.



Aramaioko umeak udalekuetan. A.E.G.

la 100 ume ibiliko dira udalekuetan hilaren 21era arte

2 eta 12 urte bitarteko haurrak taldeetan banatuta ibiliko dira euren propio antolatutako jolasetan

A.E.G. ARAMAIO

Udalak antolatu dituen uztaileko udalekuetan 94 ume eman dute izena. Eguaztenean hasi zituzten udalekuak: 10:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegia izango dute, uztailearen 21era arte.

Hamar begirale egongo dira haurrekin eta beste bi begirale praktikak egiten ibiliko dira. Askotariko ekintzak egingo dituzte: udaleku hezitzaileak izango dira, eta kamisetak margotuko dituzte, eskulanak egin, auzoetara irteerak, sukaldaritza tailerrak...

Gazte Uda!

12 eta 16 urte bitarteko gazteen dako eskaintza astelehenean hasiko dute: Musika eta Arte udalekuetan abesti bat sortuko dute, eta, ondoren, abestiaren irudi-diseinua sortu eta serigrafia egin. Natura eta Udalekuak eskaintzan hainbat irteera egingo dituzte: uztailearen 18tik 20ra hainbat ekintza egingo dituzte, arratsaldeetan; 21ean eta 22an Albinara joango dira eta 26an hondartzara joango dira. Txangoetan bakarrik parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko da irteera bakoitzeko.

Zazpi batzorderekin jarraituko du Udalaren funtzionamenduak

Alkateak izango duen soldata ere onartu dute: 43.258,44 euro, hamalau ordainsaritan banatuta

A.E.G. ARAMAIO

Udalbatza berriaren funtzionamendua onartu dute. Orain arte izan dituzten zazpi batzordeekin jarraituko dute lanean aurrerantzean ere. Batzordeburuak izango dira: Ogasuna, Antolaketa eta Funtzionamendua batzordea, Iban Herrarte; Zerbitzuak, Iker Ezpeleta; Euskara eta Hezkuntza, Amaia Pavon; Kultura eta Kirola, Libe Ramila; Ingurumena-basoak, Asier Agirre; Hirigintza-auzoak, Martin Arriolabengoa; eta Gizarte Ongizatea -Iban Herrar-

te- eta Berdintasuna -Amaia Pavon eta Libe Ramila-. Antolakuntza zehazterakoan, alkatearen ordezkakoak onartu zituzten: Libe Ramila, Martin Arriolabengoa eta Iker Ezpeleta izango dira ordezkakoak, hurrenez hurren. Gainera, izendatu zituzten udal talde politikoen bozeramaileak: EH Bilduren bozeramailea Amaia Pavon izango da eta EAJrena, Alberto Amenabar.

Alkatearen ordainsaria ere onartu zuten: 43.258,44 euro, hamalau ordainsaritan.

SANMARTINAK 2023 ARAMAION



Astelehen gaueko herri afaria. AITOR AGIRIANO



Edurne Isazelaia eta Dioni Elorza txupinazoa botatzen. A.A.

Gozatu ederra hartu dute jaietan aramaioarrek

Duela gutxi itxi duten Dukiena jatetxeko ugazaba Edurne Isazelaia eta Dioni Elorzak botatako txupinazoarekin hasi zituzten festak barikuan. Astelehenera arte iraun dute, eta udal ordezkariak pozik daude antolatutakoarekin eta herritarren erantzunarekin

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO San Martin jaien biharamuna ganean dute aramaioarrek oraindik ere. Barikuan hasita, lau egunez ibili dira parrandan. Balorazio ofiziala oraindik egiteke duten arren, Kultura zinegotzi Libe Ramilak azaldu du oso ondo joan direla jaiak, parte-hartzea oso ona izan dela eta ez dela erasorik gertatu. Anbotoko Mariren jaitsierarekin hasi zituzten jaiak barikuan; aurtan, berritasuna izan du ekitaldiak. Biolin doinuek girotuta hartu zuen hitza Marik. Mezu berezia aldarrikatu zuen: "Herri

bizi batek jai biziak behar ditu". Bada, halaxe izan direla azaldu du Ramilak, herri bizia dela erakutsi duela Aramaio jaietan.

Zorion mezuak

Aurtengo txupinazoa bota dute 33 urtez Dukiena jatetxea aurrera eraman duten Edurne Isazelaia eta Dioni Elorzak. "Oso gustura geratu ginen txupinazoaren egunean. Jendearen partetik zorion ugari jaso genituen", dio Isazelaia.

Ramilak nabarmendu du haur jaioberrien ekitaldiko uanean euria egin izana "pena" izan

zela; hala ere, harreraren ondoren Lagun Artean dantza taldeak egindako ekitaldia "zoragarria" izan zela gehitu du. Dantza taldeko hiru lagun omendu zituzten (Ondoko argazkian).

Musikaz gozaten

Kontzertuek harrera bikaina izan dute. "Gazte Asanbladak antolatutako *Green Grass* ekitaldian ia herri guztia egon zen. Hunkigarria izan zen", dio Ramilak. Herri afarian giro bikaina izan zutela gehitu du. Aurtengo Urrezko Gibela saria Izaro Diazek irabazi du.



Rosa Mondragon, Maider Bidaburu, Oihane Vicente –irakaslea– eta Mila Kortabarria. A.A.



Kadrillen arteko pikeko irabazleak: Skykraft taldea. A.A.

Kristalak apurtu dituzte

Aramaio Udalak salatu du kristalak apurtu dituztela eskolan. Joan den astean izan ziren apurketak. "Gertaera larria da, eta horrelako ekintzak gogor salatzen ditu Udalak", azaldu du Udalak ohar bidez. Gainera, laguntza eskatu dute: norbaitek zerbait ikusi badu, udaletxean informa dezala. Bestalde, gurasoei gogoratu diete gaia etxean lantzeko.



ARAMAIOKO UDALA

Uribarriko auzotarrek antolatuta, San Kristobal eguna

San Kristobal eguna ospatuko dute etzi, domeka, Uribarriko auzotarrek antolatuta. 12:00etan, meza izango dute, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta. Elizkizunaren ondoren, bertso-lariek eta trikitilariak girotuko dute San Kristobal ermitaren aurrealdea. Bertsoan aramaioarrek ibiliko dira; hain zuzen, Xabi Igoa eta Aitor Ugarte anaiak.

Musika jotzen, aldiz, Berriatutik eta Itziartik etorrita, Izar eta Naiara trikitilariak arituko dira. San Kristobalera joango direnek edatekoa eta pintxoak izango dituzte aukeran.

15:00etan, auzo bazkaria izango dute. Bazkalostearen ondoren, umore onik eta musikarik ez da faltako; eta, ospakizuna amaitzeko, bolo txapelketa izango dute. 17:00etan hasiko dute txapelketa. Modu horretan, San Kristobal eguna ospatuko dute, beste behin, aramaioarrek.

Korterraza lanen aukeraketa, gaur, 22:00etan, kalean

Korterraza film laburren jaialdiaz gozatzeko aukera egongo da gaur. Atzo, eguna, egin zuten lehen emanaldia; gaur, beste saio bat eskainiko dute, 22:00etan, elizako eskaileretan. *Mix* sailerako aukeratutako lanak izango dira: haurrentako proiektzioa, 20 minutu ingurukoa; eta, ondoren, urteko film laburrik eta komediarik onenak.

"Melillan migratzaileen egoera harrigarria da"

MATILDE AIZPURUA GIZA ESKUBIDEEN IKERLARIA

Orain dela hiru aste, Melillan izan zen aretxabaletarra, migratzaileek bizi duten egoera ikertzen; giza eskubideak nola urratzen dituzten bizi izan du gertutik

Mikel Zumalde Etxabe ARETXABALETAKO Matilde Aizpurua aretxabaletarra Melillan izan berri da, Gobernantza eta Giza Eskubideei buruzko masterreko praktikak egiten. Migratzaileek bizi duten egoera ikertzen aritu da, eta harrigaita da egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen giza eskubideak nola urratzen diren ikusita.

Melillan migratzaileek bizi duten egoera ikertzen aritu zara, masterreko praktiken kontura. Nolan, bada?

Melillara joan nintzen, hango egoera oso berezia delako. Ekainaren 24an urtebete bete zen Melillako harresian gertatu zen masakretik, eta Caravana Abriendo Fronteras egitasmoak ibilbide bat egin zuen herrialde osoan, eta Melillan amaitu zuten manifestazio batekin eta hitzaldi batzuekin.

Zenbat pertsonarekin aritu zara lanean?

Zaila da jakitea, zehazki ez daudelako erregistratuta. Batzuk joan egiten dira eta beste batzuk, berriz, etorri. Gu egoten ginenekin, gazte marokoarrek... berrogei bat inguru ziren.

Zer aurkitu duzu han?

Egoera nahiko harrigarria da, ez baitago sare bat jende horri harrera egiteko eta dituzten beharrak asetzeko. Guztia, musu-truk, elkarteek eta boluntarioek egiten dute.

Zerk harritu zaitu, bereiziki?

Orain egoera berezi bat dago; izan ere, Marokok muga itxita dauka; ez da erraza hesitik pasatzea. Melillan marokoar asko daude igerian datozenak, baina Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik datozen pertsonak ez daude hainbeste. Migratzaileentzat dagoen zentro bat, adibidez, hutsik dago orain.

Eta zein izan da zure lana Melillan, zehazki?



Matilde Aizpurua, irribarretsu. MATILDE AIZPURUA

"GEHIEN HARRITU NAUENA DA MODU LOTSAGABEAN NOLA URRATZEN DIREN GIZA ESKUBIDEAK"

Azkenean, pertsona horiek dituzten beharrei erantzutea da, eta pertsona batetik bestera beharrak aldatzen doaz. Adibidez, arratsaldeetan areto bat zabaltzen da, eta hara etortzen dira mutikoak. Han denetarik egiten dute; Gaztelaniaz ikasi, eskuko telefonoa kargatu, prozesu administratiboan laguntza jaso, aholkularitza juridikoa, medikuarengana joateko laguntza eskatu... Behar dutena eskatzera etortzen ziren. Horren ostean, kaleko txoko batean afaria ematen zaie.

Haiekin hitz egiten duzunean, zer kontatzen dizute?

Komunikazioa zaila da haiekin; gehienek ez dakite gaztelaraz hitz egiten. Batzuek ingelesez zerbait badakite, baina gutxiak. Elkartean Melillako bi pertsona zeuden marokoar familia zutena, eta haiek egiten zizkiguten itzul-

pen lanak. Ez dute arazorik haien bizitza kontatzeko, baina arrazakeriaren kontrako aldarrikapenak egiten dituztenak beste momentu batean egoten dira; ez, agian, Melillara heldu berri. 17 urtetik 23 urte bitarteko jendea dago, eta haiek kontatzen dizute zer nolako bizitza zuten Marokon, orokorrean bizitza prekarioak, eta nola heldu diren Melillara; batzuk frontieraren beste aldekoak dira, baina beste asko urrutitik datoz.

Zuri zer eman dizu esperientzia horrek?

Gehien harritu nauen gauza izan da zer modu lotsagabeen urratzen diren giza eskubideak, eta ez dagoela inolako erantzunik. Adingabekoen zentroan, askotan, ezin dute urrik edan bazkaritan eta afaritan.

Aurrerantzean, gustatuko litzaizuke horrelako ekintzetan parte hartzen jarraitzea?

Bai, gustatuko litzaidake sortu ditudan harremanak mantentzea eta, horri tiraka, noizean behin, jarraitzen joatea. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko kideak joan izan dira Melillara, eta haiekin berriro itzultzea gustatuko litzaidake.

Abian da Udalaren haur eskola zerbitzuaren lizitazioa

Kontratazio mota aldatu egingo dute eta eskaintzak aurkezteko azken eguna uztailaren 26a izango da

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Pausoka haur eskolak ematen duen zerbitzua lizitaziora ateratu du Aretxabaletako Udalak; 0 eta 3 urte arteko umeei bideratutako zerbitzua da.

Udal Gobernuak aditzera eman du orain arte haur eskolak zeukan kontratazio mota aldatu egingo dela lizitazio berri horrekin. Aldaketaren arrazoiak zeintzuk diren zehaztu du: alde batetik, zerbitzuaren ezaugarri malgutasuna eta segurtasuna ematea, eta, bestetik, datozen urteetan haur eskolak dituen

erronkei hobeto aurre egin ahal izatea.

Bi urterako

Lizitazioa 436.836 eurotan ateratu da eta bi urterako izango da –urtebeterako, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin–. Uztailaren 26a arte izango dute lizitazioa eskaintzak aurkezteko epea zabalik. Horren ondorengo egunetan irekiko dituzte jasotako eskaintzak, eta Udal Gobernuaren asmoa da irailerako bukatuta egotea prozesua.



ARETXABALETAKO UDALA

Txarapeako ezponda, bukatzeaz

Txarapeako 40. eta 42. etxebizitza-blokeen atzealdeko ezponda egonkortzeko lanak bukatu direla jakinarazi du Udalak –ukitu batzuk faltan–. Martxoan hasita, Miramar Gunitados enpresak jardun du horretan. 394.335 euroko kostua izan dute eta 187.548 euro dirulaguntza bidez jaso dira. Hango bizilagunen pazientzia eskertu gura izan du Udalak.

Zabalik da Imersoko eskabideak aurkezteko epea

Imersok abian jarri du Turismo Programaren 2023-2024ko denboraldia, eta hainbat bidaiari eskaini ditu. Eskaerak aurkezteko epea zabalik izango da uztailaren 25a arte, eta, horretarako, Udalaren Prebentzio Zerbitzura jo behar da astelehen, astearte edo ostiraletan. Imersoren webgunearen bidez ere egin daiteke: <https://sede.imerso.gob.es>.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

"Trankil bizi behar da" 100 urtetik gora hartzeko

Laureana Bolinaga Uriarte 1920ko uztailaren 4an jaio zen, Udalean duten eroldaren arabera; hark, ostera, 102 urte ospatu zituen. Edozelan ere, badira urte batzuk, eta umorea galdu barik egin du bizitzan aurrera, burua argi eta osasuna lagun

Mirari Altube ARETXABALETA

Aozaratzak auzoko Urrutikoa baserrian jaio zen Laureana Bolinaga Uriarte, zortzi anaia-arrebak osatutako familian. "Ahizpa batek eta biok uztailaren 4an ospatzen genuen urtebetetzea; hura 1923koa zen eta ni, 1921ekoa", azaldu du. Hala ere, Udalaren erroldak dio urtebete lehenago jaio zela. Familiarekin –hiru seme-alaba, lau iloba eta zazpi biloba– joan den zapatuan ospatu zuen urtebete gehiago egin izana, eta martitzenean ere hainbat opari jaso zituen.

Eskolan, gazteleraz

Auzoko eskolan egin zituen ikasketak: "Aozaratzakook gazteleraz genekien, Don Fermin maisuak zigortu egiten gintuelako euskaraz eginez gero, eta Goroetakoek, ostera, ez zekiten. Orduan kategoria handia zen hori".

Ondo akordatzan da gerra saioiarekin, eta "garai gogorra" izan zela dio: "Atxorrotx aldetik hegazkinak etorri eta paperak botatzen zituzten; iragarkiak ziren. Kaletik etorri zen jendea auzoetara: Bilbotik Ugastegira... Pentsa, "gora errepublika!" esa-teagatik bakarrik eraman zuten Goroetako bizilagun bat. Guri esaten ziguten belarriak zabalik eta ahoa itxita egoteko".

Zortzi urte Taberna-Berrin

Taberna-Berri jatetxean zortzi urte egin zituen lanean, eta deskantsurako unerik ez zegoela du gogoan: "Ez zen jaiegunik egoten. Behin, zerbitzari batek baimena eskatu zuen plazan zegoen dantzaldira joateko, eta baietza eman zioten; baina dantzan egin orduko itzuli behar izan zuen lanera".

Paseatzea gustuko izan du beti, inguruko bazterretara eta mendira joatea: "Lagun artean joaten ginen: Arantzazura, Urkiolara... Besterik ez zegoen orduan, eta

telebistarik ere ez!". Ia ehun urte bete arte ibili izan da hara eta hona oinez; sarritan, bakarrik.

Urteak, banan-banan

Ez du gaixoaldi larririk izan. Pandemia garaian, baina, erori egin zen eta mokorra apurtu zuen; ordutik hona, aulki gurpildunean irteten da kalera. Dio ezinbestekoa dela ardurarik gabe bizitzea: "Trankil bizitzea baino hobirik ez dago". Eta urteak betetzen jarraitu gurako luke. "Baina aldiro bat, asko ditut eta!", dio, umoretsu.



Laureana Bolinaga, etxeko egongelan, martitzenean. MIRARI ALTUBE

Eguenean hasiko dira girotzen Portasol inguruak jaiei begira

Gazte talde batek jardun du antolatze lanetan, eta lau eguneko egitarau bete-betea prestatu du

M.A. ARETXABALETA

Portasol auzoko jaiek ez dute hutsik egingo, eta lau eguneko egitarauarekin datoz aurten. Ur-jolasekin ekingo diete jaiei uztailaren 13an, txosnagunean –kiroldegi aurreko berdegunean, skate parkearen alboan–, eta, ondoren, ohiko pintxo-potea izango da; 21:30ean, kilometro-kontagailuaren aurkako lehenengo lasterketa egingo dute.

Gazte talde batek hartu du antolatze lanen ardura, eta ahal legin handia egin dute ekitaldi arrakastatsuei eutsita berriei

lekua egiteko. Musikak leku garrantzitsua izango du eta askotariko estiloek egingo dute bat txosnaguneko oholtzan. Egubakoitzean, hilaren 14an, rock eta punk doinuak izango dira, Youth United, Laino Beltzak eta Oihu! taldeekin; eta zapatuan, doinu dantzagarriak Bixentak taldearekin eta trapa gauean, Etxepe, Denso, Mutiko, Tatta eta beste hainbatekin.

Auzo-bazkaria ere izango da zapatuan, eta txartelak salgai daude Ibarra, Aretz, Dorleta eta Txiki tabernetan, 10 eurotan.

GORA ETA BEHERA



Informazio nahasia Urkuluko panelean



Urkulu urtegian informazio-panel bat jarri dute eta herritar batek dio idatzitakoa ez dela erabat zuzena, alde batean *Deba ibaiaren arroa* jarri arren bestean *Oiartzun erreka* jartzen duelako.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Durana
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Txapelketaren antolatzaileak eta parte hartuko duten taldeen ordezkariak. OIER ZUMARRAGA

Ibilbide luze eta oparoa duen egitasmoa itzuli da

Portasolgo jaiekin bat eginez, Aretxabaletako futbol zelaian kuadrillen arteko futbol txapelketa jokatu da uztailaren 15ean. Tradizio luzeko txapelketa horrek bailarako lagun taldeak elkartuko ditu. Izen-emate epea zabalik dago uztailaren 10era arte

Oier Zumarraga ARETXABALETA

Bailaran dagoeneko ohitura bilakatu dira kuadrillen arteko futbol txapelketak. Arrasaten Zaldibarko txapelketa, Bergarako, aurtun Eskoriatzako areto futbol txapelketa... Aretxabale-takoak, baina, badu tradizio luze eta aberatsa. 30 urte baino gehiago daramatzate lehiaketa antolatzen, eta historian zehar askotariko aldaketa eta birmoldaketak bizi izan ditu.

Hasiera batean, Iturrigorri pilotaleku ondoko kantxan jokatzen zen, areto futbol txapelketa gisa. Ondoren, Arlutzeko jokalekura salto egin zuen, eta garai hartako parte-hartzaileek 35 talde inguru biltzen zirela baieztatu dute. Alboko herrietako talde mordoxka bat ere animatzen zen, bertan bizitzen zen giroak bultzatuta. Taldeek aste osoan zehar zituzten kanporaketak eta antolatzaileek egitarau mardula prestatzen zuten herriko ostalariekin batera. Arlutzeko kantxa ingura-

tzen zuten hesiak jendez lepo egoten ziren. Zalaparta handia egoten zen neurketen harira; batik bat, neurketak aretxabaletarrek eta arrasatearrak biltzen zituenean. Lehiakortasun handiko norgehiagokak izaten ziren, baina, azkenean, giro osasuntsua gailentzen zen. Gaur egun, Ibarako zelai artifizialean jokatzen da, nahiz eta, betiko lehiakortasunak bere horretan jarraitzen duen.

Txapelketan parte hartzeko

Debagoieneko kuadrillen arteko IX. futbol zazpi txapelketan parte hartzeko epea zabalik jarraitzen du uztailaren 10era arte. Portasol auzoko jaiekin bat eginez, uztailaren 15ean bailarako lagun

"GAZTETAKO OROITZAPEN POLITAK ETORTZEN ZAIZKIT TXAPELKETAN"

AITOR PEREZ, SPAT TALDEKO JOKALARIA

taldeek hitzordua edukiko baitute Ibarra futbol zelaian. Pandemi aurretik egin gabe zegoen, eta bertan lehiatzeko baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa -2007an jaiotakoak barne- izatea da. Talde bakoitzaren arduradunak bere izena eta telefono-zenbakia eman beharko ditu, baita 130 euro sartu ere Laboral Kutxako kontu korronte honetan: ES9330350002160020703093. Eta taldearen datuekin formulario bat bete beharko dute. Parte hartzeko, uda.kudeatzaileak@gmail.com helbidera idatzi edo 635 20 64 33 Whatsapp zenbakiarekin kontaktuan jarri beharko da.

Lehenengo hiru sailkatuek sari ekonomikoa jasoko dute: irabazleek diruaren %60 jasoko

"EMAITZETATIK HARAGO, OSO ONDO PASATZEN GENUEN LAGUNEN ARTEAN"

DORLETA EZEIZA, JOKALARI OHIA



OIER ZUMARRAGA

"Jendea gogotsu ikusten dut"

RICARDO SOARES
ANTOLATZAILEA

Ricardo Soaresek aurtengo kuadrillen arteko txapelketa antolatu du, Iker Gomezen laguntzarekin.

Nola dator aurtengo edizioa?

laz futbol zelaiko obrak zirela-eta ezin izan zen antolatu, eta, lau urteren ondoren, zerbait berezia egin nahi izan dugu.

Egongo da berezitasunik aurreko urteekin alderatuz?

Sari bereziak egongo dira jokalaria onentzat eta otarre oso potoloak zozketatuko dira errifon bitartez.

Zer dela-eta antolatu duzue berriz ere?

Txikia nintzenetik Portasolgo jaiekin lotzen dudana txapelketa da eta jendea gogotsu dagoela uste dut. Aipatu beharra daukat herriko merkatariek asko lagundu digutela, beste behin eta oso eskertuta gaude.

dute, txapeldunordeek %30 eta hirugarrenek %10. Berezitasun gisa, herriko merkatarien eskutik atezain onenari, gol gehien sartzen dituenari, txapelketako jokalaria onenari eta talde animosoenari sariak banatuko dizkiete.

"EGUN OSOKO PLANA DA: FUTBOLEAN JOKATU, BAZKARIA ETA PARRANDA"

IBAI ZANGITU, ANTOLATZAILE OHIA

UDAk ohiko eta ezohiko batzarrak egingo ditu Arkupen

UDA taldea dagoeneko datorren denboraldiari begira jarrita dago. Egubakoitzean ohiko eta ezohiko batzarrak egingo dituzte Arkupe kultur etxean. Ohiko batzarraren lehen deialdia 17:30erako zehaztu dute eta bigarrena, 18:00etarako. Ezohiko batzarraren lehen deialdia 18:30ean da eta bigarrena, berriz, 19:00etatik aurrera.

Taldeko zuzendaritzak aurreko batzarreko aktaren onarpena, iazko denboraldiaren balorazioa eta diru kontuak, 2023-2024ko denboraldiaren aurkezpena eta diru kontuen onarpena egingo ditu. Bertaratutakoek proposamenak, eskaerak edo galderak egiteko aukera izango dute.

Uztaila alaitzeko, zirkua eta antzerkia gazteenentzat

Uztailako arratsalde beroak girtzeko, aretxabaletarrek Zirkoloretsuaren zirkua emanaldiaz eta Trapu Zaharraren *¡Dale Ramon!* antzerkiarekin gozatzeko aukera izango dute astean zehar.

Zirkua uztailaren 11n izango da, 19:00etatik eta 20:00etara, Herriko Plazan. Malabarrekin, magiarekin eta pailazoekin batera, Ion Begiristainen abenturak izango dira protagonista. Uztailaren 12an, berriz, Trapu Zaharraren *¡Dale Ramon!* antzerkiak hartuko du Durana kalea. 19:00etatik 20:00ak arte, antzezlanak idi-probak irudikatuko ditu probaleku eramangarri baten gainean. Publikoak zuzeneko apustua egiteko aukera izango du.

Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa, amaitzear

Proposamenak jasotzeko epea uztailaren 7arte egongo da zabalik eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

Kartelaren ilustrazioaren teknika librean izango da eta DIN-A3ko neurria izan beharko du. Lanak posta arrunt bidez edota posta elektronikoki bidez entregatzeko aukera dago. Uztailaren 18an jakinaraziko dute irabazlea.

ANTZUOLAKO JAIAK 2023



Jaiak hasteko, dantzak

Udalbatza berriko kideak dantzan • Umeei eta zaharrenei zapia
Joselu Anaiak eta jaietako musika guztia • Mairuaren Alardea

AITOR AGIRIANO

*Umorez, euskaraz eta
elkar zainduz goza dezagun!*



ANTZUOLAKO
UDALA

www.antzuola.eus

JAIETAKO EGITARAUA

ZAPATUA 8

18:00 PILOTA JAIALDIA. Lehen partida: Nagore Galeano eta Leire Galeano, Natale Aranbururen eta Olatz Insaustiren kontra. Bigarren partida: Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi, Ander Muruaren eta Iker Elizegiren kontra.

DOMEKA 9

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA. 76. Antzuola saria, 30. Iñaki Leteren oroimenezkoa.

14:15 JUBILATUEN BAZKARIA. Herri ikastetxean.

EGUENA 13

12:30 JAIEN HASIERA: txupinazoa eta umeen ikuskizuna, plazan. Udalekuetako begiraleen eskutik.

13:30 UMEEN BAZKARIA, Pausokaren eskutik.

18:00 KALEJIRA Alboradak txistulari

taldearekin eta trikitilariekin, eta buruhandiak.

19:00 TXOSNAK IREKITZEA.

19:45 ANTZUOLAKO ZAPIA JARTZEA 2022ko eta 2023ko jaien bitartean jaietako umei eta herriko bi nagusienei.

20:00 IKURRIN DANTZA, Oinarin dantza taldearekin, Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea eta udalbatza berriaren aurrekoa.

21:30 KANTU AFARIA. Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin, Plazan.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA.

00:30 XUGUXEN KONTZERTUA txosnetan. Janire Garitanoren eta Irati Lizarralderen eskutik jokoak.

01:00ak arte, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIK, Plazan.

EGUBAKOITZA 14

10:00 TXISTULARIEKIN GOIZ-ERESIA.

11:00-13:00 JOLAS PARKEA patioan.

13:00 ERIZ MAGOA plazan.

14:30 HERRI BAZKARIA, Kalebarrenen, Euskal Parrillaren eskutik.

16:30-18:30 JOLAS PARKEA patioan.

18:00 KUADRILLEN JOKOAK, Zurrategin, Deidar txarangarekin eta txarangaren kalejira.

22:00 ERROMERIA LISKER taldearekin, plazan.

22:00 RODEO, TRINI FOX ETA LETAGIN taldeen kontzertua. Txosnetan. Ondoren, erromeria: EMAION.

ZAPATUA 15

09:55 KANOIAK SUTZEA.

10:00 DIANA Alboradak txistulariekin.

11:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA.

12:00 UMEENTZAKO IKUSKIZUNA, Plaza *abordaia!*, Deabrukeriak taldearekin. Plazan.



Kuadrillen arteko jokoak. AITOR AGIRIANO

12:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA. Enrike Txurrukaren zuzendaritzapean, Zurrategin.

13:30 UR ZEZENA.

19:00 ANTZUOLAKO ALARDEA.

20:30 SKAPAIE ELEKTROTXARANGAREKIN KALEJIRA.

22:45 JOSELU ANAIK taldearekin erromeria. Plazan.

23:00 Kontzertuak: NO LIMITS, AÑUBE, ETEN, DJ TINTZ. Txosnagunean.

DOMEKA 16

07:00 SKAPAIE ELEKTROTXARANGA, Txosna Batzordeak antolatuta.

12:00 SALDA ETA TXORIZOA. Landatxope jubilatue elkartearen eskutik, plazan.

12:30 TIERRA DE MIS AMORES MARIATXI TALDEA, dantzari bikotearekin, plazan.

13:30 UR ZEZENA.

14:30 HERRI BAZKARIA elizpean. Ondoren, Garazi Barrera eta Asier Sala musikariak. *Ez dot moztuko bizarra* taldeak antolatuta.

18:30 TRIALSINA, kanpo beltzean.

20:00 LARRAIN DANTZA, Oinarin dantza taldearen eskutik, Zurrategin.

20:30-00:00 Erromeria plazan: IRATZAR.

21:00 ELENE ETA MADDIREN KONTZERTU AKUSTIKOA, txosnetan.


00:00 HONTZAREN IGOERA.

ZAPATUA 23

09:00 ERREKA GARBITZEA AUZOLANEAN. Ondoren, hamaiketakoak.

amaia

Ondo ibili jaietan!!



Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91

ERREKA

Gora Antzuolako jaiak 2023!



Connected Access

Plastics

Smart Fastening

Care

Medical

www.erreka.com

Euskal dantzak, jaien hasierako ekitaldi

Oinarin taldeko gazteenek egingo dute Antzuolako jaien irekierako ekitaldia; eta udalbatzako zazpi kidek hartuko dute euren lekukoa horren ostean, soka dantza dantzatzuz. Oinarin taldeak berak erakutsi die zinegotziei dantza

Miren Arana Pagaldai ANTZUOLA

Beste behin, euskal dantzek emango diete hasiera Antzuolako jaiari. Uztailaren 13an hasiko dira festak, eta, urtero bezala, Oinarin taldeko gazteenek egingo dako ikurrin dantza izango da eguneko lehenengo ekitaldia; hain zuzen, 12:30ean izango da ikuskizuna, eta 8 eta 11 urte bitarteko 41 umek beteko dute plaza dantzan. Haurrek dantza amaitu bezain laster botatzen da jaien hasiera adierazten duen txupinazoa, eta zinegotzien txanda iritsiko da ostean: tradizioari jarraiki, udalbatza berriko zazpi kidek soka dantza dantzatu dute plazan.

Lehenengo aldiak

Kurtsoari amaiera emango diote haurrek jaietako ekitaldiarekin, eta dantzetan hasiberriak diren umeak arduratuko dira hori aurrera eramateaz; batzuek Haur Dantzarien Egunean eta Aratusteetan dantzatu duten arren, askorentzat jendaurrean dantza egingo duten lehenengo aldia izango da. Honela adierazi du Oinarin taldeko kide Ion Lizarazuk: "Taldeko gazteenak aritzen dira plazan, normalean; jendaurrean dantza egiten duten lehenengo aldia da, gehienena, behintzat, eta horrek beti sortzen du inpresioa".

Jaietako hasiera ikuskizun "jendetsua" izan ohi da, dantzariaren hitzetan: "Haurren familiakoak eta lagunak batzen dira dantza ikusteko, eta herriar asko elkartzen dira txupinazoa eta osteko zinegotzien soka dantza ikustera ere".

Zinegotziak, dantzan

Udalbatzako zazpi kidek hartuko dute txupinazoaren ondoren umeen lekukoa: EH Bilduko bost zinegotzik eta EAJko beste bik dantzatu dute aurtengo soka dantza. Antzuolako alkate Olatz Lezetak adierazi du ekainaren 6tik



2022ko Antzuolako jaietan egindako ikurrin dantza. IMANOL SORIANO

asteartero entseatzeko dutela, eta "posible" duten heinean entsegu guztietara joaten direla: "Jendaurrean dantzan arituko garen lehenengo aldia izango da, eta ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara".

Plazan jendaurrean dantzatzeari "errespetua" diotela ere badio alkateak: "Propioa ez den esparru batean herri osoaren aurrera irriteak errespetua sorrarazten dit; hala ere, ondo irritea eta gustura gelditzea espero dut".

Eskerrak Oinarini

"Eskerrak Oinarini, bestela ezinezkoa litzateke", dio Olatz Lezetak, "pazientziarekin" pauso guztiak erakutsi baitzizkio Oinarin dantza taldeko kide batek.

Antzuolako dantza taldeko Ion Lizarazu izan da "pazientziadun" irakasle hori; haren hitzetan, "entsegu dezente" egin dituzte eta "konpromisoz" hartu dute dantza. Hartara, Oinarineko dantzariak plazan dantza egiteko "ongi eta prest" ikusten ditu zinegotziak.



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA




Ondo ibili jaietan!

Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Gora Antzuolako jaiak!

Zurrategi 4, behea • 943 78 71 80 • 637 436 500 • harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com



Herriko nagusi biri eta jaioberriei aitortza

90 urte bete berritan, Pako Legorburu omenduko dute eguenean; 94 urte dituen Carmen Moureri ere zapi berria jarriko diote udal ordezkariak; eta 2022ko herriko jaietatik 2023ko jaietara jaiotako hamaika haurtxoei ongietorria egingo diete

Mikel Zumalde Etxabe ANTZUOLA

Beste urte batez, Antzuolako jaien bueltan, herriko nagusi biri eta 2022ko eta 2023ko jaien artean jaiotakoei aitortza eta omenaldia egingo diete Herriko Plazan, udaletxearen atarian. Dagoeneko herrian errotua dagoen ekitaldia da, batzuek zein besteek gustura hartzen dutena. Ekitaldia uztailaren 13an izango da, eguena, 19:45ean, Herriko Plazan. Hala, 90 urte egin berritan, Pako Legorburu antzuolarra omenduko dute. Legorbururekin batera aitortza jasoko du Carmen Mourek. Biek gustu handiz jaso dute Udalaren proposamena.



lazko ekitaldian, gurasoa haurrari zapia jartzen. IMANOL SORIANO

Pako Legorburu jaiotzez Antzuolako Ugarte Torre baserrikoa da. 90 urte ditu eta betidanik bizi izan da Antzuolan. Omenaldi xumea izan arren, momentu polita izaten da, eta aurten ere jendea bilduko da udaletxeako atarian. Jone Larrañaga Antzuolako Udaleko Kultura teknikaria da, eta azaldu du ekitaldia "errepikakorra" ez izateko urtero pertsona ezberdinei egiten dietela omenaldia. Pako Legorbururen kasuan, ez da herrian urte gehien dituen pertsona, baina dagoeneko adineko beste askori omenaldia egin izan diete, eta aurten hari proposamena egitea erabaki dutela azaldu du Larrañagak.

Carmen Moure 70eko hamar kadan iritsi zen Antzuolara, Galiziatik, eta haziak Pontevedran eta Coruñaan ditu. 94 urte ditu, 1929ko urrikoa baita, eta bizitza ia osoa egin du Antzuolan. Familiaren hitzetan, Moure oso "eskertuta" dago Antzuolako Udalak egin dion proposamenagatik, eta, Legorburuk bezala, gogo "handiz" jaso du ekitaldira joateko gon-

bidapena. Aspalditik Errekalde auzoan bizi dira, eta familiak azaldu du Mourek Antzuolan garatu duela bere bizitza-proiektua.

Iaz, berriz, 90 urteko langa gairitu zuten Maria Luisa Mendizabali eta Vitaliano Fernandezi egin zieten omenaldia udal ordezkariak.

Hamaika jaioberri

2022ko jaietatik 2023ko jaietara bitartean hamaika haur jaiotakoak dira, eta haiei zapia jarriko diete Antzuolako Udaleko zinegotziek Herriko Plazan. Aurtengo zapia berdea da, eta, beti bezala, Oier Peñagarikano antzuolarra arduratu da diseinua egiteaz. Larrañagak xehetasun gehiago eman ditu: "Iazkoaren antzekoa da, baina aldaketa txiki batzuk ditu". Berdea da, eta, urtero moduan, *Antzuolako jaiak* leloa eramango du. Hain zuzen ere, herriko tabernetan 3 euroren truke egongo da salgai. Horrela, guztia prest dago astebete barru nagusi biri zein etxeko txikienei merezi duten omenaldi xumea egiteko. Horrenbestez, has da dila festa.



ELAY EUROPA
ELAY ASIA
ELAY AMERIKA

Lizarragako Hiribidea, z/g
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
www.elay.eus



Zabalo Iturgintza S.L.U.

Ondo ibili jaietan!

Era guztietako instalazioak egiten ditugu:

- Berogintza
- Iturgintza
- Aire egokitua
- Uren tratamendua
- Enpresa eta komunitateen mantenimendua
- Gas naturala eta propanoa
- Bainugelak



Bentazarreko Mutiko Alaiak taldea iazko kantu afaria giroten. AITOR AGIRIANO

Denbora luzea daramate antzuolarrak gozarazten

Beste urte batez, ez dute hutsik egingo Antzuolako jaietan Joselu Anaiak eta Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeek. Lehenengoek hiru hamarkada daramate kontzertua egiten herrian; eta bigarrenak, bi. Guztia prest dago festak hasteko

Mikel Zumalde Etxabe ANTZUOLA Txosnaguneko eskaintzaz harago, Udalak ere musika eskaintza zabala antolatu du jaietarako. Hala, urtero bezala, ez dute hutsik egingo Araiako Joselu Anaiak eta Zumarragako Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeek. Aurten, berritasun nagusizat, jaietako azken egunean, hilaren 16an, Tierra De Mis Amores mariatxi-taldea egongo da, lehenengoz, herriko kaleak girotzen.

Klasikoak

Bentazarreko Mutiko Alaiak izango dira lehendabizikoak. Urtero lez, uztailearen 13an egingo den kantu afaria girotzeko ardura izango dute, 21:30ean hasita. Juanlu Aranburu taldeko partaide da, eta Antzuolako hitzordua egutegian gorritz markatzen duten egunetako bat dela dio: "Nik Udalekoei galdeetzen diet ia jendea ez den aspertzen gure musikarekin, baina ez, inondik inora, antzuolarrak ez dira nekatzen". Argi utzi nahi izan du haien emanaldia ez dela ikuskizun bat, eta publikoak berebiziko "ga-

rrantzia" duela abestiak kantatzeko orduan.

Uztailearen 14an, egubakoitza, 22:00etan hasita, Lisker taldearen erromeria izango da Herriko Plazan, (22:00). Eta zapatuan izango da egun handia. Arratsaldean Skapaie elektrotxararak motorrak berotu ondoren, 22:00etan Arabako Joselu Anaiak taldearen txanda izango da. Taldeko abeslari eta konpositore Joselu Ruiz de Gordoia irrikan dago beste urte batez Antzuolan izateko. "Gogo handiz gaude beste urte batez; izan ere, etxean bezala sentitzen gara. Jende asko ezagutzen dugu, eta polita da belaunaldien igarotzea ikustea", azaldu du. Alde horretatik, gaineratu du orotzaren "ederrak" dituztela, giro jatorra eta euskalduna egoten delako beti.

Azken egunean, hilaren 16an, goizean, eta lehenengo aldiz, Tierra De Mis Amores mariatxi-taldearen emanaldia egongo da, (12:00). Aurtengo jaietako amaiera emateko ardura, berriz, Iratzar taldeak izango du. Antzuolarrak hasi dute dagoeneko atzerako kontaketa.

MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Gora Antzuolako jaiak!!



ilaia

ILE APAINDEGIA




Kalebarren 1, behea ANTZUOLA

943 76 63 33

ilaia83@hotmail.com

Ondo ospatu jaiak!

Ohitura zaharrek baztertu gabe

Mairuaren Alardearen tradizioa bizirik mantenduz, aurtengo edizioan 170 herritarrek parte hartuko dute. Dagoeneko Antzuolako jaien ikur bilakatu den ospakizunean dantzek, mozorroek eta ohiko tiroketek ez dute hutsik egingo, beste urte batez

Oier Zumarraga ANTZUOLA

Entseguak uztailearen 12an bukatuko dituzte, eta antzuolarrek Mairuaren Alardea ospatuko dute uztailearen 15ean Herriko Plazan. Ohikoa den aurretiko kalejira abiatu ondoren, ekitaldia arratsaldeko zazpietan hasiko da. Danbor hotsek lagunduta, bi bandoak plazara joango dira. Han, parte-hartzaileek lau dantza interpretatuko dituzte, txistularien, danborradaren eta abesbatzaren laguntzarekin: makila txikiak, uzta

edo arku dantza, makila handiak eta zinta dantza.

Ondoren, ekitaldi nagusiari hasiera emango zaio. Han, buruzagiak herritarrei bere hitzaldia helaraziko die, eta, ostean, mairuaren buruzagiarekin elkarrizketa antzeztuko dute. Haiek elkarren arteko errespetuan eta adiskidetasunean jarriko dute arreta. Jarraian, Iparragirrerren bertsoa abestuko du koruak; eta, azkenean, kanoiontziek eta fusilariek ekitaldiari amaiera emango diote tiroketaren bu-

rrunbarekin. Orduan, buruzagiak armak entregatuko ditu eta zin egingo du ez duela gehiago antzuolarren aurka egingo.

Kutsu historikoa

Alarde hitzak jatorri arabiarra du, eta, definizio erdaldunera joz, *armak ikuskatzea* adierazi nahi du. Antzuolarrek 920. urtean Valdejunqueran mairuen kontrako borrokaldian ustez lortu zuten garaipena goraiatzeko da. Datu historikoei diote Abd-Al-Rahman III.aren tropek lortu

zutela garaipena, baina Antzuolako Alardean istorioa alderantziz kontatzen da. 1629an herria Bergararik independizatu zenean, orduko errege Felipe IV.ari 5.000 dukat ordaintzeaz gain, herri izaera aitortzeko balentria egin izana erakusten da. Garai batean, foruen galeraren aurretik, herrietan egiten ziren armen berrikusketak ditu oinarri ospakizunak. Independentzia lortu baino lehen, Antzuolako herritarrek Bergarara joan behar izaten zuten hori egitera, eta, erregeak herri izaera aitortu zientetik, Antzuolan bertan egiteko aukera zuten. Herri bat izatearen poza eta harrotasuna irudikatzen ditu. 1536an gertatu zena izan zen bi herrien arteko lehen tirabira. Batzar Nagusiak jendearen eta armen arteko Alardea egitera dei egin zuen. Bergararako alkateak bere herrian egiteko asmoa zuen, baina antzuolarrek ezezkoa eman zioten Bergarara joateri. Huraxe izan Antzuolak bere independentzia lortzeko egindako lehen ahalegina. Dokumentu historikoetan agertzen den Mairuaren Alardearen aipamenik zaharre-

na 1880koa da, Lourdes Odriozola historialariak orain dela hiru urte egindako ikerketari esker.

Mairu berria

Aurtengo berrikuntza nagusia mairu berria izango da. Zishan Tariqek hartuko du Juan Carlos Gomezen lekukoa. 30 urteko pakistandarra 2006an iritsi zen Antzuolara eta geroztik herrian bizi da. Azken urteetan Alardeaz kanpotik gozatu du eta aurtentxanponaren beste alde biziko du: "Gogotsu nago esperientzia berri hau bizitzeko". Bestalde, azaldu duenez, bideoak ikuskatzeko asmoa du, dituen zereginak aztertzeko. Batez ere, zaldian nola ibili ikasi nahi du. Nabarmendu duenez, "lanerako gogoz" dago, ez baitu ilusiorik falta. Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteko kide Xabier Legor-

**AURTEN ERE
OSPAKIZUNEAN PARTE
HARTZEKO DAGOEN
JENDE FALTA
NABARMENDU DUTE**



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Gora Antzuolako jaiak!



oerlikon
balzers

Ondo ibili jaietan!!

**Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.**

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es



Mairuaren Alardearen iazko ospakizuna. AITOR AGIRIANO

buru ere "oso gustura" agertu da Tariqen izendapenarekin. "Bazen, zelanbait, bila ari gina: Antzuolako gazte batek bere burua eskaini du ekitaldian parte hartzeko, eta, gainera, horrelako postu esanguratsu baterako". Haren arabera, mairua izateak "berezitasunak" baititu. "Plazagizona izan behar da plazan agertzeko, tenplearekin egoteko. Bada, orain rol horri dagokion zeregina zein den ikasi beharko du". Tariqek ere argi du orain ikastea dago kiola. Mairuaren arropak probatu eta zaldiaren gainean nola ibili ere ikasi beharko du, mairua hala ageri baita. "Lehenengo mairuarekin ere egon beharko dut; gauzak nola egin behar ditudan ikasi beharra daukat".

Errelebo falta

Antolatzaileek ekintzan parte hartzeko jende falta nabarmendu dute. Horrelako egitasmoak aurrera ateratzeko Antzuola bezalako herri txiki batean jende gaztea "beharrezkoa" dela esan dute. Belaunaldi aldaketa hori gauzatzeko, azken urteetan ekitaldi mordoxka antolatu di-

tuzte jende berria erakartzeko. Nahiz eta taldean kide fidel asko izan, urtero kostata lortzen dute jende kopuru minimoa betetzera iristea.

Historian zehar birmoldatuz joan da ekitaldia. 1976an lehen aldaketak egin ziren –euskaraz lehenengoz– eta 2009tik aurrera beste hainbat egokitzapen egin ziren, Abderraman III.a buruzagi presoaren irudia duindu, ondu, baloratu eta errespetatzeko.

Emakumeen parte-hartzea

Alarde parekidea lortzeko helburuarekin, denboran zehar emakumeek rol parte-hartzaileragoa izatea aldarrikatu da. Horren harira, 2011n buruzagiaren guardian eta 2012an kanoi eramaileen artean sartu ziren emakumeak. 2019an, berriz, Edurne Iturbe kapitain izendatu zuten.

ZISHAN TARIQEK JUAN CARLOS GOMEZEN LEKUKOA HARTUKO DU; TARIQ IZANGO DA MAIRUA AURTEN



ameskua arotzak

Ametsak egurrean...

688669033

Ameskua Arotzak

ameskua@outlook.es



Gora ANTZUOLAKO jaiak!



GEZALUS
ELEKTRIZITATEA

650 39 80 88

**Gremioen koordinazioa,
era guztietako instalazioak,
argiztapen lanak, berrikuntzak...**

Gora Antzuolako jaiak! Ondo ibili!

Aurten ere jai giroa nagusi

Musika talde ezberdinen kontzertuez gozatzeko aukera izango dute txosnagunera bertaratutako guztiek; aurten berritasunak iragarri dituzte txosnan

Julen Murua ANTZUOLA

Eguenean irekiko dute txosnagunea Antzuolako aurtengo jaietarako; arratsaldeko zazpitan, zehazki. Musika-saio askoz osatutako egitaraua izango dela jakinarazi du batzordeak, eta lau egunetan zehar mota askotariko kontzertuez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Irati Lizarralde, Jai Batzordeko kide batek, dioenez: "Azken urteetan baino kontzertu gehiago izango dira txosnagunean. Hala ere, egitaraua, orokorrean, azken urteetakoekin alderatuta nahiko

antzekoa izango da, eta ez du aldaketa nabarmenik izango".

Eguenean bertan, Xugux taldeak eskainiko du txosnaguneko lehenengo kontzertua, 00:30ean hasita; ostean, Janire Garitanok eta Irati Lizarralde jokoak eta zumba saioa eskainiko diete han batutakoei. Rodeo, Trini Fox eta Letagin musika taldeek joko dute kontzertua egubakoitzean, 21:30ean hasita, eta, ostean, Emaion erromeria-taldea igoko da oholtzara. Zapatuan, berriz, No Limits, Añube eta Eten taldeen txanda izango da, eta, os-

tean, DJ Tintz-ek egingo du erakustaldia.

Jaietako azkenengo eguna Skapaie elektrotarangaren eskutik hasiko da, goizeko zazpitan, eta Elene eta Maddi izango dira jaietako amaiera emango dietenak, kontzertu akustikoa eginda.

Berritasunak txosnan

Aurten, berritasun nagusi bat izango du txosnaguneak. Aurreko urteetan ez bezala, Jai Batzordeak txosna bakarra izango du. Hala ere, txosna bera aurreko urteetan izandakoa



Gazte kuadrillak aurreko urteko Antzuolako txosnen irekieran. GOIENA

baino handiagoa izango da. "Horrek antolakuntza hobea ekarri eta diruaren kontrola erraztuko digula uste dugu", dio Lizarralde. Gainera, batzordekideak aitortu du azken urteetan txosnan lan egiteko eta bertan antolatzen diren ekimenetan laguntzeko prest egoten den jende kopurua jaitsei egin dela, eta txosna bakarra izateak arazo hori konpontzen lagunduko duela: "Azken urteetan txosnan lan egiteko boluntario kopurua geroz eta txikiagoa da, eta, modu horre-

tan, lanerako jende gutxiagoren beharra izango dugu".

Jai Batzordeak ezarritako beste berritasun nagusia ordaintzeko metodoa izango da. Ohi-koena den diru metodoa alde batera utzi eta txartelak erabiltzeko dituzte txosnagunean, ordaintzeko elementu gisa. Txosnagune alboan izango da txartelak erosteko leihatila. "Diru kontuak kontrolatzen lagunduko digula espero dugu. Beste herri batzuetako jaietan erabili izan dute metodologia hori, eta ea gurean nola funtzionatzen



Ondo ibili jaietan!

Ondarre, 9 ANTZUOLA • 605 70 53 30
garitanosl@gmail.com



Ondo ospatu jaiak!

Aitz Garbi - Arin - Gorosti - Koxkor
Larrea - Mox - Ongi etorri

"Denboraldi batez joko dugun azkenengo kontzertua izango da"

MIKEL AGINAGALDE LETAGIN TALDEKO GITARRA-JOLEA

Uda giroarekin batera datoz txosnaguneko kontzertuak; hilaren 14an Letagin Antzuolan egongo da, Rodeo eta Trini Foxekin batera.

Gogotsu Antzuolakorako? Antzuolakoa denboraldi batez joko dugun azken kontzertua izango da. Udazkeneko geldialdiaren ostean kontzertu batzuk jo ditugu, eta, azkena izanda, gogotsu irtengo gara oholza gainera.

Ez da han jotzen duzuen lehenengo aldia izango; zer-nolako giroa espero duzue?

Bai; iaz jo genuen auzo bateko jaietan, baina oraingoan, herriko jaiak izanik, giro beroagoa espero dugu.

Orain arteko kantu-zerrenda bera joko duzue ala baduzue zerbait berezia prestatuta?



GOIENA

Printzipioz, azkenengo kontzertuetan bezala, gure disko berrirako kantu batzuk jotzen ari gara. Abestiak lokaletik atera eta zuzenean duten harrera neurtzeko. **Zer da Letaginek buruan duena etorkizunera begira?** Irailean disko berria grabatu eta abendu ingururako kaleratzea da epe motzeko helburua. Gero, diskoa zuzenean aurkezten hasiko gara, eta dagoeneko hasi gara kontzertu horiek lotzen.

duen probatzea da helburua", adierazi du antzuolarrak.

Guztiaren ginetik, errespetua

Txosnaguneko festa giro ona izatea espero du Jai Batzordeak, baina, aldi berean, bertaratuko diren guztiei gauza bakarra eskatu nahi die. "Errespetua. Guk jendea besoak irekita hartuko dugu, baina guztiok jakin behar dugu jaiak guztionak direla eta denok nahi dugula jaietan giro ona izatea eta ondo pasatzea", dio Lizarraldeak.

Erasoen aurkako protokoloa

Jai Batzordeak aditzera eman du ez dela "inolako erasorik onartuko" eta txosnaguneko edozer gertatuz gero "erasoen aurkako protokoloa" izango dela. Protokoloa martxan jartzeko, "txosnagunera joan, laguntza eskatu" eta han adieraziko dituzte zeintzuk diren "jarraitu beharreko argibide guztiak". Gainera, txosnaguneko jarriko dituzte "norbaiti zerbait gertatuz gero jarraitu beharreko urratsak zeintzuk diren azaltzen duten kartelak", adierazi du Lizarraldeak.

'Ez dot moztuko bizarra' taldeak ere osatu du jaietako egitaraua

Egubakoitzetik domekara arte askotariko ekimenak antolatu ditu taldeak, herri bazkari eta guzti

J.M. ANTZUOLA

Egubakoitzean, hilaren 14an, elkarretaratzea izango da Zurrategin, arratsaldeko zazpietan, eta iganderako herri bazkaria antolatu dute taldekideek, Herriko Plazan. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude -20 eurotan nagusientzat eta 10 eurotan umeentzat-, eta uztailearen 12 arte erosteko aukera izango da, Aitzgarbi tabernan.

Bazkalondoren, lehenik eta behin, jaietarako saldutako errifon zozketa egingo da, eta, ostean, Garazi Barrena eta Asier Sala arrasatearrek musika-emanaldia egingo dute.

Ogitarteko salmenta

Ez dot moztuko bizarra taldeko kideek ogitartekoak salduko dituzte Herriko Plazan egunero, ilunkeran. Taldeko kide batek adierazi duenez: "Ogitartekoek



Joan den urteko herri bazkaria. GOIENA

izaten du urtero, eta aurten ere horrela izatea espero dugu". Horretaz gain, "aurtengo jaietarako antolatutako ekimenetan parte hartzeko gonbita" egin nahi izan die taldekideak bertaratuko diren herritar guztiei.



Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Goizperrek antzuolar guztiei jai zoriontsuak opa dizkie!

Berrikuntza eta teknologia, bezeroak eta konponbideak, pertsonak eta berdintasuna, garapen profesionala eta errespetua. Goizperren DNAn integratuta dauden kontzeptuak eta balioak. Elkarrekin eta taldean, elkarlanean garatzen.

Ihinzadura

Industrialia

Bioteknologia



www.goizper.com



"Hipoteka Legearekin etekina atera du Elizak"

IMANOL ZUBIZARRETA LAIKOTASUNA ELKARTEKO KIDEA

80ko hamarkadan Eskoriatzako 43 eraikin eta lursail immatrikulatu zituen Eliza Katolikoak, frankismoko lege bat baliatuta. Zubizarretak kasu horiek ikertu izan ditu

Hasier Larrea ESKORIATZA

Gizarte laikoa lortzeko eta Elizaren pribilegioak salatzen duen elkarte da Laikotasuna. 2010a ezker da hango kide Apotzagan hazitako Imanol Zubizarreta. Elizak egindako immatrikulazioen berri izan zuenean, ikertzeari ekin zion, jakinda Debagoienean, eta, bereziki, Eskoriatzan, halako kasu asko izan zirela.

Elizak ondasunak immatrikulatzeko, hau da, haren izenean Ondasunen Erregistroan inskribatzeko, boterea izan du urte askoan. Zer dela eta?

Francok 1946an Hipoteka Legea onartu zuen. Gotzainei eta apezpikuei notarioaren ahalmen bera eman zien: haien hitza nahikoa zen edozein orube immatrikulatzeko. Berez, ezin zituzten eraikin erlijiosoak erregratu, baina bai haiek barne hartzen zituzten orubeak; hortxe zegoen tranpa. Konstituzioa idazterakoan ez zioten lege hari arretarik jarri, eta berdin mantendu zen.

Horregatik egin zituzten immatrikulazio gehienak 1981 eta 1988 artean?

Garai hartan, Jose Maria Setien zen Donostiako gotzaina, eta Gipuzkoan 388 ondasun jarri zituzten Elizaren izenean, isilpean, ez baitziren ezta udalak ere konaturatu. Inskripzio haien herenak Debagoienekoak ziren: 84. Eta haietatik erdia baino gehiago, 43, Eskoriatzakoak.

Zehazki, herriko zortzi parroquia-eliza, hamar ermita, lau apaiz-etxe, lau hilerri, hamahiru landa-lur, hiru hiri-lur, haur parke bat eta futbol zelai bat immatrikulatu zituen Elizak. Hainbeste, zergatik?

Badu logika historikoa. Eskoriatzak elizateak izan ditu aspalditik: Apotzagan, Marinen, Bolibarren... parroquia bana, abade bana eta sakristau bana zeuden, euren etxeak eta ortuak zituzten. Normala da, beraz, elizen inguruan



Imanol Zubizarreta. I.Z.

"GOTZAINEK ESATEN ZUTEN 'BETIDANIK' IZAN DIRELA ONDASUNAK ELIZARENAK"

hainbeste ondasun egotea hemen. Gotzainak agintzen zuen *betidanik* izan direla ondasun horiek Elizarenak, baina gezurra esaten zuen. Esaterako, 1870eko eta 1979ko errolda-agirietan herriko eraikin guztiak zerrendatu ziren, jabea edo alokairuan bizi zen titularra jasota. Apaizen eta sakristauen etxeak auzotarrenak zirela dakarte dokumentu haiek; hau da, herriarenak ziren.

Zer egiten zuten immatrikulazioen ostean?

Ondasunak saldu. Erregistroan jasota dago ia 40 milioi pezetaren truke saldu zituztela 1990 eta 1995 artean Bolibarko sakristau etxea eta beste lokal bat, Mendiolako abadeen etxea eta abar. Duela 30 urte diru-kopuru handia zen hori.

Egin izan da ezer hori salatzen?

Ezer gutxi, salmenta legalak izan ziren eta. Nafarroan herri

plataformak sortu ziren eta hango Gobernua inplikatu egin zen aferan. Erregistroen dokumentuak lortu zituen eta berreskuratu egin zuten lursailen bat edo beste, frogatu zutelako partikular batenak zirela. Baina ezin baduzu lur bat zurea edo norbaitena dela erakutsi, nola berreskuratuko duzu?

Egin daiteke ezer hemen?

Eskoriatzan deigarriena iruditzen zaidana da Apotzagako haur parkea eta futbol zelaia Elizarenak izatea oraindik. Kasu horietan, eskatuko nioke Udalarri berrikusteko, ea ze zentzu duen Elizaren izenean egotea. Udalak parkea berri zuenean, ez nuke esango Elizarekin ezer adostuko zuenik.

Gaur egun jarraitu dezake immatrikulatzen?

Rajoyren Gobernuak kendu egin zuten gotzainei eskumena. Erabaki hura berandu etorri da, eta gertatutakoa ez da behar beste ikertu. 2021ean Gipuzkoako Batzar Nagusietan mozio bat onartu zen, Espainiako Gobernuari iraganeko inskripzioen zilegitasuna ikertzea eskatzeko. Baina akordio sendorik ez da egon, eta aferak hor jarraitzen du.

Sanpedroak "oso ondo" joan dira, parte hartze handiarekin

Eskoriatzako Udalak jaien balorazio orokorra egin du, intzidentzia aipagarririk gertatu ez izana nabarmenduta

H.L. ESKORIATZA

Jendea aurtengo jaiengatik "pozik" hurreratu zaiela adierazi du Edorta Barandiaran Kultura eta Jaietako zinegotziak, sanpedroak nola joan diren galdetuta. Era berean, desberdindu gura izan ditu aste barruko eta asteburuko egunak: "Asteazkenean eta ostegunean eguraldiak ez zigun askorik lagundu, zalantzak izan gaituzte, baina guztiak garatu ziren, azkenean. Ostiralean eta zapatuan eguraldiak hobera egin zuen eta

kaleak beteago igarri genituen, normala den bezala".

Parte hartzerik handiena asteburuko ekintzetan, gauetako dantzaldi eta kontzertuetan eta sokamuturrean egon zirela ere aipatu du Barandiaranek. Azken horri lotuta, segurtasunean eta antolakuntzan hobetzeko ekarpen batzuk jaso dituztela aitortu du, eta zera gaineratu: "Datorren urteko jaiak antolatzen hasten garenean baloratuko dugu sokamuturrekin jarraitu edo ez, herritarren iritzia kontuan hartuta".



H.L.

Zabalik dago kanpoko igerilekua

Kiroldegiko kanpoko igerilekua zabaldu dute asteon, eta irailaren 4ra arte egongo da zabalik egunero. Uztailean, aste barruan 14:45etik 19:45era egongo da erabilgarri, eta asteburu eta jaiegunetan, 16:00etatik 19:45era. 6 urte bitarteko haurrak pertsona heldu batek lagunduta ibili ahalko dira. Gauza bera barruko igerilekuan 8 urtetik beherakoekin.

Martxan dira haurren udaleku irekiak, hilaren 21era arte

Aurten, 3 eta 12 urte arteko 149 neska-mutilek eman dute izena Gazteria Sailak antolatutako udalekuetan. Adinen arabera sei taldetan banatuta, martitzena ezkererako dihardute ekintza dibertigarriak egiten. Atzo, esaterako, hainbat igerilekutararen laguntzarekin: Gamarrakora, Elgoibarkora, Mutrikkora eta Araiakora, zehazki.

'Eskoriatza bizirik' bonuak udaletxean daude eskuragai

Apirilean Ibarraundi museoa hasi ziren saltzen herriko dendetan gastatzeko *Eskoriatza bizirik* deskontu-bonuak. Bada, atzo, udaletxera lekualdatu zuten salmenta-puntua, eta 08:30etik 14:30era egongo da zabalik. Adinez nagusia izatea, Eskoriatzan erroldatuta egotea eta ordaintzeko kreditu-txartela erabiltzea dira baldintzak.



John Lasagabaster, Ibai Sanz, Ander Okina, Markel Elortondo eta Josu Rodriguez dira Oihu! taldeko egungo kideak. OIHU!

Lehen metala, orain punka, baina beti oihuka

Aretxabaletako eta Eskoriatzako bost gaztek osatzen dute Oihu! taldea. 16-17 urteren bueltakoak izan arren, 2018an hasi ziren jotzen. Aurten aldaketak izan dituzte: "Lantzen gabiltzan abesti berrietan igarriko da estilo aldaketa ere"

Hasier Larrea ESKORIATZA

Joan den astean, txosnaguneko protagonistetako bat izan zen Oihu!, Rebel Noise, Perlata eta Txerrikumeak taldeekin jo baitzuten herriko jaien baitako kontzertua. "Berezia" izan zela aipatu du Josu Rodriguez bateria-joleak, aurrera begirako asmoen berri ematearekin batera: "Uztailaren 14an Portasolgo jaietan joko dugu, eta, gero, entsegu-lokalean sartuko gara, Aretxabaletako kuartelean, irailan grabatzeko asmoa dugun diskoa prestatzeko; izan ere, taldekide bat Madrilera joango da ikastera orduan".

Sukaldeko lanak, isilean

Oso gazteak dira, baina ez hasiberriak, eta dagoeneko erakutsi dute egoera berrietara moldatzeko gaitasuna. "Iaz Peio Uribebarriak eta Iker Urtazak taldea lagako zutela esan, eta kide berriak topatzeari ekin genion; irailan, Gatzagako jaietan, komentatu genien John

Lasagabaster, Ander Okina eta Ibai Sanzi ea Oihu!-ko abeslari, baxu-jole eta gitarra-jole izan nahi zuten, ezagunak genituelako eta bagenekielako zerbait egin gura zutela. Zorionez, onartu egin zuten gonbidapena", azaldu du Rodriguezek.

Formazio aldaketa ez zuten bat-batean egin, ezta lau haizetara iragarri ere: "Hilabete batzuk eman genituen lokalean denok batera entseatzen, eta lau abestiko maketa grabatu genuen jatorrizko kideekin, nahiko heavya, taldearen lehen fase hura nolabait borobiltzeko. Bitartean, kide berriekin zuzenekoak prestatu genituen; ikusi dugu estilo punkagoa dugula orain". Aldaketa hori non igar-

FASE BERRIKO LEHEN KANTUA URRIAN KALERATUKO DUTE, KUARTELEKO TALDEEN DISKO BATERATUAN

tzen den galdetuta, hona hemen bateria-jolearen erantzuna: "Uribebarria gitarra-jole ohiak bazeukan gaitasuna soloak egiteko, baina jada ez dago; era berean, Rodeo, Latzen eta Rage Against The Machine taldeen bertsioak jotzeari utzi diogu, Arkada Social, Eskoria-Tza zein Heriotza taldeenak hobetsita".

Harrera onari, jarraipena

Entzuleek proposamen berria ondo jaso dutela nabarmendu du Rodriguezek; duela aste batzuk Berriatuan emandako zuzeneko joateko autobus bat bete zutela jarri du adibide modura. Zaleen bultzada horrek lagunduko die sortzen dabilzan kantuei forma emateko: "Asmoa da hilabete batzuk barru sei abesti propio eta bertsio bateko diskoa ateratzea; asteotan konposaketak finduko ditugu, eta uda bukaeran grabatuko dizkigu taldekide ohi Uribebarriak, maketarekin egin bezala; orduan soinu txukuna atera genion".



Leintz Gatzagako bolatokian egindako txapelketa bat. GOIENA

Eugenio Otsoaren omenezko hiru txirlo torneo hunkigarria

Otsailean zendutako alkatea oroitzeko txapelketa bihar jokatuko dute; bolatokiari haren izena jarriko diote

H.L. LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak eta UDA bola taldeko kideek antolatuta, zapatuan, hilak 8, keinu berezia egingo diote herrian eta Leintz bailaran arrasto handia utzi zuen Eugenio Otsoari. Haren omenezko hiru txirlo bola txapelketa 18:00etan hasiko da, baina, Juanito Bengoa antolatzailleak adierazi duenez, goizetik egongo da bolalekua zabalik, bertaratu, lagun artean elkartu eta torneo hasi aurretik jaurtiketa batzuk egin gura dituztenentzako. Dagoeneko aurreratuta du giro polita espero dutela: "Eugenio ezaguna zen inguruan, eta jende askok esan digu etorriko dela bolatokira".

Ekitaldiaren nondik norakoei buruz galdetuta, Otsoak berak egindako eskaria izan zela nabarmendu du: "Zenbait konturen artean, haren urtebetetzearen bueltan –uztailak 14– bola txa-

pelketa bat antolatzea eskatu zigun, eta, okerrik ezean, urtero egingo dugu". Bengoak aipatu duenez, badute antzeko ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa: "Eta bola txapelketa izango da lehena, egiteko erraza iruditu zaigulako".

Plaka eta guzti

18:00etan, torneoari hasiera eman aurretik, bolatokiari Eugenio Otsoa izena jarriko diote modu ofizialean, haren omenezko plaka bat eskegita eta "aurkezpen polit bat" eginda. Ondoren izango da bola-jokalarien txanda. Edonork parte hartu dezakeela aipatu du Bengoak; are gehiago, Gatzagako bolatokia "suabea" dela aintzat hartuta: "Ez dago indarrez jaurti beharrik, eta bizpahiru jaurtiketatik hasiberri batek ere bota ditzake hiru txirloak". Lehen lau sailkatuek, gainera, sariak jasoko dituzte.

Arduradun berriak batzorde informatiboetan

Atzo eguerdian, hilak 6, bilkura egin zuten udaletxean maiatzaren 28ko hauteskundeetan udal ordezkari izateko izendatuak izan ziren Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteko kideek, datozen lau urteetarako ardurak banatzeko helburuarekin.

Dorleta Elkorobarrutia, alkate izateaz gain, bi arlotako lehendakaria izango da: Kontu Ba-

tzorde Berezia eta Ogasun eta Patrimonioko Batzorde Informatibokoa, eta Turismoa Batzorde Informatibokoa.

Alkateordea Idoia Armendariz izango da; era berean, Hirigintzako Batzorde Informatiboko kontuak gidatuko ditu Armendarizek. Kultura arloko gaiez, berriz, Aiora Elkorobarrutia arduratuko da, eta Gizarte Zerbitzuen Saila Eneka Zankadak eroango du. Bestalde, Juan Bengoak jarraituko du Mendiko Batzorde Informatiboa kudeatzen.



Kirol campusean neska-mutikoeek piraguan ibiltzeko aukera izan dute, Beti Busti elkartekoen laguntzarekin. ARGAZKIAK: BERGARAKO UDALA

Kalean gozatzea da etxerako lana

Ekainaren 26tik uztailaren 21era, udaleku irekien, kirol campusaren, arte udalekuen eta Laboratorium museoko ekintzen artean aukeratu behar izan dute umeeek eta gaztetxoek; Udala "oso pozik" dago izen-emate datuekin eta ekintzek izan duten harrerarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Ekain bukaera eta uztaila udalekuen sinonimo izan ohi da umeendako eta gaztetxoendako. Bergaran eskaintza zabala dute aurten ere: Jardun euskara elkarteak kudeatzen dituen udaleku irekiak, kirol campusa, Laboratorium museoko ekintzak eta aurtengo nobedade nagusia diren Beart elkarteak antolatutako arte udalekuak. Horrez gain, liburutegi zerbitzua ere badago, Agorrosingo igerilekuetan.

Udaletik "kalitatezko eskaintza" osatzen saiatu dira "aurten ere", ume eta gaztetxoek hori merezi dutela sinistuta: "Oso garrantzitsua da umeentzat eta gaztetxoentzat, haien garapenerako garrantzitsua baita modu ludikoan ikastea, harremanak lantzea eta, nola ez, ondo pasatzea. Udalekuetan, egunerokoan eza gutzen ez dituzten pertsonekin

harremanak lantzeko aukera izaten dute, jolasaren, kirolaren edo bestelako jardueren bitartez. Eta, bestetik, egunerokoan haien ikaskide direnekin ere bestelako harremanak lantzeko aukera izaten dute".

Udaleku irekiak, klasiko

Jardunek kudeatzen dituen udaleku irekietan 359 umek eman dute izena aurten. Ekainaren 26tik uztailaren 21era artekoa da eskaintza, baina izena ematerakoan bazegoen aukera hiru edo lau asterako emateko izena; 259 umek erabaki dute hiru astez

UDALEKU IREKIAK, KIROL CAMPUSA ETA ARTE UDALEKUAK AINTZAT HARTUTA, 652 NESKA-MUTIKO

gozatzea udaleku irekiez. Adinaren arabera banatuta, lehen bi asteetan askotariko ekintzak izan dituzte: lehen asteari amaiera eman zioten apar festa batekin; ur jolasak izan dituzte Agorrosingo barruko igerilekuetan; San Martzialera ere igo ziren herri kirolez gozatzeko...

Kirol campusa ere errotu da

Arrakasta handia izan ohi duen beste jarduera bat da kirol campusa, eta aurten ere gaztetxo asko erakarri ditu. Hiru asterako eman dute izena 265 neska-mutikok eta lau astez arituko dira 136. Aisialdi osasuntsu eta aktiboa eskaintzeko asmoz sortua, aurten ere kirol arloko askotariko jarduerak dituzte programatuta; besteak beste, Beti Busti elkartekoen laguntzarekin piraguan ibiltzeko aukera izan dute Labegaraietan.

Arte udalekuak eta udaleku irekiak



Hiru neska-mutiko arte udalekuetan, Beart-ek Boluan duen egoitzan.

Nobedadea Beart-ek kudeatzen dituen arte udalekuak lehen aldiz sartu dira aurten Udaleko eskaintzaren barruan. 28 neska-mutikorendako lekua zegoen, eta plaza guztiak bete dira.



Udaleku irekietako lehen astea apar festarekin borobildu zuten.

Irekiak Hiru astez edo lau astez izan, 359 ume ari dira aurten udaleku irekietan, adinaren arabera banatuta. Aste barruko goizak gozamen iturri dira haientzat, herritik apenas irten barik.

Beart: izen-ematea gainditu

Beart-ek lehenengoz sartu ditu arte udalekuak Udalaren udako eskaintzaren barruan. Gehienez 28 neska-mutikorendako lekua zegoen eta umeren batek edo bestek kanpoan geratu behar izan du. Ekintzen artean, Agorrosingo igerilekuetan mural bat egitea dute aurreikusita, ikasleek eurek diseinatuta.

Laboratorium ere interesgune

Laboratorium museoak antolatutako ekintzetan, berriz, 190 pertsonak parte hartu dute orain arte, eta datozen egunetan izan-

ASKOTARIKOA IZANIK ESKAINTZA, UMEEN GUSTUETATIK GERO ETA HURBILAGO EGOTEA DA ASMOA

go diren ekintzetarako, berriz, 500 pertsona espero dira. Uztailaren 14an egingo den astronomia jarduerarako aurreikusitako da arrakasta handiena, 200 pertsona inguruk parte hartzea dago eta aurreikusita. Ilatargi taldeak gidatuko du, eta eguraldiak laguntzen badu Gorlatik egingo dute saio praktikoa.

Datu onak, eta kontziliazioa

Udako eskaintzaren datuekin "oso pozik" daude Udalean: "Jarduera guztiak batuta ume pila bat ari dira eta oso pozik gaude. Gero eta anitzagoa da eskaintza eta uste dugu horrekin gehiago asebetetzen ditugula ume eta gaztetxoek gustuak. Familiek aurrez erabaki behar izan dute nora eta zenbat denborarako bideratu euren seme-alabak; kontziliaziorako ezinbesteko bihurtu dira gaur egun".

Ibargaraitik Urteagarainoko bidegorria, martxa onean

Ekainaren 19an hasi zituzten Ibargaraiako geltokitik Urteaga kalerainoko bidegorri zatia egiteko lanak, eta aurreikuspena da gehienez hiru hilabetean egotea amaituta obrak; Construcciones Artzamendi dabil lanok egiten, 380.023 euroko aurrekontuarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Ekainaren 19an hasi zituzten Ibargaraiako autobus geltokitik Urteaga kalerainoko bidegorria egiteko lanak. Espoloiara doan eskaileran hasi ziren lanak, eta, Udaletik asteon zehaztu dutenez, asmoa da inguru hartako lan gehienak ahalik eta gehien aurreratzea, oinezkoendako pasabidea bermatuz, espaloi bereko hurrengo zatiarekin hasi aurretik. Lehenik, ondoko eraikinen espaloiak berritzen hasi ziren, eta, lan horien egin bitartean, moztu egin dute oinezkoen pasabidea.

Bestalde, ibilgailuentzat bi noranzkoak mantendu egin dira, baina bidea metro bat estutu dute noranzko bakoitzean, lanak egin ahal izateko. Eta behin-behineko seinaleak jarri dituzte. Bi zati haiek amaitu ondoren, espaloi berean falta den zatiarekin hasiko dira, eta, azkenik, beste aldeko espaloiak, erreka aldekoa, egokituko dute.

Obraren eraginak

Hain zuzen ere, bidegorria egingo dute erreka alde hartan, eta, lan horiek egiteko, Antzuolako noranzkoan errei bat itxi egingo dute; semaforo bitartez txandakako igarobidea jarriko dute. Oinezkoendako bi pasabi-



Bidegorria egin aurreko espaloiak egokitze lanak, eguazten arratsaldean. J.B.L.

de berriak egiten ari diren bitartean ere beharrezkoa izango da errei bat ixtea eta semaforoarekin txandaka igarotzea.

Gainera, oinezkoendako pasabide bermatu edota norabide arteko banaketa egin behar denean, autobusek ezingo dute zuzenean herrigunerako noranzkoa hartu. Hau da, Urteaga kaleko biribilguneraino joan beharko dute autobusek norabide aldaketa egitera. Era berean, geltoki ondoko komuna itxita egongo da obrak amaitu bitartean.

Gehienez hiru hilabete

Construcciones Artzamendi enpresa ari da lanok egiten, 380.023 euroko aurrekontuarekin –BEZA barne–, eta lanak amaitzea aurreikusten dute, gehienez, datzen hiru hilabeteetan. Bestalde, Udaleko teknikariek oraindik ez dute erabat zehaztu erreka aldeko espaloiak eta bidegorria egiten direnean ibilgailuei txandakako pasabidea eman behar izatea: "Ez dago guztiz garbi beharrezkoa izango den; lanak amaitu ostean hartu beharreko erabakia izango da".



GOIENA

Jende gutxiago, baina giro ederra

Eguna lanbroarekin eta zirimiriarekin hasi bazen ere, altxatu eta giro ederrean egin zen San Martzialgo erromeria. 09:00etan plazatik Alboradarekin hasi eta arratsaldera arte, jan-edanean, dantzan eta kantuan aritu ziren bertaratutako asko. Hori bai, beste urte batzuetan baino jende gutxiago egon zen; ezin da ahaztu egun hartan Tourra pasatu zela Debagoienetik.

OHARRAK

Bilera irekia: herri-lur urbanizaezinak

Udalak deituta, diagnostiko bat egitea da asmoa: *Nola daude gure herri-lurrak? Nola kudeatu etorkizunean?* Uztailaren 11n izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:00).

Musika jaialdia egingo dute Gorkako kantuan

Uztailaren 15ean honako talde hauek joko dute, 17:00etan hasita: El Volquete, Buru Gabe, Colapso, Laino Beltzak eta Hankaz Gora. Kontzertuen aurretik bazkaltzeko aukera egingo da: menua, 22 eurotan. Izena emateko: 943 58 50 28.

Udal tasak: zaborra, estolderia eta ura

2023ko bigarren hiruhileko ordainagiriak pagatzeko epea, hilaren 10etik irailaren 11ra. Argibide zehatzak: www.bergara.eus.

EAJ: posta bidezko botoa, uztailaren 13ra arte

Batzokian egin behar da eskaera. Ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Argibide gehiagorako: 943 76 47 00 edo 645 72 27 08.

Laboratorium: uztaileko bisita gidatuak

Astelehenetik zapatara, 11:00etan eta 12:30ean (943 76 90 03).

Autoen bedeinkapena eta beste asteburuan San Kristobal jaietan

Gaur hasiko dira jaiak, makalaren igoerarekin eta sailheski-janarekin (22:00). Bihar erromeria izango dute, Fan&Go taldearekin (23:00); domekan, meza (12:00), autoen bedeinkapena eta, ondoren, plazan, mariatxien kontzertua egongo da. Eta uztailaren 10ean, San Kristobal eguna, meza (12:00) eta auzokoendako afaria izango dute (20:00).

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altxariak neurria
 Ateak · Eskailerrak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Entzuna Registratu Nº00/025

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Jokalariak behar dituzte, baloiak zelaian segi dezan

2023-2024ko denboraldira begira zailtasunekin dabil BKEko futbol saila Preferente Mailako nesken taldea osatzeko, eta jokalar berriak erakartzeko deialdia egin dute: "Azken txanpan jokalar gutxiarekin ibili gara, eta hurrengo denboraldirako talde zabalagoa behar dugu"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2023-2024ko denboraldira begira BKEko futbol sailaren erronka handienetako bat izango da emakumezkoen lehen taldea aurrera ateratzea, Preferente Mailan jokatu duena. Asteon sare sozialetan iragarri dute laguntza behar dutela taldea osatzeko, jokalar berriak behar dituztela. Iosu Elorza presidentek espero du taldea aterako dutela: "Taldea aterako dela uste dugu, iazko kopuru antzerakoekin gabiltza eta. Hori bai, denboraldi honen amaieran hiruzpalau baja garrantzitsu izan ditugu, baina beheko mailatik datozen neskekin osatuko dugu. Hala ere, ez genuke nahi denboraldi honetan gertatu dena errepikatzea; jokalar gutxi izan ditugu, eta, lesioak medio, askotan, neska gutxi izan ditugu entrenatzeko eta jokatzeko. Deialdi honekin, jokalar gehiago lortu nahi dugu".

Maila guztietan nahi dute taldea Zenbait urtez talde barik egon ostean, duela zazpi urte eratu zen berriro ere emakumezkoen senior taldea. Izan ere, Elorzak gogora ekarri duenez, BKEren helburua da futbol eskolatik hasita benjamin, alebin, infantil, kadete eta senior mailetan taldeak



Bergara eta Zumaiako taldeen arteko partidua Ipintzan, artxiboko irudi baten. GOIENA

izatea, edozein neskak futboleko jokatzeko aukera izan dezan.

Hutsune esanguratsua utziko dute aurten erretiratu diren Mariñe Diazek eta Ainhoa Etxeberriak, 14 urtez futboleko aritu ostean. Denboraldi amaieran jasotako omenaldiaren ostean GOIENARI emandako elkarrizketan biek aipatzen zuten ez dela erabaki erraza izan, besteak beste, urtero dagoelako jokalariekin beharra: "Taldea aurrera ateratzeko zailtasunak izaten dira denboraldi amaieran, eta baiezko ematera eramaten gaituen

arrazoi nagusietako bat izan da orain arte. Gainera, biok lanean gabiltza, eta, gure lanbideak askotan lan egiten behar izaten dugu; bizitza hori futbolarekin eta arlo pertsonalarekin bateratzea ez da erraza izaten.

Julen Garmendiaren fitxaketa Bestalde, gizezkoen Ohorezko Erregional Mailako lehen fitxaketaren berri ere eman du BKEk: Eibarren aritutako Julen Garmendia aurrelari elgetarra fitxatu dute, goiko lerroa sendotzeko.

GOGOAN

Jose Ramon Madinabeitia hil da, pilotari maitatua bezain umila

Goiena BERGARA

Jose Ramon Madinabeitia pilotari profesional izandakoa hil da eguazten honetan, uztailak 5. 1961ean, artean afizionatua zela, Oregi herrikidearekin batera Gipuzkoako txapeldun izan zen. Gero profesional egin da ere, oso ezaguna izan zen Oregi-Madinabeitia bikotea. Atzelari apala baina fina eta maitatua izan zen eta 1981ean erretiratu zen frontoietatik, laneko istripu baten eraginez, eta Bergarako frontoian omenaldia egin zioten. Erretiratu ondoren ere pilotari lotuta jarraitu zuen, pilotak eginez.



Madinabeitia eta Oregi txapeldun, 1961ean.



MIZPIRUALDE

Altzasu elkartera urteroko bisita

Urteroko ohitura da Gorlako Altzasu elkartearen egun batez itxi eta Mizpirualde egoitzako erabiltzaileendako irekitzea. Hala, San Juan egunean igo ziren egoiliarretako batzuk elkarte bereziaz gozatzera, eta Mizpirualdetik esker ona adierazi nahi izan dute: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Altzasuko talde guztiari gonbidapenagatik eta beti eskaintzen diguten tratua paregabeagatik".

Skate festa, "ezin hobeto"

Ekainaren 3an zen egitekoa, baina ekaitz arriskuagatik uztailaren 1era atzeratu zuten Labegarrietako skate parkeko festa. Trukuzikin elkarteak egun osoko plana antolatu zuen, eta, diotenez, "ezin hobeto" irten zen dena. Nagusien mailan txapelketa Andoni Blanco *Nano*-k irabazi zuen, Mattin Rozas geratu zen bigarren – argazkian – eta Mikel Aginagalde izan zen hirugarren.



TXOMIN MADINA

Elikagaien Bankuak boluntarioak behar ditu udara begira

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak San Juan auzoan duen egoitzarako boluntarioak behar dituzte udan; urtean zehar hikoak diren eta garaiotan oportetara joaten diren boluntarioen lana ordezkatzea da helburua. Bi modu daude harremanetan jartzeko: 943 76 21 90 –08:00etatik 14:00etara– eta bergara@bancoalimentosgipuzkoa.org.

Kamikaze Helmets gaur, Berumuga hasteko

Antolatzaileen esanetan "rock berezia" egiten duen Madrilgo taldearekin hasiko dituzte gaur, hilak 7, uztailean Espoioan izango diren emanaldiak. Berumugako kontzertuak 22:00etan hasiko dituzte eta debalde izango dira denak

Xabier Urzelai BERGARA

Berumuga barruan, lehenengo emanaldia egingo dute gaur, 22:00etan, Espoioan. Udalak eta Gaztelupeko Hotsak-ek elkarlanean antolatzen duten ekimena estreinatzeko ardura Madrildik datorren Kamikaze Helmets taldeak izango du: Gabri Casanova piano-jole eta organo-joleak eta Kike Parra bateria-joleak osatzen duten bikoak. "Rock, blues eta funk emanaldietan Estatuko musikari ospetsuekin jardun duten bi musikaririk osatzen dute banda hori. Urteetako eskarmentuaren ondoren, proiektu propioa sortu dute, besteak beste, Led Zeppelin, Black Keys eta White Stripes taldeen eraginarekin", adierazi dute antolatzaileek, eta gaineratu dute eszenaratze paregabea dutela.

Datorren egunean, Mice

Hurrengo emanaldirako, baina, ez da astebete itxaron beharko, egunean, hilak 13, uztaileko

kultura eskaintzaren barruan Miren Narbaizaren bakarkako proposamenaz –Mice– gozatu ahal izango dutelako, 22:00etan, Usondoko parkean –Eguraldi txarrarekin Seminarixoan–. Eta hurrengo egunean, hilaren 14an,

etorriko da Berumugako bigarren emanaldia: Iker Piris Eta Lagunak. Hiruko formatuan, Abdell B. Pop eta Andy Martin izango ditu Pirisek ondoan. Rhythm-and-blues eta boogie doinuak eskainiko dituzte Espoioan.



Kamikaze Helmets bikotea. K.H.



Oñatiarren kontrako derbian, otsailean. GOIENA

Euskadikoan jokatzeko aukerari ez dio muzinik egingo BKEk

Bergararrei liga amaitu eta gero eskaini diete Euskadiko Txapelketako bigarren mailara igotzeko aukera

X.U. BERGARA

Gutxiak aurreikusten zuten kantxan lortu ez zutena bulegoetan lortu ahal izango zutela, baina gertatu da. Ligan denboraldi ederra egin eta gero, Soraluze BKEko mutilek Euskadiko Txapelketako bigarren mailan jokatu dute datorren denboraldian, taldeko kirol zuzendari Xabat Irazolak aitortu duenez: "Poztasun handiz jaso dugu berria eta taldearendako erronka ederra izango da".

Igoera fasean kolpea

Ligan denboraldi ederra eginda Gipuzkoako lehenengo mailako txapeldun izan ziren bergararrak apiril erdialdean, baina, ondoren, igoera fasean ez zuten batere zorterik izan, eta denboraldiko momentu garrantzitsuenean huts egin zuten. Lauko finaleko finalerdietan Donosti Dolphins jaun eta jabe izan zen Labegarietan jokatuako partiduan (47-61), eta, hala, bergararrek denboraldiari agur esan zioten, espero baino lehen.

Amaiara mingotsa izan zen denboraldian zehar saskibaloia maila handia erakutsi zuen Soraluze BKE taldearentzat. Behin txapelketak amaituta, baina, Euskadiko bigarren mailan jokatzeko aukera izan dute eta bergararrek baiezkoa eman dute. "Pena hartu genuen denboraldia zelan amaitu genuen ikusita. Inork uste ez zuen moduko denboraldia egin dugu, eta azken partiduan mailaz igotzeko aukera barik geratu ginen. Baina

beste taldeen asmoak ikusi ditugu eta Federazioarekin berba eginda mailaz igotzeko aukera eman digute, eta baietz esan dugu, uste dugulako klubarendako eta herri mailako saskibaloiarendako ona dela. Kanpoan bizi izaten egon diren jokalariek ere herrira itzuli dira, eta taldea indartuko dute; horrenbestez, maila politean ibil gaitzkeela uste dugu eta baiezkoa eman dugu, esfortzua egin dugu".

Hori horrela, irailetik aurrera Euskadiko Lurraldeko bigarren mailan jokatu dute mahoneroek: "Bizkaiko eta Arabako taldeak etorriko dira Bergarara, eta maila politeko saskibaloia ikusi ahal izango dugu herrian; pozik gaude".

Bi igoera bi taldetan

Bergarako saskibaloia sailarendako denboraldi aparta izan da, gizonetzkoek ez ezik emakumezko seniorrek ere liga irabazi dutelako eta haiek ere mailaz igo direlako. Haiek alderantziz egin zuten, Gipuzkoako lehenengo mailarako txartela lortu zuten lehenengo, eta, ondoren, Lasarteko Ostadar taldeari (59-43) irabazi ondoren lortu zuten Gipuzkoako txapeldun izatea.

EUSKADIKO BIGARREN LURRALDE TXAPELKETAN JOKATUKO DU SORALUCE BKE-K

Berumugari buruzko podcasta

Berumuga musika jaialdiak 23 urte bete ditu, eta datozen lau egubakoitzetan Bergaran egingo dituzten emanaldien gainean berba egiteko batu dira Maite Usabiaga Kultura zinegotzia, Kristina Markina Kultura zinegotzi ohia eta musikazalea eta Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsak-eko ordezkaria. Saioa zuzentzen, berriz, Ander Monedero eta Aitziber Aranburuzabala izan dira. Tertulia formatuan aurtengo kartelaren errepassoa egin dute, taldeak aurkeztu dituzte, eta atzera begiratu egin dute; alegia, Berumugaren hastapenetara. Izan ere, 23 urte hauetan Berumugatik pasa diren proiektu asko sortu dira.



Berumugaren podcastean mikrofonoaren bueltan batu diren lagunak. X.U.

Solasaldia entzungai

Askotariko bideak daude *Berumuga* podcasta entzuteko: *Goiena.eus* atarian, Arrasate Irratian –FMko 107.7an– eta iVoox plataforman digitaletan.



Podcasta entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Arantzabalek hartuko du Gezalagaren lekukoa

Sei urtez izan da AKEko lehendakari Ibon Gezalaga, eta atzo izan zuen azken eguna. Jokin Arantzabal izango da aurrerantzean presidente; gutxienez, beste bi urtez, eta, azaldu duenez, "gogoz" jaso du izendapena, lantaldearen laguntza duelako atzetik

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Lehendakari berria izango du aurrerantzean Antzuolako Kirol Elkartek, atzo eginiko urteko batzar orokorrean Ibon Gezalagaren lekukoa hartu baitzuen Jokin Arantzabal herrikideak.

Hain justu, 2016an sartu zen AKEren batzordean Gezalaga, eta futbol eskolaren arduradun izan zen. Hala ere, Mikel Kerezteta presidente ohiak utzitako hutsunea bete zuen urtebetera, eta, hala, sei urte egin ditu kargu horretan. "Denetik bizi izan dugu. Une gogorrek egon dira, batez ere, pandemian neurriak jartzen hasi zirenean, baina



Jokin Arantzabal eta Ibon Gezalaga, eguaztenean, Antzuolako Herriko Plazan. A.R.K.

momentu politak ere bizi izan ditugu". Adierazi duenez, "geraerarik garrantzitsuenetako bat" AKE eguna herrira zabaltzea izan da. Guztira, bost egin dituzte, aurrez batzordekideen eta futbolarien festa batera mugatzen baitzen eguna.

Arantzabalen izendatzea

Gezalagaren arabera, "komenigarria" izaten da lehendakari kargua hartzen duenak elkarrearen jarduna aurrez ezagutzea, batzordekidea izatea. Eta, hain justu, hori da Arantzabalen egoera, bi urtez baitabil lanean. Hala, nabarmendu du "gogoz" jaso duela izendapena. "Lantalde ona dugu, eta ez dut ardurarik horrekin. Ardura puntu bat badaukadan arren, laguntza daukat atzetik".

Era berean, egungo lehendakariak eskerrak eman nahi izan dizkio Gezalagari urte hauetan guztietan eginiko lanarengatik, baina baita alderantziz ere. Izan ere, presidente ohiak esker mezuak izan ditu batzordekide izan dituenentzat: "Zazpi urte hauetan aldamenean izan ditudan guztiei, eskerrak. Eta esan nahi-

ko nieke beti egongo naizela hor laguntzeko prest; ahal den neurrian, aurrera egiteko".

Dena den, ohartarazi du nahiko lukeela batzordekideak gehiago izatea, "jende falta" sumatzen duelako. Beraz, deialdia egin die herritarrei parte har dezaten.

Datozen erronkak

Lehendakaria aldatuta ere, lanean jarraitzea dagokio orain AKEko batzordeari, eta, gainera, esperientzia propiotik, Gezalagak nabarmendu du jardun horretan ez dagoela deskantsurik. "Futbolariak jai hartzen dute, baina guk beti dugu zerbait egiteko. Herri txikia da gurea, eta denetik egin behar izaten dugu: kartelak jarri, txorizoa igo... Lan boluntarioa dago horren guztiaren atzean".

Hain justu, biek ere jakinarazi dute "hobekuntzak" egin direla azken urteetan; esate baterako, aldagelak konpondu dira. Alabaina, badituzte beste amets batzuk: harmailak egitea, adibidez. Horretarako, ordea, lehenengo proiektu bat egingo dute, baloratu eta Udalarekin harremanetan jarri.

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
Tapizatu lanak
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
Besaulki, mahai, saskiak e.a
Ondo ospatu jaiak!
943 78 71 65 • 639 01 69 69

KLYKATU

Kalebarren 1,
behea
943 78 60 54
Ondo ihli jaietan!

Marilina mertzeria

Gora Antzuolako jaiak!

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

LIBURU DENDA ESTANKO

Ondo ospatu jaiak!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

Nerea

Ondo ospatu jaiak!!

659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

Amets Berezaio

Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura
Gora Antzuolako jaiak!

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Pilota jaialdia egingo da bihar, pilotari antzuolarrak tarteko

Galeano ahizpak, Insausti, Mendizabal eta Balerdi udal pilotalekuan arituko dira pilotan, 18:30ean hasita

A.R.K. ANTZUOLA

Herriko jaietako egubakoitzean egin izan da pilota jaialdia urtetan, baina astebete aurreratzeko erabakia hartu zuten iaz, eta aurten ere horrela egitea erabaki du Olalde pilota elkar-teak.

18:30ean hasiko da jaialdia, eta bi partida jokatu dira, udal pilotalekuan. Nagore eta Leire Galeano ahizpa antzuolarrak osatutako bikoteak aurkari izango ditu Natale Aranburu eta Olatz Insausti pilotariak. Hain justu, Insausti ere antzuolarra da.

Lehen partida amaitzean hasiko da bigarrena, eta antzuolarrak izango dira protagonistetako batzuk, Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi herrikideak arituko baitira pilotan Ander Muruaren eta Aitor Elizegiren aurka.



Leire eta Nagore Galeano. IMANOL SORIANO

Doan da sarrera

Zortzi pilotaritatik bost izango dira antzuolarrak. Sarrera librea izango da; doan. Are gehiago, elkar-teak azpimarratu du bide-lagun izan dituela Antzuolako Udala, Erreka Taldea eta Goizper Taldea.

Jaiek trafikoan eta hondakinen zerbitzuan eragingo dute

Ezingo da erdigunean aparkatu, eta ezta handik igaro ere; zaborra 09:00etatik 12:00etara atera beharko da

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Datorren egunean, uztailaren 12an, hasiko dira Antzuolako jaiak, eta Udalak hainbat aldaketaren berri eman du, eragina izango baitute ibilgailuen trafikoan eta hondakinen egutegian.

Uztailaren 11tik 18ra bitartean, debekatuta egongo da ibilgailuak Herriko Plazan, eskolaren aurrealdean eta Sagasti auzoan aparkatzea; lehen ataritik pilotalekuaren ondoreneraino, hain justu. Horrez gainera, jaiek iraun artean, trafikoa ere mugatuta egongo da. Hala, Kalebarrenetik –zubia barne– Buztinzuriko 15. atariraino ezingo da autoarekin igaro; ezta Sagastiko lehen ataritik frontoi osteraino ere.

Hondakinen zerbitzua

Hondakinen zerbitzuan ere eragina izango dute jaiek. Traste

zaharrak, adibidez, eguaztenean atera beharko dira, ohiko ordutegian. Egubakoitzean, berriz, ontzi arinen txanda izango da; zapatuan, organikoarena; eta, domekan, errefusarena. 09:00etatik 12:00etara artekoa izango da ordutegia.

Edozelan ere, badaezpada, Sanjosepeko larrialdi gunean organikoaren eta ontzi arinen edukiontzia jarriko dira, eta Ondarrerako bidean, berriz, beirarena.

Beste ohar batzuk

Trafikoaren eta hondakinen berri emateaz gainera, Udaletik jakinarazi dute eguneko herri afarian ez dagoela izena eman beharrik, baina egubakoitzeko herri bazkarirako txartela hartu behar dela. Horretarako azken eguna gaur da, liburutegian edo udaletxean.



Larrain dantza, iaz. AITOR AGIRIANO

Larrain dantzako eta Alardeko entseguak egingo dituzte

Ohikoa izaten da herriko jaietan larrain dantza egitea domekan, eta Oinarin dantza taldeko kideak hasita daude entseguetan. Joan den martitzenean egin zuten lehena, eta datorren martitzenean izango da hurrengoa: hilaren 11n, 19:00etan, eskolako patioan. Horrez gain, Mairuaren Alardeko entsegu ere egingo dute: eguaztenean izango da, 19:00etan, Herriko Plazan.

10. urteurrena

672 69 66 30
Kalebarren 1 • Antzuola
helburu@helburu.com

2023-2024: Jardueraz beteriko ikasturtea!

IBARRE
NEKAZALTURISMOA
AGROTURISMO

Irimo Goena auzoa
ANTZUOLA

943 76 63 10
www.ibarre.com

Gora Antzuolako jaiak!

Marta Okindegia

Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

Ondo ibili jaietan!!

Cot
Peluqueria Cot
Edertze artoa

Animatu gure zerbitzu berriak ezagutzera:
Jai onak izan!!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

FERIXA NAGUSIXA 2023 ELGETAN



Herri Egunean harrera jaso zuten jaioberrak eta haien gurasoak udal ordezkariekin batera. MIREN ARANA



Alkatea, soka dantza barruan aurrekoa dantzatzeko. MIREN ARANA



Ganadu feria, domekan. OIHAN LOITI



Txosnagunea. MIKEL ZUMALDE



Herri bazkaria, plazan, zapatuan. ANDREA GONZALEZ

Kalean elkartu dira elgetarrak

Eguneroko zereginak aldi baterako bigarren maila batean utzi, eta jai giroan egin dute topo eta topa elgetarrek. Aurten, gainera, bueltan izan dira hainbat gune eta ekitaldi: txosnagunea, umeen euskal dantzak, soka dantza, ganadu azoka...

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Lehenagotik ere jakinekoa zen festazalerik ez dela falta Elgetan, eta 2023ko Ferixa Nagusiko jaietan argi ikusi da hori. Nork bere neurrian, jaiak ondo zukutu dituzte herritarrek. Jai Batzordeak egunerako deitu du balorazioa egiteko batzar irekia. Udal ordezkariak egiten duten hasierako balorazioa, ordea, positiboa da. "Nire ustez, primeran joan dira jaiak", adierazi du Ibon Unzetabarrenetxea alkatea. Alkatetz hartu berriaren zeregin berriak

ere izan ditu: "Lagunei ere horrela esan diet; uste dut hobeto pasa dudana urtea izan dela. Ez dakit zergatik, baina pertsonalki ederto pasa dut".

Beste urte batez, Herri Eguneko bazkaria izan da ekitaldi jendetsuenetako bat. "Aurten ere 500dik gora pertsona etorri dira bazkarira. Beteta egon zen plaza. Gero, Iheskideren bari-kuko kontzertuak ere jende asko erakarri zuen, eta Mugi Panderoa Elgetan dagoeneko ohikoa den kontzertu bat da. Herritarrek

oso ondo hartzen dute, eta plaza bete egin zen", gogoratzen du Unzetabarrenetxea.

Bueltan etorritakoak asko

2023ko jaien berezitasuna izan da gune eta ekitaldi askoren itzulera ekarri dutela. Txosnagunea, esaterako, bueltan izan da eta harrera beroa egin diote herritarrek. "Balorazio oso ona egin dute Gazte Asanbladatik ere, eta, kanpotik ikusita, agerikoa da lan handia hartu dutela eta jendeak hori

aitortu egin duela. Laguntza handia jaso dute". Asanbladatik eskerrak eman dituzte "jasotako erantzun eta laguntza guztiarengatik". Eskertzen zerrenda luzea da.

Umeen euskal dantzen emaldiak, udal ordezkarien soka dantzak eta herritar berriekin egindako kalejirak ere harrera oso ona izan dute.

Ganadu azokaren itzulera ere esanguratsua izan da. Abeltzainak gustura ziren, hitzordua bueltan izan delako, nahiz eta ohikoa baino jende gutxiago ibili izana onartzen zuten. "Tourra, beste herri batzuetan zeuden azokak eta erromeriak... Ez zen erraza izango aukeratzea. Hala ere, pozik gaude ganadu azokak izandako harrerarekin, eta hurrengo urteetara begira ere egiteko asmotan gaude", esan du alkatea. Barazki eta artisautza azoka ere ederra izan zen.

Pilota jaialdia

Ekitaldi asko izan dira jaietan, eta, tartean, egongo dira hobetzekoak ere, baina domekako pilota jaialdiak herritik kan-

porako dimentsioa eman zion Elgetari. ETBk eman zuen jaialdia, eta han erabaki zen gaur Iruñean jokatzekoa den San Fermin Txapelketako finaleko bigarren pilotaria. Elgetako finalerdian, Erik Jakak 22-16 hartu zuen mendean Mikel Urrutikoetxea, eta Jokin Altunaren kontra lehiatuko du gaur Labriten.

Jaietako argazki lehiaketa

Jaiak amaitu dira, baina Jai Batzordeak antolatutako argazki lehiaketa martxan da. Gaur amaitzen da lanak aurkezteko epea, 13.00etan. Jaietako argazki onenaren egileak 100 euroko saria jasoko du eta datorren urteko jaietako egitarauko azala izango da, gainera, irudia. Parte hartzeko, danonartian@elgeta.eus helbidera bidali behar dira argazkiak.

EGUENERAKO DEITU DUTE JAIEN BALORAZIOA EGITEKO BATZAR IREKIA; 18:30EAN IZANGO DA

Berdintasun batzordea dago nobedadeen artean

Udalbatzak martitzenean egin zuen lehen osoko bilkura. Aho batez onartu zituzten gai-zerrendako sei puntuak. Agintaldi berriak Berdintasun batzordea ere izango du, eta bi liberatu: alkateak lan-jardun erdia izango du eta Maialen Arnedok, herena



Elgetako udalbatza martitzenean osoko bilkuren aretoan. L.Z.L.

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Datozen lau urteetako funtzionamendua zehazteko bilkura izan zen, batez ere, martitzenekoa. Agintaldi berrian ere udalbatza bi hilean behin elkartuko da, eta batzordeak hamaika izango dira; aurreko agintaldian baino bat gehiago. Berdintasun batzordea da nobedadea. "Lehen, Ongizate batzordean lantzen zen gaia, eta, aurrerantzean, batzordea izango du. Berdintasuna denon lanketa da, eta uste dugu esku-hartze berezitua merezi duela. Horregatik sortu dugu", azaldu zuen Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

EAJko ordezkarien ustez, hamaika batzorde batzorde gehiegi dira. "Eudelek hiru batzorde gomendatzen ditu. Ez dakigu

hiru, sei edo zenbat izan behar duten, baina Elgetaren tamaina ikusita uste dugu murriztu egin daitezkeela", adierazi zuen EAJko ordezkari Iker Lakak. Bestalde, partaidetza, gardentasun eta ekonomia gaiak lantzeko espazio definituak ere aldarrikatu zituen jeltzaleak.

Agintaldia aurreratu ahala gaia berraztertze konpromisoa hartu zuen Ibon Unzetabarrenetxea. "Esan digute herritarrak gusturago etortzen direla espezifikoak diren batzordeetara. Ikusiko dugu zein maiztasunekin etortzen diren, eta agintaldiak ematen duenaren arabera berrikusi egin daiteke hori aldatzea".

Gauzak horrela, aho batez onartu zen batzordeen banake-

ta. Batzordeburuak ere izendatuta daude. Guztiak daude EH Bilduko ordezkarien ardurapean. Hala, EAJko ordezkariak oposizioan kokatu dute euren jarduna. "Hauteskundeetako emaitzak ikusita ez dugu batzorderik hartzeko proposamenik egin. Planteatu duguna da gobernu programa bat adostea, eta orain sei hilabeteko epea du Udal Gobernuak horretarako. Gure ideia da bi alderdiak elkartzea, programak bateratzea, proiektu

HAMAIKA BATZORDE ERATU DITUZTE; GUZTIAK EH BILDUKO ORDEZKARIEN ARDURAPEAN DAUDE

interesgarrienak adostea eta gainerako erakundeetan alderdi bakoitzak duen indarra baliatuta proiektu horiek aurrera ateratzea".

Udal ordezkarien ordainsariak

Aurreko agintaldian moduan, bi talde politiko izango dira oraingoan ere: EH Bilduk Ibon Unzetabarrenetxea izango du bozeramaile eta EAJk, Iker Laka.

Alkatearen lansariari dagokionez, Ibon Unzetabarrenetxea lanaldi erdira egongo da eta 19.235,02 euroko soldata gordina izango du, hamalau ordainketatan banatuta. Bigarren liberatu bat ere izango da agintaldi honetan: Maialen Arnedok lan-jardun baten herena eskainiko dio Elgetako Udalari, eta urtean 12.822,04 euroko soldata gordina jasoko du. Aurreko agintaldi hasieran alkatearendako onartutako urteko soldata gordina 35.224 eurokoa izan zen.

Gainerakoan, talde politiko bakoitzak 20 euroko ordainketa finkoa jasoko du hilero, eta, horrekin batera, 15 euro hilean zinegotziko. Zinegotzien dietei dagokionez, parte hartu izandako udalbatza bakoitzeko 25 euro ja-

soko ditu hautetsi bakoitzak, eta batzordeburu direnek beste 35 euro hileko. Alkatea salbuespena da kasu horretan: ez du osoko bilkuretan parte hartzeagatik dietarik jasoko, ez eta batzordeburu izateagatik ere. Aurreko agintaldian ere horrela zen, eta ordainsariak berdinak ziren.

Kanpoko erakundeetan

Elgetako Udalak kanpoko erakundeetan izango dituen ordezkariak ere izendatuta daude: Ibon Unzetabarrenetxea izango da Elgetako ordezkaria Debagoieneko Mankomunitatean, Suradesan, Gipuzkoako Ur Kontsorzioan, Deba Garaia Landa Garapena elkartearen, Zubillaga hiltzei elkartearen eta Eudelen. UEMAn Ibon Unzetabarrenetxea eta Maialen Arnedo izango dira ordezkariak, Herri Eskolako kontseiluan Kepa de Vega eta Bideberri Mankomunitatean Ibon Unzetabarrenetxea, Saioa Alberdi eta Mikel Larrea.

Elgetako udalbatza hil amaieran elkartuko da berriz; izan ere, uztailaren 26rako deituko dute hurrengo osoko bilkura. 19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

Batzordeak

- **Obrak eta Hirigintza** Ibon Unzetabarrenetxea.
- **Ogasuna eta Pertsonala**: Ibon Unzetabarrenetxea.
- **Kultura eta Euskara**: Maialen Arnedo.
- **Ongizatea**: Saioa Alberdi.
- **Berdintasuna**: Jone Elkoro.
- **Ingurumena**: Miren Ibarbia.
- **Hezkuntza eta Gazteria**: Kepa de Vega.
- **Kirola**: Ibon Unzetabarrenetxea.
- **Baserritarrak**: Ibon Unzetabarrenetxea.
- **Memoria Historikoa eta Turismoa**: Jone Elkoro.
- **Jaiak**: Ibon Unzetabarrenetxea.

Ofimatika formakuntza egingo dute erretiratuek KZgunean

Oraingoz, bost lagun daude izena emanda astelehenean hasi eta hilaren 21era arte egingo duten ikastarorako

L.Z.L. ELGETA

Xalbadorpe elkartetik bazkideendako propio eskatutako formakuntza da, eta bina orduko hamar saio egingo dituzte astelehenean hasi eta uztailaren 21era bitartean. Saioak KZgunean

izango dira, 18:00etatik 20:00etara, astelehenean barikura.

Oraingoz, bost lagunek eman dute izena, eta hogeitau orduko ikastaroan testu-dokumentuak, kalkulu-orriak eta aurkezpenak sortzeko oinarriko programak

erabiltzen ikasiko dute. KZguneko dinamizatzaileak azalduko du programa bakoitza nondik eta nola deskargatu daitekeen eta aplikazio bakoitza zertarako den eta zer-nolako aukerak eta tresnak eskaintzen dituen.

Formakuntza digitalean ahalgin handia egiten ari dira azken hilabeteotan Xalbadorpe elkartetik. Liburutegiarekin eta KZgunea zerbitzuarekin elkarlanean hainbat formakuntza antolatuta dituzte, eta denak irten dira aurrera.

Udako ordutegia du asteotan liburutegi zerbitzuak

Udako irakurketak aukeratzeko unea da eta udal liburutegia aukera ona da horretarako. Zerbitzuak udako ordutegia du asteotan. Uztailaren 28an da abuztuko oporren aurretik zabalik egongo den azken eguna. Bitarte horretan, astelehenean 14:30-20:00 artean egongo da zabalik eta asteko gainerako lanegunetan, 10:00etatik 13:00etara.

Euskara ikasteko Udalaren dirulaguntzak

Gaur da azken eguna dirulaguntzetara aurkezteko. Betebeharrak artean daude 16 urtetik gorakoa izatea eta Elgetan errolatuta egotea. Nortasun agiria- ren kopia, matrikularen kopia eta ordainagiria zein ikastaroa egin den euskaltegiak egindako ziurtagiria ere aurkeztu behar dira. Ezinbestekoa da gutxienez %80ko asistentzia bermatzea.



1954an matrikulatutako kamioi bat, 1971ko uztailaren 10ean; Jose Luis Erle da gidaria. ANDRES ARLANZON



Oñatiarra-ren autobusa, 1931n matrikulatua, 1957an. ANDRES ARLANZON FUNTSA



Juan Mujika apaiza motorrak bedeinkatzen 1957an. ANDRES ARLANZON FUNTSA

Gidariak zaintzen jarraitu dezan

Istripua izanez gero elkarri diruz laguntzeko sortu zuten San Kristobal ermandadea. Lehen baino aseguru gehiago eta fede gutxiago dago egun, baina gidariak, mekanikariak, tailerrerako langileak eta auto-zaleak elkartuko dira afaltzeko



Joan den urteko San Kristobal eguneko ospakizunean. GOIENA

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Astelehenean, uztailak 10, da San Kristobal eguna, gidarien zaindarien eguna, eta aurten ere egingo dute ibilgailuen bedeinkazio ekitaldia Olabarrietako santutxoan, 20:00etan. Handik ordubetera, afaria egingo dute adin askotariko herriko hainbat kamioi, taxi eta autobus gidarik, mekanikarik, tailerretako langilek eta auto-zalek.

60 pezeta urtean

Gidari izateak zituen arriskuak ikusita, gehienak autonomoak izanda eta egungo aseguruak oraindik ez zeudela, elkarri laguntzeko elkarte bat sortu zuten 1917an Donostian: Montepio de San Cristobal. Oñatikoa geroago sortu zuten, 1961eko uztailaren 10ean. 34 kide ziren hasieran elkartean, Genaro Villar Galdos presidente zela. Txarriduna jabetxean egin zuten bazkaria sorrera ospatzeko.

Donostian sortutako elkarte haren filosofia eta helburu berearekin sortu zuten Oñatikoa ere: istripuren baten ondorioz sortutako baja-egonaldietan zein erretiroa hartzean, gidari horri laguntza emateko diru poltsa bat sortzea. Ermandadeari buruz Jose Ramon Arrazolak idatzita duen liburuan datorren moduan, 25 pezeta zen kide izateko ordaindu beharreko hasierako kuota; eta lehen urteetako urteko zenbatekoa, 60 pezeta. Ermandadeko bazkideek 1963an hartutako erabakiaren ondorioz, errepidean izandako istripuaren ondorioz 25 pezeta ordainduko zitzaion gidariari hiru hilabetez gehienez, baja hamar egun baino gehiago luzatuz gero. Istripu larria gertatuz gero, ezohiko batzarra deituko zuen zuzendaritzak, ezohiko laguntza nola eman erabakitzeko, onartuz gero. Sistema hark ez zuen askorik iraun: hiru bat urte, gutxi go-

rabehera. Azken indemnizazioak 1966koak dira.

Auzotarrek apainduta

Orduetik hona, gauza asko aldatu dira. Aseguruena bat eta fedarena beste bat, tartean. Eta santutxoko zaintze lanetarako boluntario asko ez badaude ere,

oraindik jarraitzen dute eguna ospatzen, garai batean egiten zituzten pilota partidurik egin gabe bada ere. Egun, 44 kide daude ermandadean, baina kide ez diren auto-zaleek ere izena emanda dute astelehenean Sorraluzen egingo duten afarirako joateko. Uztailaren 10ean talde

horrek urtero egiten duen elkartzeko hitzordu horrek bizirik jarraitzen du oraindik.

20:00etarako apainduta izango dute santutxo Olabarrietako auzotarrek. Parrokoak bedeinkatuko ditu lorez apainduta joango diren ibilgailuak, eta auto-ilara eginda joango dira afaltzera.

Ermandadeko kideen txartela

San Kristobal ermandadeko kideek txartela ere bazuten. Argazkian ikusten den txartelarekin batera, otoitzerako testu bat dakarren orritxo bat gordetzen zuten, Arantzazuko Amaren irudi batekin batera. Hori Reyes Elorza Ugarterena da (Oñati, 1941); sorreratik kide, egungo nagusiena.



Ermandadeko kideek atera zuten karneta. O.E.G.



Ekainaren 29an egindako ezohiko osoko bilkura. O.E.G.

Hamabost batzorde, eta lau zinegotzi liberatuta

Zerbitzuak, Landa Garapenak, Sozioekonomiak eta Turismoak euren batzordea izango dute agintaldi berrian. Eta lau zinegotzi liberatu egingo dituzte: osoa Izaro Elorzak eta partziala Xabier Igartuak, Iñigo Ruizek eta Iñaki Olalde

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Agintaldi berriko udal jarduna aho batez eratu du egungo udalbatzak horretarako propio egindako ezohiko osoko bilkuran. Han onartu zituzten, esaterako, zenbat zinegotzi liberatuko dituzten –eta haien dedikazioa–, batzorde informatiboak zeintzuk izango diren eta zein ordezkari egongo diren horietan. Batzordeei dagokienez, hamahiru izan dira aurreko agintaldian eta hamabost datorren honetan, baina ez dago batzorde berririk; lehen bakarrean sartzen zirenak banatu egin dituzte orain. Hau da, Zerbitzuak eta Landa Garapena berezitatea egongo dira, eta baita Sozioekonomia eta Turismoa ere.

Liberatutakoen kopuruan ere gertatu da aldaketarik. Joan den urtean oposizioko bozerramaileak %60ko dedikazio partziala zuen, eta EAJko udal taldeko inork ez du hartu, oraingoz. Bestalde, 2021eko irailetik aurrera %30eko dedikazioa hartu zuen Asier Iraetak, eta Udal Gobernuak lehendik zituen lauri batu zaie. Agintaldi honetan, bi horiek gutxiago izango ditu udalbatzak: lau, guztira. Osoa Izaro Elorza alkateak –53.220,02 euro gordin urtean–; erdia Xabier Igartuak eta Iñigo Ruizek –20.514,34 euro gordin urtean–; eta %30ekoa Iñaki Olalde –12.308,66 euro gordin urtean–.

Tokiko Gobernu Batzordeko kideak ere aukeratu zituzten; alkatea eta EH Bilduko beste bost zinegotzi: Elorza, Igartua, Ruiz, Olalde, Altube eta Zubizarreta.

Azken eguenetan ohikoak

Izaro Elorza (EH Bildu) eta Amaia Erostarbe (EAJ) izango dira udalbatza osatzen duten taldeetako bozerramaileak. Hileko azken eguenetan izango dira, normalean, ohiko bilkurak, 18:30ean; lehengo uztailaren 20an egitea proposatu zuten. Bestalde, Udalak parte hartzen duen erakundeetan izango dituen ordezkariak ere onartu zituzten. Goienakoa, esaterako, Iker Oñate izango da hasi berri den agintaldi honetan.



NIRE USTEZ

ARANTZAZU UGARTE ZUBIA

Zikinkeria artean eroso?

Ospitalera joan eta zikinkeriaz beteta aurkitu dut sarrera. A, bai, garbitzaileak greban daude, gogoratu dut. Baina, harritzekoa bada ere, irten naizenean bakarrik ikusi dut. Hainbeste ohitu al naiz ingurua zikin ikustera?

Duela gutxi, Eibarren izan nintzen jaietan. Kontzertuak amaitzean, plaza zaborrik zapaldu gabe oinez zeharkatzen saiatuko banintz, ez nukeen lortuko. Baina eguneroko gaia da, tamalez. Oso ohikoa da kuadrilla bat egon den kale-izkina batean hainbat zabor aurkitzea joaten direnean. Eta zaborrarekin ez ezik, jaso beharrekoekin ere gertatzen da. Pintxo-potea dagoen bakoitzean, adibidez, tabernatik hainbat metrotara uzten dira kristalezko edalontziak, edozein harmailatan, edo lurrean bertan. Horien bila ibiltzea zerbitzarien lana dela pentsatuko dute batzuek.

Hainbeste kostatzen al da nork bere zakarra jasotzea? Edo erabilitako edalontzia terrazako mahaietara, sikiera, gerturatzea? Erosokerian igerian bagabiltza, laster itoko gara zikinkerian.

Gazteen sormenerako eta kirolerako dirulaguntza

Haur eta Gazteria Sailak 13.200 euro banatuko ditu gazteen sormen lanak laguntzeko. Zortzi eskatzailek hamabost proiektu aurkeztu dituzte, eta denak babestuko ditu Udalak. Lehen deialdian zegoen diru gutzia agortu ez denez, urrian beste dirulaguntza deialdi bat egingo dute. 1.800 euro geratu dira.

Bestalde, kirol elkarten eta taldeen artean 13.000 euro banatuko dira urteko jarduna eta ekintzak antolatzen laguntzeko. Hamaika eskaera jaso dira, guztira, eta denak babestuko ditu Udalak. Orain, %60 emango zaie, eta, ekintza egin dutela egiaztatzean, dagokien kopuruaren beste %40a.

OHARRAK

Arranok 40 urte

40. urteurreneko bazkaria egingo du Arranok 15ean. Txartelak salgai: aste honetan, 20 euro; hurrengoan, 25.

Trianako jaiak

19:00etan helduko da Astotrasto Trianara, eta domeka iluntzera arte iraungo duten jaiak hasiko dituzte.

Emakumion Etxia

Emakumion Etxiaren barne espazioak landu dituzte, eta ekarpen horiekin barne antolaketaren proposamena landu du arkitekto talde batek. Gaur, horren aurkezpena egingo dute. Saio irekia da, eguaztenean, 18:30ean, Eltzian.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Gimnasia erritmikoko ikasleak, aurten egindako erakustaldi batean. GIMNASIA ERRITMIKOKO SAILA

Gimnasia erritmikoko campusa antolatu dute

Ikasturtea hasi aurretik egingo da, abuztuaren 31tik irailaren 6ra bitartean, LHko 4. mailako ikasleak eta zaharragoak direnekin. Lehenengo aldiz antolatu dute eta helburua da gimnasia erritmikoa ezagutzea, probatzea eta kirolarekin gozatzea

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Resu Muruak presidente kargua utzi ostean, duela hilabete batzuk zuzendaritza batzorde berria eratu zen gimnasia erritmikoko sailean. Gogotsu eta ilusioz agertu ziren orduan GOIENARI eman-dako elkarrizketan. Aire freskoa sartzeko beharra ikusi zuten, eta,aldi berean, proiektu berriak martxan jartzeko; horren adibide da lehenengoz antolatu duten gimnasia erritmikoko campusa. "Zuzendaritza berria sartu zenean proiektu berriak egiteko asmoa azaldu zuten bertako kideek, eta hau horren adibide garbia da. Etorkizunera begira proiektu gehiago egiteko asmoa ere badugu", dio Lide Osinagak gimnasia erritmikoko kirol arduradunak.

Berezitasun moduan, campusak egin ohi diren datetatik kanpo izango da, ikasturtea hasi baino lehen; abuztuaren 31n hasiko da eta irailaren 6ra arte iraungo du. Izen ematea jada itxita dago eta LHko 4. mailako eta hortik go-

rako 30 bat lagun batu dituzte lehenengo edizio honetarako; erantzuna "oso ona" izan dela azpimarratu du Osinagak.

Helburua, gozatzea

Oñatiko gimnasia erritmikoko saileko kideek ez dute lehiaketetan parte hartzen, urte amaieran egiten dituzte emanaldi bereziak: kirolaz gozatzea da helburua. "Gu ez gara lehiatzen, baina, lehiatzeaz gain, beste aukera asko daude gimnasia erritmikoaz gozatzeko". Sailetik ikusi dute denboraldia edo ikasturtea amaituta klub barruko beste sail batzuek edo beste gimnasia erritmikoko talde batzuek ere campusak antolatzen dituztela uda sasoiari; hori izan

**ABUZTUAREN 31N
HASI ETA ETA
IRAILAREN 6RA
BITARTEAN EGINGO
DUTE CAMPUSA**

da campusa aurrera eramateko beste arrazoietako bat.

Etorkizuna eraikitzeak aukera

Campusa sortzearen beste arrazoietako bat etorkizuna eraikitzen jarraitzea izan da. Ikasturtean zehar taldean egon direnek ez ezik, gimnasia erritmikoa ezagutzen ez dutenek ere aukera izan dute izena emateko. Askotarikoak landuko dituzte; besteak beste, beroketak, koreografiak, aparatua, mailloten apainketak, erakustalditarako makillajea. "Gauzak ikusi, probatu eta kirol honekin gozatzeko aukera da eskaintzen duguna", adierazi du Osinagak. Gainera, kirol arduraduna jakitun da esperientzia horretatik etorkizuneko gimnastak irten daitezkeela: "Campusa aukera ona izan daiteke parte hartuko dutenek ondoren gurekin jarrai dezaten". Gainera, gauza berriak probatu eta lantzeaz gain, "hainbat sorpresa" ere egon daitezkeela esan du Lide Osinagak.

Ohiko batzar nagusia egin du Aloña Mendiren futbol sailak

Amaitu berri den denboraldiaren balantzea egiteaz gain, datorrenera begira egin beharrekoak aztertu zituzten

I.B.K. OÑATI

Aurten hamahiru talde izan dituzte zelaian, eta harrobian emakumeak hartzen ari diren indarra azpimarratu zuten. Balantze ekonomikoan, 1.277 euroko galerarekin amaitu du klubak, batez ere, autobus bidaiak direla eta; hala eta guztiz, futbol sailak 78.628 euroko saldo positiboa du. Bazkideei dagokienez, 400 baino gehiago dira gaur egun eta denboraldi berriari begira kuotak mantendu egingo dira. Azkoagaingo sarrerara, aldiz, 6 eurotik 4ra jaitsiko da.

Kirol arloan, talde nagusiak bi irteera izango ditu, Gorka Irizar eta Carlos Odriozola Elgoibar taldera joango baitira. Talde gorenak, momentuz, entrenatzaile gabe daude; gainontzeko taldeak, berri, osatuta. Talde nagusiaren egoera "komplexua" izan dela adierazi dute, eta, emakumezkoen kasuan, Leintz proiektuan murgilduta jarraituko dutela esan dute. Gainera, datorren denboraldian klubak 75 urte beteko ditu eta urteurren hori kudeatzeko lantalde berri bat osatu dute.

Gaztetxe bira bukatuta, ikusgai dago 'Mari' Youtuben

Iazko abenduan aurkeztu zuten *Mari* filma Oñatin, eta, ondoren, gaztetxe birari ekin zioten. Hilabete hauetan, guztira, 26 emanaldi egin dituzte Euskal Herriko hainbat gaztetxetan, eta orokorrean "harrera ona" izan duela azpimarratu dute filmeko kideek. Gainera, esperientzia horretan, jendeari bizi izan duen errealitatea ikusteko aukera eman dio film horrek, baita gaztetxea izateko borrokan dabiltzan herri batzuetan erakusteko aukera ere; denetariko "emozioak" jaso dituztela gaineratu dute biran egon diren kideek. Helburua beteta, orain Youtube plataforman ikusgai dago, duela bi astetik hona.

Pirinioetara irteera antolatu du Aloña Mendiren mendi sailak

Bi eguneko mendi irteera antolatu dute uztailaren 15erako eta 16rako, eta Arango haranera izango da irteera. Lehen egunean, Oñatitik 05:30ean irtengo dira eta Artiesen hasiko dute ibilbidea, Restanca aterperaino. Bigarren egunean, berriz, aterpetik hasita, Montardo mendia igoko dute, berriz Artiesera jaitsi eta etxera buelta egin aurretik. Izena eman nahi duenak uztailaren 9a izango du azken eguna eta 90 euro ordaindu beharko ditu; diru-sarrerara Aloña Mendiren kontu korrontean egin beharko da. Plazak mugatuak izango dira -hogei pertsona-, eta bazkideek izango dute lehen-tasuna.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganese Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

FRANTZIAKO TOURRA DEBAGOIENEAN



Tropela Arrasateko Otolara Lizentziatua zeharkatzen, txalo artean. I.S.



Aramaion, autostop egiten. I.A.



Udanako magalean egindako jaietan 125 lagun batu behar ziren bazkaltzeko. O.Z.

Zalea ez dena ere irten da bide bazterrera

ZIKLISMOA Domekan debagoiendarrak inoizko Tour hasiera onentsuenaren testigu izan ziren. Aramaioko, Arrasateko eta Oñatiko bide bazterrak jendez eta ikurrinez bete ziren. Aparteko zaletasunik ez duena ere bertaratu zen ikusmina asetzera

Xabier Urzelai ARRASATE Domekan Frantziako Tourrak 40 minutu inguru egin zituen Debagoiengan, baina nahikoa izan zen halako ebentua baten inguruan dagoenaz jabetzeko. Tour honetako bigarren etapa askoren gogoan geratuko da, izan ere, bitxia bada ere, gutxi akordatzen dira 1977ko uztailaren 4an hemendik pasa zen edizioarekin. Orduko etapa hura ere Gasteizen hasi zuten, baina aste barruan zen eta zale amorratuak Deskargan pilatu ziren orduan.


Orain, berriz, aramaiorrek, arrasatearrek eta oñatiarrek ez diote lasterketa herritik pasatzen

ikusteari uko egin –errepideak hainbat orduz itxita egonda, bestelako aukerarik ere ez zegoen–. Eta ondoko herrietatik ere asko gerturatu dira ibilbideko punturen batera. "Ez gara txirrindularitza zaleak, baina hau ikusi beharra dago". Esaldi hori behin baino gehiagotan jaso zuten GOIENAKO mikrofonoek.


Errepidean ikuskizuna

Askotan izan ziren Gure Eskuren deialdiari kasu egin eta ikurri-na hartuta lasterketa ikustera joan zirenak, baina aldarrikapenetatik harago, errepidean ikuskizuna ziklistek eman zuten.

Edvald Boasson Hagen (TotalEnergies) Neilson Powless (EF Education-EasyPost) eta Remi Cavagna (Soudal-Quick Step) zortzigarren kilometroan joan ziren aurrera –hemen 4 minutuko aldearekin pasa ziren– eta Jaizkibelgo maldetaraino tropelak ez zuen harrapatu ihesaldian *bizirik* geratu zen ordezkari bakarra, Powless estatubatuarra. Jaizkibelen behera Pello Bilbaok egin zuen aurrera, baina eraso erabakigarria Victor Lafay-rena izan zen, helmugatik kilometro batera. Wout Van Aert ez zen izan esprintean hura harrapatzeko kapaz, eta amorratuta iritsi zen Kursaalera.



Karabanak ez zituen denak asetu. O.Z.



Mendiko mallota eta bisera hartu berri. O.Z.



Lidl-Trek taldeko Markel Irizar lagunak agurtzera geratu zen Udanan. O.Z.




ERIK GARTZIA
ARAMAIO

"Herritarrek jaietan murgilduta gaudela harrapatu gaitu Tourrak, baina hau historikoa da, zaila izango da ostera ere halako bat herritik pasatzen ikustea".




EDORTA ARANA
ARRASATE

"Ez naiz kirolzalea, baina halako kirol ikuskizun handiak gustura jarraitzen ditut. Gure Eskuren gonbidapena onartuta etorri gara aldarrikapena egitera".



ARANTZAZU LAGUNILLA
ARRASATE

"Halako ikuskizunak kalean ikusita gozatzen da gehiago, sekulako giroa egon da eta oso gustura egon gara Tourraren bueltan sortu dena ikusten".



SAIOA ARKONADA
OÑATI

"Koadrila planean etorri gara, umeekin batera lasterketa ikustera. Lehenengo aldia da Tourra bertatik bertara ikusten dudana; giroarekin gozatu dut".



MIKEL LIZARRALDE
OÑATI

"Eguraldiarekin zortea izan dugu eta giro ederra egon da. Jende asko ikusi dut ikurrinak hartuta. Hau amaituta, lagun taldea bagoaz Pirineotara".

Dena ez da Tourra: Antzuola saria domekan

ZIKLISMOA Etzi jokatu dute Antzuola sariaren 77. aldia. Iaz, Lizartekoek erakustaldia egin zuten, hiru taldekide batera sartu ziren-eta helmugan. Bada, txapela jantzi zuen Pablo Carrascosa irteera-puntuazio izango da; ibarreko ziklistak ere lehiatuko dira

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Joan da Frantziako Tourra, baina txirrindularitza hori baino gehiago da. Lehen ere bazen lasterketak Debagoienan, eta aurrerantzean ere izango dira. Ez dago zain egon beharrik, gainera, domekan jokatu dute-eta, Peña Ayastuik antolatuta, Antzuola sariaren 77. aldia, Iñaki Lete memoriala.

Lasterketa Lehendakari txapelketarako baliagarria izango da. Hain zuzen, txapelketa hori zapatuan hasiko dute, Murgian. Eta domekan izango dute asteburuko bigarren zita, Antzuolan; 23 urtez azpikoekin batera 27 urtez azpikoak ere izango dira irteera-puntuazio (09:30), eta tropel handia batuko da, egunerako 169 txirrindularik emana zuten-eta izena.

Lizartekoek nagusitasuna

Lasterketak urteroko zirkuitu klasikoa izango du: ziklistek birritan igoko dute Deskarga, eta Asentzioko maldek egingo dute, 100. kilometroan, tropelean aukeraketa zorrotza. Ikustear dago hor bakarren bat aurreratu den edo taldetxo batek egingo duen aurrera, Elgetatik Bergarara jaitsi eta Antzuolan azken esprint erabakigarria egiteko.

Iaz, Lizarteko mutilek –gaur egungo Finisher taldea– erakustaldia egin zuten, hiru ziklista batera iritsi ziren-eta helmugara. Pablo Carrascosa extremadurarrak lortu zuen garaipena, baina eskutik helduta helmugaratu ziren Sinuhe Fernandez eta Pablo Castrillo. Izan ere, Asentzioko igoera erabakigarria Enekoitz Azparren (Laboral Kutxa), Pablo Castrillo eta Sinuhe Fernandez (Lizarte), Angel Coterillo eta Iker Trigo (Gomur-Cantabria Infinita) eta Jan Castellon (Caja Rural-Alea) heldu ziren ihesaldian. Kanpazarren behera ziztu bizian joan



Pablo Carrascosa erdian, Pablo Castrillo eta Sinuhe Fernandezekin, iaz. GOIENA

IAZ LASTERKETA IRABAZI ZUEN PABLO CARRASCOSA ANTZUOLAKO IRTEERAN IZANGO DA

Uztaila probaz beteta dator

Datorren asteburua ziklismo lasterketez beteta dator. Batetik, zapatuan, hilak 15, emakumezkoendako hitzordu bikoitza izango da Lokatzak eta Aloña Mendiko ziklismo sailak antolatuta. Batetik, goizean San Martingo igoera egingo dute. Eta berotutik ia errekuperatu barik, arratsaldean Ulma Txallengea jokatu dute Oñatin. Domekan, berriz, Lehendakari txapelketako Dorletako Ama saria jokatu dute Leintz Gatzagan.

ostean, Antzuolarako bidean eta sei kilometroren faltan heldu zen taldera Carrascosa.

Heldu bezain laster, helmugarako sei kilometro gelditzen zirela erasoia jo zuen extremadurarrak, eta haren bi taldekideek ederki babestu zuten atzetik. Azkenean, Antzuola herri-gunera hirurak batera heldu ziren, segundo batzuetako abantailarekin, eta eskutik helduta sartu ziren, gainera. Bada, domekan Pablo Carrascosa irteera-puntuazio izango da. Oraingoan ez du Fernandez eta Castrilloren babesik izango, baina Finisher izango da gertutik zaindu beharreko taldeetako bat.

Debagoiendarrak irteeran

Domekan, Antzuolako irteera puntuazio izango dira zenbait ziklista debagoiendar, besteak beste, Unai Cueva (Grupo Eulen-Nuuk) Aimar Erostarbe (Baque Team) eta Aimar Medina (Caja Rural) oñatiarrak. Hain zuzen, iaz, eguneko protagonistetako bat Aimar Erostarbe oñatiarra izan zen. Baque taldekoa eguneko ihesaldian sartu zen-eta.



Oñatiko taldeko jokalariek, aurtengo partidu batean. MIGUEL PEREZ

Gutxi iraun die pozak Ingou Coinbroker-ekoei; ez dira igoko

ARETO FUTBOLA Oñatiko taldeak ez du Euskal Ligan jokatu, nahiz eta Zubikoan igoera fasea irabazi zuten

X.U. OÑATI

Zubikoan jokatu dute igoera fasean arabarrak eta bizkaitarrak mendean hartzea ez da nahikoa izan Aloña Mendiko Ingou Coinbroker taldearentako. Ez dira Euskal Ligarako igoko. Hori adierazi diete Gipuzkoako Federazio ordezkariek, eta, albiste dagoeneko barneratu badute ere, saileko presidente Santi Bernal minduta dago Euskadiko Federazioarekin: "Ez dakigu gaizki-ulertua izan den edo zer, baina Euskal Federaziotik oraindik ez dugu jakinarazpenik jaso, ez mezurik eta ez posta elektronikorik ere; ezer ere ez".

Klubak Euskal Ligarako igoera fasea Zubikoan antolatzea onartu zuen –Gipuzkoari tokatzen zitzaien–, eta fasea irabazita uste zuten igoera txartela poltsikoan zutela. "Halaxe egin genituen, gainera, ospakizunak. Baina, antza, nahiz eta azken

urteotan Euskal Ligan urtero egon den hiruko torneoko irabazleendako tokia, esan digute aurtengoa ez dagoela bete gabeko plazarik".

Noski, afera horrek ez du eragina talde bakarrean soilik izan. "Gipuzkoan beste bi talde daude, guk utzitako hutsunea betetzeko mailaz igo behar zutenak. Eta orain, haiek ere zeuden tokian geratu dira. Pena da, jokalariek sekulako lana egin dutelako aurtengoa eta ilusio handia zutelako Euskal Ligan jokatzeko", adierazi du Bernalek.

Jokalarien jarrera txalotu du

Bernalek jokalarien jarrera txalotu du: "Eurak izan dira zuzendaritzakoak lasaitzen ibili direnak. Motibatuta daudela esan digute, eta datorren urtean saiatuko direla mailaz igotzen. Igoera fasean ikusi dute Euskal Ligan jarduteko kapaz direla".

HOCKEYA Bergara Hiria jokatzera zazpi talde datoz bihar, zapatua

Burdinolak antolatuta, hockey txapelketa egingo dute bihar Labegaraietan. Segoviako eta Valladolideko talde bana etorriko dira, eta gainontzeak Euskal Herrikoak izango dira. 09:00etan hasiko dituzte partiduak, eta aurreikuspena da finalak 18:00etan hastea. Domekan, berriz, hiruko txapelketa egingo dute.



Espainiako Txapelketa. GOIENA



Mondra&Roll jaialdiko antolatzaile taldeko Igortz Iturbe eta Iker Arroniz, atzo, eguena, Monterron parkean. IÑIGO BARRENA

Belaunaldi ezberdineko rock-zaleak bat eginda Mondra&Roll jaialdian

Arrasateko Mauka Musikagintzak, HFMN Crew eta Gasteizko Jimmy Jazz aretoak antolatu dute, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, bigarren Mondra&Roll musika jaialdia; gaur eta bihar egingo dute Monterron parkean, 18:30ean hasita

Aitziber Aranburuzabala Juldain ARRASATE

Heldu da rockaren askotariko erpinak maite dituzten zaleek esperotako bigarren Mondra&Roll musika jaialdia. Gaur, egubakoitza, hasi eta bihar bitartean, hamazazpi musika proposamen izango dira Monterron parkeko agertokiaren gainean. Euskal Herrikoak, horien artean Arrasateko Special Crew eta Arkada Social taldeak, eta askotariko nazioarteko musika formazioak izango dira gaur eta bihar Arrasateko Monterron parkean.

Iaz moduan, bi sarrera mota daude eskuragarri: eguneko sarrerak (40 euro gehi lau euro tramite gastuak) eta bi egunetako bonoa (65 euro eta 6,60 euro tramite gastuak); *Musikaze.net* atarian daude eskuragarri. "Jaialdian sartzeko sarrera formatu fisikoan edo digitalean ekarri

ahal izango da. Monterron parkeko sarreraren dauden postuetan aldatu beharko dira sarrera horiek eskumuturrekoengatik: gaur, egubakoitza, 16:30etik 23:00etara eta zapatuan, ordutegi berarekin. Eskumuturrekoa uneoro soinean eramane beharko da eta ez dira onartuko aldatu edo manipulatu egin badira", azaldu dute antolatzaile taldeko Iker Arronizek.

Monterron, jaialdiaren erdigune Iazko jaialdiak bi gune izan zituen: Monterron parkea izan zen gune nagusia eta parkearen sarreraren ondoan dagoen Kondekuan kokatu zituzten merchandising eta bestelako saltokiak. Oraingoan, parkearen barruan izango dira zerbitzu guztiak. Eta beste berrikuntza bat da jaialdiko gunetik gura denean irteke eta sartzeko aukera izango

dela. "Iaz, hasiera baten, jaialdiaren gunetik gura beste aldi-tan ateratzeko eta sartzeko aukerarik ez zela izango iragarri genuen arren, geroago baimendu egin genuen eta aurten aukera hori malgutzea erabaki dugu. Halako jaialdi bat antolatzeko bere karga ekonomikoa du eta egiten den inbertsioari ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeko asmoz zantzak izaten dira, orokorrean, kontu horrekin, baina sartu-irtenak baimentzearen alde egin dugu aurten; izan ere, gure jaialdiari nortasun berezia em-

"TOKI ITZELA DA, BAINA AZPIEGITURA ALDETIK MUGAK DITU MONTERRONEK"

IKER ARRONIZ, ANTOLATZAILEA

ten dion ezaugarri bat da Arrasateko erdigunean, alde zahar-raren ondoan, dagoela kokatuta eta egokia iruditu zaigu, jaialdira datorren jendeak herriko txokoak eta tabernak eta bertako giroa ezagutzeko aukera izatea, harremanak sustatzeko eta beste kale-giro baten gozatzeko", azaldu du antolatzaile taldeko Igortz Iturbek.

Musikari veterano asko

Punk eta Oi! taldeak izan ziren, bereziki, iazko jaialdiko kartelean protagonista, eta aurtengoan ere bide antzerakotik jarraitu dute hard-core estiloko taldeak ere gonbidatuta. "Euskal Herrian, orokorrean, hard-core estiloaren zale asko gaude, eta aurtengo eskaintzan hori islatu gura izan dugu. Iazko eskaintza hobetzea zaila zen, baina pozik gaude aurten osatu dugun kartelarekin. Tamaina ertaineko jaialdia gara, aurrekontuari eta bestelako baliabideei begiratuta, eta Monterron toki itzela bada ere, baditu, azpiegitura aldetik, talde batzuk bertara ekartzeko mugak. Nazioarteko ibilbide luzeko talde batzuk izango dira gurean, esaterako, Bad Manners, Buzzcocks, UK Subs, Sick of it all edo Perkele, eta oso pozik gaude, hainbat urtetan euren atzetik ibili ondoren, azkenean lortu dugulako Ameriketako Estatu Batuetako Interrupters taldea Arrasatera ekartzeko, euren birako azken kontzertua izango da, zapatuan, Mondra&Rollen egingo dutena".

Frontwoman indartsuak

Aimee Allenek gidatzen du Jesse, Justin eta Kevin Bivona anaiekin osatzen duen egun jarraitzaile asko dituen Interrupters talde amerikarra, baina Allenez gainera, aurten, Monterroneko agertokian iaz baino emakume musikari gehiago izateko apustua egin dutela azaldu du Arronizek. "Ez da erraza, baina argi dugu ahalegin hori egitea dagokigula promotoreei eta bestelako antolatzaileei egoera aldatzea gura badugu, eta oso pozik gaude, esaterako,

"ATERATZEKO ETA SARTZEKO AUKERA IZANGO DU HALA GURA DUENAK"

IGORTZ ITURBE, ANTOLATZAILEA

emakume indartsu bat buru duen Svetlanas talde errusiarra, baina Italian egoitza duena, zapatuan Monterronen izango delako, eta, egun horretako egitaraua, Erresuma Batuko Maid Of Ice laukoteak zabalduko delako, hau da, lau ahizpak osatzen duten talde oso indartsua da, duda barik, hori ere".

Gazteei ere tokia

Euskal Herriko taldeei eta musikari gazteei "handien artean" lekua egitea ere, bada, Arronizen esanetan, Mondra&Rollen helburua: "Ezinbestekoa da hori, eta gainera, Euskal Herrian harrobi oso interesgarria dugu. Iazko maketa lehiaketa irabazi zuen Agur taldeak zabalduko du gaurko egitaraua eta Rotten XIII nafarrak ere gaur izango dira. Era berean, Arrasateko taldeak ere gonbidatu ditugu, besteak beste, Beitia anaiek kide diren Arkada Social gonbidatuta eta garai baten zuten Special Crew taldea berpiztuta".

Kanpatzeko, Arruena parkea

Arrasateko hotelak eta inguruko herrietakoak beteta izango dira datozen egunotan, hori horrela, "hutsune hori betetzen laguntzeko asmoz" antolatzaileek ahalegin berezia egin dute Eroski merkatalgunearan alboan dagoen Arruena parkean kanpatzeko gunea eskainita. "Zorixarrez, eskualdean ez dugu lo egiteko nahikoa aterperik eta

Jaialdiko egitaraua

Uztailak 7

- 18:00 Ate irekiera.
- 18:30 Agur.
- 19:15 Special Crew.
- 20:15 Rotten XIII.
- 21:20 UK Subs.
- 22:30 Perkele
- 23:50 Sick of it all.
- 01:10 Bad Manners.


Uztailak 8

- 18:00 Ate irekiera.
- 18:30 Maid of Ace.
- 19:15 Svetlanas.
- 20:00 Hell Beer Boys.
- 21:05 Subterranean Kids.
- 22:10 Buzzcocks.
- 23:20 Arkada Social.
- 00:45 The Interrupters.

iaz arazo bat izan genuen azpiegiturari dagokionez. Aurten konpontzen saiatu gara, eta Udalarekin harreman ona dugun arren, Udaletako hauteskondeak tarteko, oso berandu heldu zaigu kanpalekua egokitzeko baimena eta ezin izan dugu guk gurako genukeen besteko zerbitzuak han eskaini. Hala ere, 150 furgoneta edo autokarabana ingururako kanpatzeko tokia izango da dohainik. Eskainiko dugun zerbitzu bakarra, han gertu dagoen kiroldegiko dutzak



Arruena parkea, furgonetak eta autokarabanak akanpatzeko gunea. A.A.



Manu Chao musikariak kontzertu akustikoa egingo du. MANU CHAO.NET

Manu Chao, domekan

Mondra&Roll jaialdiaren babesean eskarmentu handiko Manu Chao musikariak kontzertu akustikoa eskainiko du domekan; Eire eta Burutik taldearen emanaldiak izango dira aurretik. Sarrera guztiak agortuta daude.

Jaialdiko zerbitzuen kokagunea

ITURRIA: MONDRA&ROLL



erabiltzeko aukera izango da; zapatuan eta domekan, 10:00etatik 14:00etara. Gure nahia da, espero dugun moduan, jaialdiak jarraituz gero, datozen jaialdiertarako askotariko zerbitzuak izango dituen kanpaleku potente bat eskaini ahal izatea".

Zerbitzu informazioa

Segurtasuna bermatzeko, honako arau horiek jakinarazi dituzte antolatzaileek jaso dituzten ohiko galderari erantzunez: "Arropategiari dagokionez, ez dugu kontsigna zerbitzurik izango. Galdutako objektuak tikitetara eramango ditugu. Edariei dagokionez, ez da kanpoko edaririk sartzen utziko eta edalontzi berrerabilgarriak, bi eurotan izango dira Monterron parkeko taberna guztietan salgai. Jaialdiaren gunean sartzea debekatua izango da honako objektu hauekin: kristalezkoak, metalezkoak, jaurti daitezkeenak eta sukoiak edo sendoak diren objektuak; hori horrela, sarra guztien segurtasuna bermatzeko kontrolak izango dira, beraz, ahalik eta lankidetz handiena eskertzen diegu guztiei. Era berean, erabat debekatuak daude bengalak edo edozein motatako piroteknia tresnak; halakorik dituztenak jaialdiaren gunetik kanporatuak izango dira. Esan barik doa, bizilagunak eta ingurunea errespetatu egin behar direla, bada, errespetuzko portaera izateko eskatu nahi diegu jaialdira etorriko diren guztiei".

EUSKAL HERRIKO ETA NAZIOARTEKO HAMAZAZPI TALDE IZANGO DIRA MONTERRONEN

Goienakideen txokoa

EKAINEKO SARIAK

TD Telebista (32')
Parte hartzeko sariaren izena: telebista

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE 'sariaren izena' [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Inbentarioa 2023/07/07 18:00ean hasiko da, jaialdia amaitu ondoren. Gure komunikazio zerbitzuan sartzearen ondorioz, batera zozketatuko dira. Zozketaren ondoren, zozketaren emaitza goienakide.eus webgunean argazkiarekin argazkiatuko da. Zozketaren ondoren, zozketaren emaitza goienakide.eus webgunean argazkiarekin argazkiatuko da. Zozketaren ondoren, zozketaren emaitza goienakide.eus webgunean argazkiarekin argazkiatuko da.

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Egiritu Puntu aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: uztailak 11

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jabetza [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Donostia. Uda pasatzeko apartamentua ematen da errentan. Terraza ederra duen pisu txikia, Gros auzoan. Hondartzatik gertu eta hornituta: sukaldeko tresneria, izarak, eskuoihalak eta abar. Oporrak pasatzeko aproposa. 657 73 79 90

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar du. 663 40 92 67

Oñati. Bi ume eta lan finkoa duen neska oñatiar batek hiru logelako etxea hartuko luke errentan. Oñatin. 669 45 10 40

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxeren baten egun osoz lan egiten duen emakume batendako logela daukat errentan emateko. 632 83 32 44

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago. Soziosanitario titulazioa, gidabaimena eta autoa. 680 87 38 66

Arrasate. Asteburuetan edo gauetan garbiketara zein nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. 632 83 32 44

Arrasate. Mutil gazte gertu arratsaldetan edo asteburuetan lan egiteko. Zerbitzari, garbitzaile, zaintzaile edota pintore laguntzaile. 722 51 53 75

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Bergara. Pertsona nagusiak zaintzen edo gabiketa lanetan hasteko prest nago. 677 00 90 26

Bergara. Neska arduratsua eta euskalduna ekainetik uztailera umeak zaintzeko prest. 688 84 93 56

Debagoiena. Astean zehar arratsaldetan eta asteburuen egun osoz lan

egiteko gertu nago. 656 79 28 37 (Eider)

Debagoiena. Astean zehar zaintza lanak egin- go nitzuke. Erabateko prestasuna. Egunez zein gauetz. 604 87 83 09

Debagoiena. Asteburuetan, orduka, lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota garbiketara. Soziosanitario titulazioa daukat. 632 34 22 25

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu nago. Asteburuetan. Soziosanitario eta legezko agiriarekin. 634 85 66 51

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako prest. Soziosanitario titulazioa daukat. 632 21 99 06

Debagoiena. Emakume langile eta arduratsua asteburuetan nagusiak zaintzeko edota ebeko langile moduan aritzeko gertu. 624 81 93 71 (Maria)

Debagoiena. Emakumea gertu ebeko langile moduan, garbiketara edota nagusiak zaintzen lan egiteko. 632 19 08 26

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Astean zehar orduka, asteburuetan edota gauetan. 602 80 15 38

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 677 00 90 26

Debagoiena. Emakumezkoa gertu astean zehar nagusiak zaindu eta etxe, atari eta abarrak garbitzeko. 600 29 05 24 (Ana)

Debagoiena. Eraikuntzan, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan aritzeko gertu nago. 673 92 29 90 (Andres)

Debagoiena. Esperientzia duen mutila nagusiak zaindu eta pasean laguntzeko gertu. Baita garbiketara, atariak egiten edo tabernan ere. Telefonoa: 642 37 95 87

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaindu eta pasean laguntzeko gertu. Baita atari eta abarren garbiketara. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Ebeko langile moduan arituko nintzateke, ebexan bertan bizi izanda edo bestela. 682 40 53 38

Debagoiena. Ebeko langile moduan aritzeko gertu nago, orduka edo egunean zeharreko jardunez. 633 49 27 40

Debagoiena. Ebex ebeko laguntzaile, soziosanitario titulazioa eta 19 urteko esperientzia duena, lanerako gertu. Autoa daukat. Telefonoa: 687 27 01 37

Debagoiena. Garbiketara lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, asteburuetan. 612 56 12 39

Debagoiena. Garbiketara edo zerbitzari moduan lan egingo nuke. Telefonoa: 640 65 23 82

Debagoiena. Garbiketara zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo ebexan bertan bizi izaten. 631 34 11 68

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: sukalde laguntzaile, baserriko lanak edota nagusiak zaintzen. Autoa daukat. 642 25 21 91

Debagoiena. Gizonezkoa gertu astean zehar nagusiak zaindu, garbiketara lanak edota eraikuntzan

laguntzaile gisa aritzeko. 642 57 76 25

Debagoiena. Nagusiak orduka zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago. Legezko agiriarekin. 640 38 92 82

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketara lan egingo nuke, arratsaldez zein gauetz, orduka. 666 49 37 17

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketara eta abarrean lan egingo nuke. Baita orduka ere. Soziosanitario ziurtagiria eta legezko agiriarekin. Telefonoa: 677 00 90 26

Debagoiena. Neska arduratsua gertu orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbiketara, sukalde laguntzaile edota frutategian edo arropa denda. Telefonoa: 643 09 07 47

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketara eta nagusiak zaintzen. 691 28 53 25

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketara lanetarako prest. Gauetz ere bai. 666 07 42 98

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketara, hotelean edo garbiketara lan egingo nuke. Euskaraz piska bat egiten dut. 688 71 08 09

Debagoiena. Zaintza eta garbiketara lanak egingo nitzuke. 613 77 18 56 edo 605 28 85 92

Debagoiena. Zaintza eta garbiketara lanetan aritzeko gertu nago, ebexan bertan bizi izaten, egunean zehar edo orduka. 643 29 75 77

Oñati. Neska euskadun arduratsua ekainean eta uztailen umeak zaintzeko gertu. 647 44 42 85

Oñati. Neska euskadun arduratsua uztailen umeak zaintzeko prest. Telefonoak: 688 63 60 34 edo 695 78 41 14

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. 674 72 06 03

Txakurkumeak. Txakurkumeak ematen dira opari, neurri txikiakoa. 747 75 59 20

ZORION AGURRAK

OÑATI
Maren Luis Gomez

Uztailaren 13an, 9 urte. Zorionak, Maren! Ederki ospatu eguna eta muxu asko etxeko danon partetik.

BERGARA
Martin Lazkano Bilbao

10ean, 9 urte. Korrika edo jolastan, geldi, ixilik edo abesten; beti irrifarrez, egin irrifarre bizitzan!



OÑATI

Eñaut Biain Agirrezabalaga Uztailaren 9an, 9 urte. Zorionak, Eñaut. Oso ondo pasau eguna. Muxu pila bat familixaren partetik. Asko maite zaitugu.

BERGARA
Anne Osuna Igartua

8an, 8 urte. Zorionak, maitxia! Muxu erraldoi bat familia guztiaren partetik!



BERGARA

Izei Oribe Moreno Uztailaren 7an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Eskerrik asko gure egunak alaitzeagatik. Pila bat maite zaitugu, Izeitxo! Besarkada erraldoi bat etxekuen partetik. Bereziki Kenar eta Alaine.

ESKORIATZA
Alexander Julen Maturana Sheen

Uztailaren 7an, 7 urte. Zorionak zure familixaren partetik!

ARAMAIO
Maren Muñoz Lopez de Bergara

7an, 7 urte. Zorionak, Maren! Patxo handi bat etxekoen eta familia osoaren partetik!

ARRASATE
Ibai Madinabeitia Lasa

Uztailaren 5an, 4 urte. Zorionak, xagutxo! Ondo-ondo pasa zure egunean! Muxu erraldoia!

ANTZUOLA
Libe Reboreda Zabalo

Uztailaren 5ean, urtebete. Zorionak, Libe, zure lehenengo urtebetetzan! Etxekoen partetik.

ARRASATE
Aimar Horrillo Zallo

Uztailaren 4an, 3 urte. Zorionak, Aimar, familia osoaren, eta bereziki, Anerrren partetik!

BERGARA
Unai Sanchez Gonzalez

Uztailaren 4an, 8 urte. Zorionak, Unai! Zorionak familiaren partetik. Asko maite zaitugu!

ARRASATE
Izadi Balanzategi Robledo

3an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Familixa osoaren partetik, bereziki, Ekiñe.

OÑATI
Naroa Urkia Goenaga

1ean, zorionak, bihotza! Bi urtetxo! Muxu eta besarkada erraldoi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI

Maddi eta Irati Igartua Agirre Ekainaren 29an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zuen eguna eta patxo erraldoi bat aitaxoren eta amatxoren partetik!

ARETXABALETA
Pakita Karames

Ekainaren 28an, 71 urte. Zorionak, amama! Asko maite zaitugu! Unai eta Beñat.

BERGARA
Irati Eraso Lete

Ekainaren 27an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat familia danaren partetik, eta segi halako alai izaten!



BERGARA

Daphne eta Achille Rocafort Lete Uztailaren 3an 6 urte eta uztailaren 6an 6 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Asko maite zaituztegu!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO.

Korosti Inmobiliaria | Ibergorri 3 • BERGARA | Tel./Fax: 943 76 97 87 | www.inmokorosti.com

BERGARA:

- Arutaga, 100 m², 3 logela, igogailua, trasterikua, bihotza sartzea. 260.000€
- Zabaloaga, 80 m², 3 logela, igogailua, trasterikua eta terraza bertan. 185.000€
- Emi, 81 m², 800/1100m² erabilera, 3 logela, trasterikua, garaje. 234.289€
- Zabaloaga, 65 m², 3 logela, trasterikua, bihotza sartzea. 130.000€
- Elkarre, bi erabilera: 70m² eta 70m², 3 logela, igogailua, garaje, trasterikua. bi berrik.
- Berriola, 65 m², 2 logela, igogailua, trasterikua, bihotza sartzea. 175.000€
- Linak, 79 m², 3 logela, trasterikua, garaje 10m², bihotza sartzea. 220.000€
- Arriola, 90 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€
- Ackamutz, 60 m², 2 logela, trasterikua, bihotza sartzea. 100.000€
- Berriola, 72 m², 3 logela, apartekoak, lur saila, apartamentu (berri barri). 185.000€
- Emi, 60 m², 2 logela, trasterikua, terraza, bihotza sartzea. 144.000€
- Frankasari, 102 m², 4 logela, igogailua, eguzkiuz. 179.000€
- Uztar posadikoa, 71 m², 2 logela, igogailua, bihotza sartzea. 240.000€
- Modena, 53 m², 2 logela, bihotza sartzea. 148.000€
- Modena, 75 m², 2 logela, bihotza sartzea. 149.000€ PREZIO JITSIERA.
- Modena, 75 m², 3 logela, berriola, bihotza sartzea. 150.000€ Negozioerria.
- Modena, 75 m², 3 logela, bihotza sartzea. 185.000€
- Modena, 86 m², 3 logela, bihotza sartzea. 150.000€ PREZIO JITSIERA.
- Modena, 86 m², 3 logela, berriola, bihotza sartzea. 150.000€ Negozioerria.
- Martinetegi, 96 m², 4 logela, trasterikua, igogailua. 129.500€ PREZIO JITSIERA.
- Sonamendak, 75 m², 2 logela, 2 apartekoak. Bihotza sartzea. 175.000€
- Zabaloaga, 60 m², 2 logela, bihotza sartzea. 75.000€
- Zabaloaga, 72 m², 3 logela, garaje sutsua. 130.000€

LOKALAK:

- Iturrak, (Las Olivas), 55 m², oso egokia errentan. Bi terraza. 82.000€
- A. Fleming, (Pillgorria) 50 m², garajea inguruko sukara. Bi terraza eta. 65.000€
- Balduerriaga, 354 m², 3 lokal batzuk, bi terraza. Osoa daiteke. 95.000€
- Modena, 114 m², Bereziki errentan. Osoa erabilgarria gabe. 80.000€

GARAJAK:

- Iturrak, 13 m². Terraza zabala eta errentan. Garaje 10m². 25.000€
- Bali, 16,47 m². Garaje 10m². 25.000€

BASERRIAK:

- Angulo, Partekoak osoak, berria eta 3 hektarria lurra. 175.000€
- Uztar, berria eta 15 hektarria lurra. 220.000€ PREZIO JITSIERA.
- Ackamutz, garaje berriarekin dagoen berria, lurra. 75.000€

ANTZUOLA:

- Kalipoi, 126 m², duplex, 3 logela, garaje, bihotza sartzea. 280.000€ PREZIO JITSIERA.
- Berriola osoa, 56 m², 2 logela berriola, bihotza sartzea. 129.000€
- Berriola osoa, 96 m², 3 log. Trasterikua eta garaje berri. Bihotza sartzea 198.000€
- Iturrak osoa osoa. Osoa berri. bihotza sartzea 295.000€
- Iturrak osoa osoa. Osoa berri. bihotza sartzea 120.000€
- Kalipoi, etxe osoa, bi erabilera eta trasterikua. 120.000€

EBEXIA:

- Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, terraza ederra, trasterikua. 158.000€
- Solbado, 89 m², 2 logela, igogailua, garajea. ESTREMATZERA. 125.000€
- Solbado, 89 m², 3 logela, igogailua, garajea, errentan behar du. 85.000€

OROIGARRIA

Ramon Azkarate Muguruza
Bergarako Udaleko langilea
2023ko ekainaren 30ean hil zen.



Bergarako Udalbatza eta langileak.



Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Ramon Azkarate Muguruza
2023ko ekainaren 30ean hil zen.



*Goiz joan zara,
baina ez zaitugu ahaztuko.
Agurrik ez, gero arte baizik.*

Intxortako kuadrilla.
Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Ramon Azkarate Muguruza
2023ko ekainaren 30ean hil zen.



Gurekin betirako

Poligonoko kuadrilla.
Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Ramon Azkarate Muguruza
2023ko ekainaren 30ean hil zen.



*Ez ditugu ahaztuko
oparitu dizkiguzun
une alai eta barre algarak.
Jarraitu izarretan ere
garraxi egiten.
Faltan botako zaitugu.*

Zure loibak: Antxon eta Elene, Josu eta Ane, Uxue, Naiara eta Lierni.
Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Agurtzane Elorza Larrañaga
2023ko ekainaren 27an hil zen, 60 urte zituela.




Zure lankideok ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Mizpirualde egoitza.
Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

ESKER ONA

Jose Ramon Madinabeitia Jauregi
Pilar Garaikoetxea Etxanizen alarguna
2023ko uztailaren 5ean hil zen, 84 urte zituela.




Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko uztailaren 7an.

URTEURRENA

Felix Erostarbe Elorza
2022ko uztailaren 9an hil zen, 75 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko uztailaren 7an.

URTEURRENA

Maria Jose Aramburu Arregui
2022ko uztailaren 7an hil zen, 59 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko uztailaren 7an.

URTEURRENA

Enrique Agirre Lizarralde
2022ko uztailaren 7an hil zen, 87 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko uztailaren 7an.

HILDAKOAK

Jose Luis Ezkurra Oiarzabal. Arrasaten, ekainaren 27an. 92 urte.
Agurtzane Elorza Larrañaga. Bergaran, ekainaren 27an. 60 urte.
Isidro Vicente Calvo. Aretxabaletan, ekainaren 28an. 72 urte.
Mercedes Bolinaga Garai. Arrasaten, ekainaren 29an. 91 urte.
Francisco Gustavo Berrafato. Arrasaten, ekainaren 29an. 66 urte.
Ramon Azkarate Muguruza. Bergaran, ekainaren 30ean. 57 urte.
Epifanio Lopez Benito. Arrasaten, ekainaren 30ean. 91 urte.
Jose Maria Sanchez Mangas. Arrasaten, uztailaren 2an. 93 urte.
Eugenia Mendiguren Etxezarreta. Arrasaten, uztailaren 3an. 91 urte.
Vicenta Bengoa Iraola. Arrasaten, uztailaren 4an. 101 urte.
Jose Ramon Madinabeitia Jauregi. Bergaran, uztailaren 5ean. 84 urte.

12. URTEURRENA

Mikel Pagalday Aguiriano
2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.



*Zuhaitz beraren adarrak gara,
norabide ezberdinetan hazi bagara ere.
Gure sustraiak berdinak dira
eta gu, zutik gauden bitartean,
zu ere biziko zara, Mikel.*

Igandean, hilak 9, Eskoriatzako San Pedro Parrokian, 11:30ean, izango da hamabigarren urteurreneko meza.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, sendikoen izenean.
Eskoriatzan, 2023ko uztailaren 7an.

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



*Guri deitu zuzenean edo, nahiago
baitzue, jakinarazi zuen aregura-
kospainari gurekin nahi dituzela agurtu
naitte dituzena.*

*Marioven, Ibanen eta Maribiren
partetik, besarkada magikoak
zuzentzeko, bihotza sendatzeko balo
dituen horietakoak. Guk baditugu gordetu
zuzentzeko, gure beharru dituzenerako.*

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**KOKEIN TALDEAREN KONTZERTUA**

Eibarko taldeak Arrasateko Kooltur Ostegunetan egindako emanaldia osorik entzuteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**2007KO ANTZUOLAKO JAIK**

Aurtengo jaiak girotzen hasteko, 16 urte atzerago jaiak zelan ospatu ziren ikusi ahal izango dute.

'Artxibotik tiraka' Zapata, 19:00 eta 21:00

**BERGARA HIRIA HOCKEY TXAPELKETA**


Txapelketak ematen duenaren laburpena egingo du Xabi Urzelaik, irudiekien eta jokalarien adierazpenekin.

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

**GARAIA INVESTORS JARDUNALDIETAN**

Saio berezia egingo dute Garaia Gunetik, han egingo diren jardunaldiak aprobetxatuz.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ANTZUOLAKO JAIEN HASIERA, ZUZENEAN**

Zuzeneko saioa egingo dute Antzuolako Herriko Plazatik, Goiatz Aranek aurkeztuta eta hainbat gonbidaturekin.

'Bereziak' Eguena, 19:45



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7**OÑATI Odol ematea**

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

Enpresagintzan, 16:30etan.

ARRASATE Mondra&Roll jaialdia

Perkele, Sick Of It All, Bad Manners, UK Subs, Rotten XIII, Special Crew eta Agur taldeak.

Monterronen, 18:00etan.

OÑATI 'Erresistentzia zapatista' erakusketa

Uztailaren 14ra arte ikusgai.

Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA UDAREN OHIKO eta ezohiko batzar orokorrak

Besteak beste, 2023-2024ko denboraldiaren aurkezpena egingo dute.

Arkupen, 18:30etan.

OÑATI Trianako jaiak

19:00etan, Astrotrastoren jaitsiera; ostean, txorimaloak eta erraldoiak eta Bolibiako pintxoak; 19:30ean, presoen aldeko elkarretaratzea; eta 22:00etan, Malko, Etxepe eta Azid taldeak.

Trianan.

BERGARA Kamikaze Helmets taldea

Rock, blues eta funk doinuak, Berumuga zirkloaren baitan.

Espoloian, 22:00etan.

ARAMAIO Korterraza jaialdiko film laburrak

Mix 2 saileko film laburrak emango dituzte.

Elizako eskaileretan, 22:00etan.

BERGARA San Kristobal jaiak

Saiheski-jana, sagardoa eta txokolate-jana.

San Kristobalen, 22:00etan.

ZAPATUA 8**BERGARA Emakumezkoen hockey txapelketa**

Bergara Hiria txapelketa jokatuko dute.

Labegaraietan, 09:00etan.

OÑATI 'Aitzuloko begia' irteera gidatua

Familiendako txangoa. Aurrez izena ematea beharrezkoa da:

arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94.

Araotzen, 10:00etan.

ARRASATE Avesantes elkartearen urteurrena

11:00etan, haurren lasterketa; 12:00etan, jolasak; 13:00etan, pregoia; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bingo-jokoa; 18:00etan, DJ Dani; 20:00ean, txistorra parrillan erreta; eta 21:00etan, Patxi Luqueren emanaldia.

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetan.

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua

Industrializazioa garaiak eraikinak eta istorioak ezagutzeko aukera. Izena emateko: Arrasate.eus edo 943-25 20 00.

Biteri plazan, 11:00etan.

OÑATI Trianako jaiak

12:00etan, umeendako marrazki saioa; 13:00etan, Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen emanaldia; 15:00etan, Ilinti kafea; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, ur-pistola gerra; 18:00etan, txorimaloak eta erraldoiak; 19:00etan, Bolibiako pintxoak; 20:30ean, Sukena taldea, eta 23:00etan, Muxutrak taldea eta DJ Edozer.

Trianan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo info@gatzmuseoa.com.

Gatz Museoa.

ARRASATE Mondra&Roll jaialdia

The Interrupters, Buzzcocks, Arkada Social, Subterranean Kids, Svetlanas, Hell Beer Boys eta Main Of Ace taldeak.

Monterron parkean, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA Eugenio Otsoa bola-txapelketa

Alkate ohi zenaren omenezkoa.

Bolatokian, 18:00etan.

BERGARA San Kristobal jaiak

Fan & Go taldearekin erromeria.

San Kristobalen, 23:00etan.

DOMEKA 9**ARRASATE 'Udalatxera igoera Kanpanzartik' mendi ibilaldia**

7,5 kilometrokoa. Izena emateko: Arrasate.eus edo 943-25 20 00.

Udala auzoan, 09:00etan.

OÑATI Trianako jaiak

10:00etan, goiz-ereserkia; 13:00etan, Oñatzeko emanaldia; 15:00etan, auzo-bazkaria; 18:00etan, Potx eta Lotx pailazoak; eta 21:00etan, Xolonporen omenezko traka.

Trianan.

ARAMAIO San Kristobal jaiak

12:00etan, meza; eta ostean, bertsolariak eta trikitilariak; 15:00etan, auzo-bazkaria; eta 17:00etan, bolo-txapelketa.

Uribarri auzoan.

BERGARA San Kristobal jaiak

Meza, autoen bedeinkapena, auzoko erretiratuendako luntxa eta mariatxi doinuak.

San Kristobalen, 12:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo info@gatzmuseoa.com.

Gatz Museoa.

ARRASATE Manu Chao (sarrerak agortuta)

Musikari paristarrak kontzertu akustikoa eskainiko du. Burutik eta Eire taldeak ere izango dira oholztan.

Monterron parkean, 18:00etan.

ASTELEHENA 10**BERGARA San Kristobal jaiak**

Meza, txikiteoa eta auzo-afaria.

San Kristobalen, 12:00etan.

OÑATI San Kristobal eguna

20:00etan, ibilgailuen kontzentrazioa Olabarrieta auzoko Santutxoan; 20:15ean, leku berean,

santuari dei egiteko ekintza eta ibilgailuan bedeinkapena; eta 21:00etan, afaria.
Olabarrieta auzoan.

MARTITZENA 11

BERGARA Batzar irekia udaletxean

Herri-lur ez-urbanizagarrien diagnostikoa osatzeko bilera irekia egingo du Udalak herritarrekin.
Osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Begiekin ikusten gara!' zirku ikuskizuna

Zirkoloretsua konpainiak malabarrak, magia eta pailazoen emanaldia bateratzen dituen emanaldia egingo du.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Kobr3' antzezlan

Zirkozaurre konpainiaren kale-antzerkia, Udazabal ekimenaren baitan. Hiru artistak malabar teknikak, objektuen manipulazioa, *Cir* gurpila, bertikalak eta mugimendu konpasatuak konbinatzen dituzte.
Biteri plazan, 20:00etan.

EGUAZTENA 12

ELGETA Erretiratuak, Santoñara
Xalbadorpe elkartekoek bi eguneko bidai egingo dute.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

BERGARA Mutrikuko igerileku naturalera irteera

12-16 urte arteko nerabeendako. Aurrez eman behar da izena.
Akeitako autobus geltokian, 11:00etan.

BERGARA Kafekonpon

Etzetresna txikiak konpontzeko aukera.
San Joxepe elkartean, 16:00etan.

OÑATI Emakumion Etxia: barne antolaketaren aurkezpena

Irekia.
Eltzian, 18:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Garaiko produktuak erosteko.
Oxirondo azokan, 19:00etan.

OÑATI Sara Azurzaren kontzertua

Donostiako bakarlarria, Kalean egitarauaren baitan.
Lazarraga lorategian, 19:00etan.

ARETXABALETA '¡Dale Ramón!' antzezlan

Trapu Zaharra taldeko Santi Ugalde aktoreekin. Debalde.
Kalean, 19:00etan.

EGUENA 13

ARETXABALETA Portasol auzoko jaiak

17:00etan, ur-jolasak, txosnagunean; 19:00etan, pintxo-poteoa, auzoan; eta 21:30ean, kilometro-kontagailuaren aurkako I. lasterketa.
Portasolen.

ARRASATE Noa & The Hell Drinkers taldea

Donostian sortu zen taldea, 2016an, eta urte hauetan bi lan argitaratu ditu modu independentean: 2018an *Noa & The Hell Drinkers* eta 2020an *Craft blues*.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA Mice taldea

Miren Narbaizaren eskutik. Euriarekin, Seminarixoan.
Usondo parkean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 14

ARETXABALETA Portasol auzoko jaiak

17:00etan, buruhandiak, erraldoiak eta gaiteroak, auzoa girotzen; 19:00etan, patata-tortilla txapelketa; 19:30ean, txupinazoa eta karro-poteoa; 21:30ean, Youth United, Laino Beltzak eta Oihu! taldeen kontzertua; 23:15ean, Lekittoko Deabruak taldearen piroteknia ikuskizuna; eta 01:30ean, DJ Mikel Nighth.
Portasolen.

ARRASATE Zerrajerako jaiak

17:00etan, haur jolasa; 18:15ean, dantza erakustaldi; 18:45ean, magia ikuskizuna; 19:30ean, konpartsa txikia txistulariekin; 20:45ean, hurrendako afaria;



YESSICA CORPAS

ARRASATE 'Kobre3' antzezlan

Zirkozaurre konpainiako hiru artistek malabar teknikak, objektuen manipulazioa, *Cir* gurpila, bertikalak eta mugimendu konpasatuak konbinatzen dituzte.
Hilaren 11n, martitzena, Biteri plazan, 20:00etan.

21:30ean, auzo-afaria; eta, 22:30ean, dantzaldia.
Zerrajerakalean.

ESKORIATZA Zedemontre topaketa

Maddi Gabilondo, Irati Etxebarria eta Larraitz Iparragirre taula gainean.
Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

BERGARA 'Udako zerua ezagutzen'

Astronomia behaketa.
Seminarixoan, 19:00etan.

ARRASATE The Fake Cousins taldea

Paul San Martinek, Jon Airak eta Javier San Martinek osatzen dute taldea. Arrasate Blues ekimenaren baitan.
1990 gastrotekan, 19:00etan.

ARRASATE Bluedays Band taldea

Bluesaren generoari lotutako ibilbidea luzea duen Madrilgo taldea. Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Taupan, 20:30ean.

ZINEMA

GASTEIZ

FLORIDA

Aisha
Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehena eta martitzena: 19:30.
El primer día de mi vida
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:15. Astelehena eta martitzena: 19:45.
El zorro
Egubakoitza: 19:30, 22:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30, 22:00. Astelehena eta martitzena: 19:45.
Indiana Jones y el dial del destino
Egubakoitza: 16:45, 19:45, 21:30.

Zapatua eta domeka: 11:30, 16:45, 19:45, 21:30. Astelehena: 17:00, 2:00. Martitzena: 17:00.
La sirenita
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.
Los guardianes del planeta
Egubakoitza: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:45, 17:00. Astelehena eta martitzena: 18:00.
Ruby: aventuras de un kraken independiente
Egubakoitza: 17:30, 19:30.

Zapatua eta domeka: 11:45, 17:30, 19:30. Astelehena eta martitzena: 17:15.
Spiderman, cruzando el multiverso
Egubakoitza, astelehena eta martitzena: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.
Te estoy amando locamente
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45. Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.
Una vida no tan simple
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45. Astelehena eta

martitzena: 17:30, 20:00.
Vacaciones de verano
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00, 22:30. Astelehena: 17:30, 19:30. Martitzena: 17:15, 20:00.
Vesper
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:00. Astelehena eta martitzena: 20:00.
CFG
Martitzena: 19:30.

BERGARA Iker Piris & His Dual Electrics
Rhythm&blues eta boogie doinuak.
Espoloián, 22:00etan.

ARRASATE Afrika Bibang bakarlarria

Ibilbide musikala Ke No Falte reggae taldearekin hasi zuen eta zortzi urtez Etsaiak punk-rock taldearen parte izan zen. Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Irati tabernan, 22:30ean.

ARRASATE Erromintxelak taldea

Lau arrasatearrek eta bergarar batek sortutako taldea, Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Aterpen, 23:59an.

ZAPATUA 15

BERGARA San Martzial txirindularitza igoera

Bergara Hiria Emakumezkoen Saria izango da. Kadeteendako eta gazteendako proba.
Oxirondo plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA Portasol auzoko jaiak

11:00etan, lasterketa, Bizkaia kalean; 12:00etatik 14:00etara, puzgarriak; 15:00etan, bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, Bixentak taldea; 19:00etan, triki-poteoa; eta 22:00etan, Etxepe, DMT –Denso, Mutiko, Tatta–, Even eta Baken Ekso Pxl 721 taldeak. Ostean, DJ Karapaixo.
Portasolen.

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Ondare historiko kulturala ezagutzeko. Aukera ezin hobea da bertako jaien eta ohituren kontakizunak eta pertsonaia ezagunen bizipenak entzuteko. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.
Biteri plazan, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo *info@gatzmuseoa.com*.
Gatz Museoa.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Milagarrena

Mila, asko ala gutxi da? Astekari honen lehenengo zenbakia eta 999.a hartuko bagenu, mila dezente dela ikusiko genuke. Nahikoa politikan, gizartean, ekonomian, kulturean eta beste hainbat alorretan bailaran izan diren aldaketek jabetzeko. Hainbat esparru irauli dira mila zenbakitan, eta GOIENA astekaria bera ere aldatuz joan da.

Komunikazioa aro berrian murgilduta dabil, eta, iraultzetan gertatu ohi denez, batzuk atzean geratu eta beste batzuek aurrera egiten dute. Ez da gutxi, testuinguru berri horretan milara iritsi, euskaraz jardun, eta askoz ere baliabide gehiago dituzten komunikabideei iskin eginez norberak bere esparrua finkatzea. Ikerketek diotenez, jendea gogaituta dago hainbeste albisterek, eta zurrumbilo horretatik ihes egiteko joera atzematen da. Notiziaren erabilgarritasuna eta gizatasuna omen dira irakurleak bereganatzeko gakoak, eta joko-zelai horretan astekari honek badu zer jokatu.

Zelakoa izango ote da GOIENA bi milara iristean? Paperean irakurriko dugu? Auskalo! Baina apustu egingo nuke orduan ere hurbileko informazioa jendearen interesekoa izango dela.

BUKATZEKO

Nabigazio gozoa historian zehar, Oñatiko artxibotik

XVI. mendeko San Juan ontziko bale-txaluparen txokolatezko erreplika Oñatiko artxiboko sotoan egongo da ikusgai abuztuaren 4ra arte; Gozoa elkarteko gozogile artisauek 180 kilo txokolate erabili dute zortzi metro luze eta bi metro zabal dituen ontzi berezia egiteko

Jokin Bereziartua Lizarazu OÑATI
1.800 kilo txokolate XVI. mendeko San Juan ontziko bale-txalupetako baten neurri bereko pieza egiteko, zortzi metro luzeran eta bi zabaleran. Duela bi urte *Gernika*-ren txokolatezko bertsioa egin zuten Gozoa elkarteko artisauek gozogileek egin dute honako pieza berezia ere. *Gernika* jaso zuen lehen herria izan zen Oñati eta aurten ere Oñatirena izan da lehen eskaera.

Oñatiko artxiboko sotoan
Izan ere, Oñatik txokolatearekin duen harreman ukaezinaz harago, txalupa berezia Oñatira ekartzeko arrazoia ez da txokolatea bakarrik izan, Izaro Elorza alkatearen arabera. Elorzak gogora ekarri du Selma Huxley ikeritzailea 20 urtez ibili zela Oñatiko artxiboko dokumentuak ikertzen, eta horrek "lotura zuzena" duela ekimen honekin, jakinda hark egindako ikerketa lanari esker heldu zirela San Juan bale ontziraino. "Gainera, itsasoz ekarri zuten txokolatea hona, eta hori ere islatzen du txalupa honek", gaineratu zuen Elorzak.

Txalupa, duen tamainagatik, Gipuzkoa Probintziako Artxibo Historikoko sotoan dago. Abuz-



Txokolatezko txalupa, Oñatin; ekainaren 1ean Albaola ondoan itsasoratu zuten. O.ELORZA



Oñatiko artxiboko arduradun Ramon Martin, azalpen historikoak ematen. O.E.

tuaren 4ra arte egongo da bertan eta bisita gidatuak egingo dituzte; egunero, 12:00etan, *Kakaoaren ibilbidea* bisita gidatuko dute Txokolateixako ardura-dunek eta, astelehenean egubakoitzera, 13:00etan, historiari lotutako bisita gidatuko dute turismo bulegoko langileek. Bisitok artxibotik abiatuko dira eta komeni da aurrez tokia hartzea, turismo bulegoan (943 78 34 53) edo Txokolateixian (605 76 35 95). Txokolatezko txaluparekin batera, dokumentuekin eta liburuekin osatutako erakusketa bat ere prestatu dute artxiboan.

Trainerutik bale-txalupara
Ramon Martin artxibozainak aipatu du elkarlanean egindako proiektua dela eta erakusten duela egin daitezkeela gauzak elkarlanean. "Ezagutzaren metaketa" bat izan dela; gozogileak, txalupaz dakitenak, artxibozainak eta erakundeak, besteak beste elkarlanean.

Gozoa elkartekoen hasierako asmoa zen traineru bat egitea estropadak Euskal Herriaren parte direlako, baina Albaola-koekin proiektua kontrastatu ostean, Albaolakoek proposatu zieten XVI. mendeko bale-txalupa baten erreplika bat egiteko. Gozoa elkartekoei ideia ona iruditu zitzaion, eta orain gozogile artisauek bereziki daude pozik bale-txalupa eginda, txalupa bera egin bakarrik ez, historiaren zati bat berreskuratu eta hori kontatzeko eta zabalatzeko proiektua ere badela ikusi dutelako. Euskal Herriaren historian zehar bidaia ezin gozoago bat proposatzen dute, Oñatiko artxiboan *dastatzeko*.

ANTZUOLAKO JAIEN HASIERA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
UZTAILAREN 13AN, EGUENEAN, 19:45EAN HASITA
ZUZENKO EMANALDIA ANTZUOLAKO PLAZATIK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

